



## IPUIN ETA IXTORIO

**Piarres Larzabal**

(1930-1964)

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (V)*, Piarres Larzabal  
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1996.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalIpuinIxtorio.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## LARRUNGO BETIZOAK

Ez du aspaldi oraino, Larrungo mendian, Espainiako eta Frantziako mugan, bizi zirela behi basa batzu edo, jendeek deitzen zituzten bezala: betizoak.

Oro berdinak, gorrixtak, adar mehe, punta zorrotz, lurrerainoko buztanekin ziren. Behi etxetakoak baino tipiago, hauek begien bixtan ez zezaketen ereman. Behin, batez ere, betizoek, buztarran ziren bi idi, adarka hil zituzten. Gau eta egun, beti kanpoan, lo egiteko, zonbait mendi bizkarretarat nahiago zuten atera. Larrean umatzen ziren. Aratxeak ixtan-teko pizkortuak, ikus zitazken beren amen errapetan haunditu eta ere.

Betizo multzo baten artean izaiten ziren hiru, lau zezenetaraino. Hanbat gaixtoago arropa gorria zuenarentzat, edo aratxe hetarat sobera hurbiltzen zenarentzat. Lehenbizian gizonari behatzen zioten, azpi so, trebeska aire batekin. Gero heldu ziren, burua behera, adarrak zut, lepoko larrua zimur eta jendeari jazartzen, ez bazen handik laster urruntzen.

Bainan, galdaturen dautazue, ez zirena hartzen edo hiltzen ahal? Ihardetsiren dautzuet hekien atzemaitea ez zela errex, ezin bilduak zirela-kotz, Atzemanikan ere, batzuetan gertatzen zen bezala, ez zitazkela bertze behiak bezala hez eta erabil, eskupeko izaitea ez baitzezaketen jasan. Jauzika eta uztarka, bazter guziak xahutzen zituzten eta azkenekotz beren burua, Hiltzea errexago zen, bainan ihiztariei ez zioten hanbat gogo emaiten, non behi horiek ez ziren zaharrak.

Egun batez Pantzua ote pikatzen ari zen, noiz eta ere ikusten baitu betizo bat hari buruz heldu. Zer egin? Ez zen luzaz gogoeta egon. Ondo hartan baitzen borda bat, sartzen da. Bainan betizoa gibeletik zuen huntitzeko heinean. Orduan gure gizona ateratzen da ardientzat borda sahetsean egina zen zilo tipi batetik eta berritz gibelerat etorririk, hesten du atea: betizoa preso zen. Etxerat gan, zizparekin etor, lau tiroz behi-basa



hil, ez zen luze joan. Betizo hartan bertze norbaitek baino zuzen gehiago ez baitzuen, holakotan ohi zen bezala, haragiaz auzoekilako bat egin zuen.

Orai arras betizo guti ikusten da Larrunen. Burdin-bide horrek denak ohiltzen ditu. Damurik! Ezen betizoez gure Eskual Herriko mendietan biziki eder emaiten zuten.

*(Gure Herria, 1930, 83-84)*

## ESKUALDUNA MIRIKU

Etxepare jauna karraskan ari baitzauku «Eskualdunear» medikuntza jakitatearen hedatzen, haren aldean, kasik haur mukizu bat izanikan ere, bizkitartean, hasi duen sail ederrean, ez dut bakarrik utzi nahi. Hortako lotu naiz ni ere lan berari, nahiz arrunt mail berezi batean. Etxepare jaunak erraiten baitauku zer egin behar dugun holako edo halako eritasunetik sendatzeko, nik argitarat eman-gogo dut, Eskualdunek zer egiten zuten eta hainitzek oraino zer egiten duten, gorputza zombait gaitz tzarrez hunkia dutelarik, hartarik garbitzeko. Ez dut den gutienik igurikatzen hek dakizkaten sendagailu guzien argitaratzea, bainan bakarrik zombaitxa batzuen. Hemen aipaturen ditudan sendagailuak, hamar hameka ahotarik bilduak dira oro eta frango eremu hertsian. Beraz ez dut lana hasten bai-zik: haizu nornahiri nere ikertzeak barnatzea eta nik moldatuko axalari mami on bat emaita.

\* \* \*

Zombait aldiz behar bada, egon zarete begiak ñir ñir, ez edanarengatik, bainan aire gaixto zombait begirat sarturik. Badakizue ez dela josteta, beti nigar tzar bat heldu, argia ezin jasan eta hogoi-eta-hameka keinuka ezin geldi. Huna bildu ditudan zombait aholku aire tzar hori kanporat haizkatzeko dira. Aski da begia garbitzea lahar ostu ur irakituarekin. Lahar ostoaen orde berdin litake kamomila, dutea edo oraino ehun ostotako arrosa idortua. Bainan bada horiek guziak baino sendagailu zaluagoa eta errexagoa. Zoazi haurra bularrean daukan emazte batenganat eta, xahakotik arnoa bezala, ixur-araz zazu haren esnetik zirrizta bat zure begiaren gainerat. Bertze deuseren beharrik ez dukezu sendatzeko. A zer tiroa, duzu asmaturen! Nahi duzun bezenbat, bainan, oxtian nion bezala, nere xedea ez da jendeen kitzikatzea, bainan bakarrik erakusterat emaita zer medikuntza duten usatzen holako edo halako gaitzetan.

\* \* \*

Eta beharriko mina nola senda? Badakite orok ez dela hau goxoenetarik eta bereak eta asto beltzarenak ikus-arazten diozkala jiten zaion dohakabeari. Huni ihardokitzeko ez ditut bi sendagailu baizik bildu et



hauk denek ezagutzen dituztenak. Huna lehena. Aski da teila belarra lehertzea eta haren urina beharri ziloa beheiti egortzea. Bigarrena da berritz olio poxi baten sar-araztea beharritik. Eta hori, huna zertako, gizon xahar batek erran dautan bezala. Beharri barnean ba omen da har bat. Har hura egarritzen omen da arteka eta zalapartaka lotzen, bakerik ez duela utzi nahi, edari xorta bat ukan artio. Bitxi ez den ahatik nola nehor ez den ongi heldu, zurrutarik gabe!!

\* \* \*

Kalitza eder da elizan, baina ez da berdin, sortzen delarik esku gainean edo mazelaren erdian. Gu bezalako mutil zarpailek ez diotegu hanbat kasu emaiten, baina bertzela da neskatx larru goxo nahi, irindu horientzat. Huna nola xahar denborako nexkatx gazteek, ganarazten zituzten delako kalitz horiek. Goiz batez goiz jeikirik, zoazi baratzerat. Bil zatzu bederatzi bare eta ziri batean sar-azkitzu lerro lerro. Gero torra-azu zure kalitza bare bakoxtarekin behin. Zure zirria ezar-azu bide-gurutze batean. Bederatzi goizez, lan bera egizu, zure kalitza torratuz bare bakoxtarekin. Deus gehiagoren beharrik ez dukezu zure larrua guritzeko eta leuntzeko.

Egia erran, ez dut nehor ikusi sendagailu horri jarraikitzen, baina ba frangotan segidako huni. Sagar bat pikatzen duzu izari bertuko lau pusketan. Haukiekin, banazkakoan, bi hiru aldiz karrakatzen duzu zure kalitza. Gero, bazoazi zure sagarraren ontsa gordetzerat, hobekienik lur-pean, ezen, haren atzemaileak, zure kalitza, berak ukanen omen bailuke. Gehienetan, ez da aski behin bakarrik gauza horren egitea, baina behar da lau borts aldiz lan berari lotu, karramintxa debrua arrunt suntsitzekotan.

Huna oraino bertze bi molde kalitzaren kasatzeko. Lehena da hunen estekatzea hari zirikuarekin ondo ondotik eta ahal bezen junt. Hola zombait egun atxikiz, bera eihartuko da.

Bigarrena da berriz, fiko ferde bat zapatuz, haren esnea kalitzaren gainerat ixurtzea, hau orratz puntaz zilokatu ondoan. Esne harek, zure larru kailua beltzatzen du eta poxika erretzen.

\* \* \*

Fikoz mintzo nizanaz geroz, behan bada hitz horrek oroitarazten dautzue denek hain maite duzun fruitu azukretsua. Baina medikuntzan bertzerik da, ezen, hemen fikuak deitzen dira, frantsesek «hémorroïdes»

izendatzen dimiten zauri ubeltsuak. Bi sendagailu badira ezagutuak haukientzat. Lehena: erkalatxaren ura egosi eta haren edatea. Bigarrena berriz: mina gantzutzea olio eta malba urarekin, hauk izari berean elgarekin nahasi ondoan.

\* \* \*

Malba hortan eskualdunek fidantza haundia dute. Horrekin maiz zangoak mainatzen dituzte. Bertzalde, horren ostoa ura baino hobegorik deus ez omen da barnea garbitzeko, salbu behar bada, fruitu ferdetik ausarki jatea.

Horiek hola, irakurle xahar maitea, segur naiz ez zinazkela lekuaren gainean, jakin nahizik zer sendagailu aterako ote dudan zure erromatismentzat. Har zatzu beraz maiz eta beroki azeri buztan mainoak.

Bertzenaz, atzeman-azu azkonarro bat eta haren urinarekin ontsa torra-azu zure belaur edo beso gogortua.

Edo oraino, bederatzi bat pinta uretan ezar-azu bi kilo gatz eta bina gre poxi bat. Ur hartan busti-azu oheko mihise bat eta huntaz ingura zaite. Baditake azken aholku hunek, tut ez duen balio, baina hola jokatzen omen ziren gure arbasoak, eta hetarik hainitzek beren ehun urteak bete dituzte. Ez da beraz hor irri-mirrik, heien erakaspeneke zerbeit on badakarte.

\* \* \*

Xaharra eta haurra, bi hitz horiek usu uztartzen ditugu. Ikus dezagun beraz nola eskualdun amek artatzen dituzten beren haurrak.

Legarraren sendagailurik hoberena omen da ezta.

Krisma (5) baldin badu zure haurrak buruan, hau ez zaio demendrenik artatu behar. Bertzenaz jinen zaio urte-mina. Azken gaitz hau higuigarrieneratik da. Gorapenetan gaxtatzen da eta beherapenetan gordetzen, baina sekulan ez kuntsumitzen.

Zizariarekin dutelarik partida hurrek, huna zer sendagailu usatzen dituzten eskualdun amek. Lehen bai lehen edanarazten diote haurrari zizari belar ura, edo berdin, baratxuri ura olioarekin nahasi eta. Gero ibilarazten diozkate lepoan, bederatzi baratxuri xixtor, hari batean, arrosarioa iduri apailatuak. Gaitz berarentzat, arras on omen dute ere, xilkuaren gainean atxikitzea ur eta izpirituan egosikako kamomila, bero beroa.

\* \* \*



Xarranpinaren sendagailua galdetu eta, ez dut ihardeste hau baizik ukan: edan azkarki esnea.

Kokolotsa duenak behar omen du bizi den lekutik urrunxko aldatu, aire berri bat aurkitzeko gisan eta kafea edan ausarki.

Huna bertze sendagailu bat oraino, min berarendako. Bare kurkuilu andana bat bil-azkitzu eta ezar, ongi azukrezaturik, irazteko baten gainean. Laster bare kurkuilu heiek guziak hasiko dira halako kaurin baten kanporatzen, Kaurin hura aski da haurrari ur epel pixka batean irets-araztea. Eta, ez otoi ari fu-zikinka. Edani hori arras ona omen da eta haurrek ezpainak milikatzen omen dituzte xorta bat ere ez galtzeko.

\* \* \*

Haur hainitzek, zonbait odol gaxto eginarazten diozkate amari, izen gabeko eritasun hunekin, erran nahi dut, gau guziz ohea bustiz. Xaharrek diote, aratsetan ez litazkela sekulan haurrak su-ilete batekin jostatzerat utzi behare jostatze horrek ekarki duelakotz oxtion aipatzen nuen ondorio tzar hori. Dena den, huna nola ikusi dutan gaitz horri ihardokitzen. Bazoazi hil-harrietarat eta hartzen duzu azkenik harroturikako lurretik, ahur on bat. Haurra oherat eremaitan, zure lurra erakusten diozu, erranez nondik duzun eta han ezartzen diozu sehaskako buhurdiaren azpian. Hori bera maiz aski da, haurraren sendatzeko. Zoin egiak diren ahatik hitz zahar hauk: izitzea dela zuhurtziaren hastapena!

Bertzalde errankizun bat bada, eritasun hori bentzutzeko aski dela, zonbeit sugu urian egosi eta, hola moldaturikako haragi salda zanka zanka klikatzea. Bainan, ez zaut iduritzen egundaino nehor atrebitu dela holako zikinkeraren iresterat.

\* \* \*

Aza xirtoina olioan bustirik, ez zinuke sekulan amestuko, zertako ditaken paregabea. «Suppositoire» gisa. Jendetasunarengatik ez dezaket izen frantses hori, eskuararat itzul. Agian ez zautzue sekulan behartuko zer den jakitea.

Zakarren idortzeko ez omen da deus hobeagorik nola lahar ostoa eta zaia urean irakin-arazi ondoan, hunekin heien garbitzea.

Hi aldiz, goiz gixon mukizua, hire bizarra ezin sortaraziz ari bahaiz, entzun-zak zahar aholku hau: oilo kakaz torra-atzik hire mazel kokotsak.

\* \* \*

Sugeak ausiki bazaitu, zoazi ahal bezain laster erroitza batetarat. Kanibetarekin gurutze bat egizu ausikiaren gainean eta han ezar-azu ur zurruta baten azpian. Gero esnez asetzea bertzerik ez dukezu, fine sendatzeko.

Ur xirriparik ez bada zure inguruan eta norbaitekin bazare, huni suge ausikia tustaraz-akozu, ez balin badu segurik ahoan fits karramin-tzarik. Horixe bera aski omen da salbatzeko.

\* \* \*

Neguan hainitz jenderi eskuak zartatzen zaizkote hotzarekin. Huna sendagailua: doazila ardi deizterat. Ardi errapean baita halako liska bat, hunek zalu joan-araziko diozkate zartadurak.

Ez zinazukelarik letagin edo hagin usteldu batetik minez, emaztekoa bazare, ar-atzu basa pastenagre lañazak, gizona bazare aldiz, pipa-azu ausarki.

Mafrundi tzar batek joa, zintzatzetik ezin geldi zintazkelarik, lañazak ar-atzu ur irakituarekin, huntan lehenik ezarririk ahur bat hauts, ahur bat piper min eta bertze hainbertze gatz. Agodrienta edateak ere on haundia egiten omen du holakotan. Nonbaitik ere!!!

Huna eskualdun xaharrek zango mainatzeko urean, zer manatzen duten gehienik emaita: gatza eta hautsa, xira ostoa, eltzaur ostoa, gaztain ostoa, belar azia, malba. Odol gaxtoek kitzikatzen bazauzte, haukientzat, urari petrola nahastea da hoberena.

Beso edo zango inartatua junt lot-azkitzu, inarta belarraz inguratu ondoan. Belar horren eskasian, keldar errauts puska bat, zonbait arroltzeren xuringoarekin heda-azu trapu baten gainean eta huntaz birungaz-azu zure inartadura. Ezur hautsi edo ateraiarentzat ez da deus egitekorik, baizik-eta daunatuaren atzemaiterat joaitea.

\* \* \*

Odol kolpearentzat behar omen da edan karraskila ura edo ausin ura. Azken sendagailu huntan fidantza haundia duen gizon batek zautan: zonbat ausin ur edanen baituzu, hainbertze odolez arinduko zira. Zintzi-marien beldur bainintzen egundainotik, orai jakinen dut nola joka bertze aldian.



Leperia balin baduzu, zaude beroki, zure lepoa ardi ile ahal bezain zikin eta gizenkorrez ontsa tapaturik.

Behin atzeman dut gizon bat, zernahi ikusten zuela urdailarekin. Arrunt gogoetatua zen bere eritasuna zombait sorginek egorria zakotela. Hortakotz atso zahar batek aholkatuik, hamar liberako bat hel-arazia zuen herriko erretorari, meza bat erran zezan harentzat.

Bertzalde bere gaitzarentzat hainitzek manatzen omen zakoten bere pixetik goiz guziz eta barurik baso bat irestea, bainan ez zen atrebitzen. Huna beraz zer hartzen zuen apairutzat egunean bietan: baba zahar leher-tua, olio eta baratxuriekkin nahas-mahasia. Agian ongutuko ahal da!!!

\* \* \*

Frangotan, nik uste, golkoan ukan duzu halako erredura bat. Huni bihotztarra erraiten da eskuaraz. Horren eztitzeko aski omen da edatea esne gordina edo lahar ostoa ura, edo oraino jan-azu eltzaurra.

Ote bat nori ez zaio egundaino sartu eskutik edo zango zolatik? Batzuetan orratz puntaz oren batez kitzikaturik ere, ez ditake larru gaine-rat ageraraz. Orduan, huna zer egin. Ote ziloan ezar-azu, zerri mina (oro-tsarena ahatik) edo oraino gatzagiaren mamia. Bi gauza horietarik, bat ere ez badaukazu eskupean, berdin da, ezen horien orde indar bera du zure beharriko liskak. Hunen atzemaitea da lana!!!

\* \* \*

«Jaunisse» nola izenda dezaket eskuaraz? Gure aldetan segurik «joni-za» deritzagu, Dena den, huna nola arta dezakezun. Aski ditutzu bedera-tzi zorri egostea eta heien ura edatea. Usteko duzu, beharbada sendagai-lu hori errankizun bat dela bakarrik. Nik ere, hala naukan lehenbizian nere burarekin, bainan geroztik osoki segurtatu naiz, delako salda hori ez dela ontsa bazkaldu eta asmatuko hetarik, bainan egiazki zintzurra behe-ra joaiten diren hetarik.

Saki batetarik odola zurrutzan heldu eta ezin geldi-araz delarik, odol ziloaren tapuin gisa, irmiarma sarea zerbitzatzen ikusi dut maiz.

Sahetseko barearentzat huna gure haurtzarotik zer egin behar dela erakutsi daukuten. Aski da konkortuz lurretik harri bat hartzea, tuz bus-titzea eta lehengo leku ber berean ezartzea.

Irriz zaudete segur sendagailu tetele huntaz, bainan nik dautzuet ez dela batere tetelea, ezen, frangotan, horri esker, nehorrek kasatu izan dut sahetseko barea.

\* \* \*

Ettxeari sua lotzen delarik, ura botatzen zaio gain behera. Bainan zure zangoa edo besoa erretzen hasten badira, bertzela behar duzu joka-tu. Zoazi beraz laster barrokirat. Bil-azu eskutara on bat behi kaka guri eta gozotik. Gero, han, talo bat bezala zabal-azu erreduraren gainean. Hola ez zaitzu den gutieneko frintzarik agertuko.

Gauza bera egiten da egosidurarentzat. Behi lohiaren orde berdin da kisu bizia edo batzuek diotenaz: tinta.

Xitapur zombait nonbaitik sartu eta ezin atera duzularik, aratsean oheratekoan birunga-azu zure mina suge larruz. Biharamuneko xitapu-rra bera jaliko da haragi barnetik.

\* \* \*

Negelarra joan-arazteko, aski da hunen gantzutzea bederatzi goizez eta barurik anbulu erroarekin edo oraino tua eta gatzarekin.

Beltxorra balin baduzu begian, (eta hau gezur erraiteak etor-arazten omen du) gako baten eraztuna bero-azu oiha baten gainean harat eta hunarat ibiliz. Gero eraztun harekin zapa-azu zure begiko hauntura. Deus bertzeren beharrik ez duketu, zutarik gezurri aipamenaren urruntzeko.

Urtzintzaren ixil-arazteko, frango jukutria bada bazterretan. Huna hiru, gehienik ezagutuak eskualdunen artean. Baso bat ur edatea, gapelua azpikoz gora buruan emaita edo zartako fin bat ukaitea. Ahatik, ez ahantz, jendetasunak galdetzen daukula urtzintzariari: «Dominix tecum» erraitea.

\* \* \*

Izerdi sartua nola senda? Zer zaitzu Batita? Eta Batita hasi zaut segi-dan sekulako elasturetan. «Hori, behin, gartzetan, pilotan ederki izertu nin-tzen eta gero hoztu. Hantxe bildu nuen ustez, nere denborako eritasuna. Ohean nindagolarik beraz sukarretan, heldu zaut auzoko gizon zahar bat. Harek erakutsi zautan ene gaitzaren sendagailua eta han esker naiz orai-no bizi. Huna zer nuen egin. Odolki egosteko panderu haundi baten bete



ur irakin-arazten duzu eta hartan ezartzen erramu benedikatutik zonbait aldaxka, baratxuri zahar hosto zonbait eta erromani ondo batzu. Pandero hura tapatzen duzu arbi-ketako saski kozkor batekin. Zehorre jartzen zare biluz gorririk saski haren gainean eta ongi ongi inguratzen zare oheko estalki zonbaitekin. Epe laburrak barne, izerdi uharrak abiatzen dira bizkarra behera eta zure eritasuna urak eremaiten du». Ez zen den gutienekorik dudatzen, gaizo Batita, haren endagailua aspalditik hedatua dela, ez balin bada ere hartzen panderu eta saski pottorrekin.

\* \* \*

Eztularen kontra aholkatua da idi-mihi ura. Bertze frango belarkiekin saldak moldatzen dituzte eskualdunek, bainan belar horiek ezagutu-xeak dira jadanik leku gehienetan. Hala nola: kamomila, gerezi buztana, meliza, tilura, lizar ostoa, gaziz ostoa, xendena belarra, menda, edo oraino koskana, hau izpiritu poxi batekin.

Ote sistako batetarik maiz zorne bat etortzen da. Ez bada kasurik emaiten zorne harek bere inguruak kutsatzen ditu eta laster umeak egiten. Min hortarik sendatzeko, zila-atzu, orratze gorritu batekin zure bizika materiatsu guziak eta gero atxik-azu bulta bat zure alderdi minbera ur gai batean (ur gaia erraiten diogu kurri doan urari). Hortarik lekorat, ez duzu zauriaren idortzeko lana bertzerik izanen, huna zerekin: bada ostoarekin, edo belar beltzarekin edo bortz zainetako belarrarekin edo hobekienik orkatx belarrarekin. (Hau oraino aingeru belarra deitzen dute).

\* \* \*

Zernahi karramintxen artagailu gisa on dira baratxuri lehertua, tipula berotua edo esne gaina (hau bereziki mina jadanik zakartua delarik).

Haunditsuentzat bi sendagailu bildu ditut, deus ez baitute zor botikariotako sendagailu hobereneri. Lehena da: pika belarra. Belar hau, larrira eta oliotsua, guti aurkitzen da bazterretan. Suan poxi bat guritu ondoan, ezar-azu zure haunditsuaren gainean. Nik dautzut laster ohartuko zarela zer ondorio onak emaiten dituen. Laparra bezala lotzen da bere lanari eta uzten balitz, ez luke bakarrik materia gorputzetik jalaraziko bainan haragia bera ere.

Bigarren sendagailua, «tirakolon» deitzen da. Nik ez dakit non debrutik heldu den izen hori. Dena den, huna nola moldatzen ikusi dutan. Eltze batean nahasten dituztu salboin beltza, etxe ezkoa, urin gatz

garbia, etxe arnoa, oilo gantza, baratxuria, olio eta bederatzi ur benedikatu xorta. Hauk ongi higituz berotzen dituztu eta zure sendagailua egina da, ontsasko baliosa baita.

\* \* \*

Ema sabela mina huna nola behar omen den artatu, emazte batek erran dautan bezala. Lehenbizik gantzutzen da eria olioarekin, hasi zango puntetarik eta sabeleraino: gero berritz gain behera ber lekuraino, Orduan ezartzen zaizko sabelaren gainean bi soseko bat eta hiru xirio benedikatu mutur, hauk sosaren gainean tente. Baso batez tapatzen dituztu zure sos eta xirioak. Lan bera has-azu bederatzi egunez eta sendo izanen zira.

Gongoilak zer ote dira? Batere ez dakit, bainan berdin da heientzat bildu dudan sendagailuarentzat, ezen hau errankizun bat bertzerik ez da. Huna zertan den dena. Bederatzi aratsez, bederatzi gurutze bidetan, hiru aldiz bide gurutze bakoitzean eta behin bakarrik hatsa hartuz, aski da erraitea: «Gongoilak badire bederatzi; bederatzi, zortzi: zortzi, zazpi: zazpi, sei; sei, bortz: bortz, lau: lau, hiru: hiru, biga; biga, bat. Nere gongoilek egin dezatela zirt eta zart».

\* \* \*

Zangotako edo eskutako haunturen joan-arazteko huna sendagailu bat, frango lekutan oraino usatzen dena, Eltze batean ezartzen dituztu bederatzi gatz bihi, bederatzi harri kozkor, bederatzi erramu ostoa, bederatzi baratxuri xixtor, bederatzi ur benedikatu xorta. Eltze hura itzultzen duzu azpikoz gora, ur irakitua daukan plata batetarat, eta haren gainean apailatzen dituztu gurutzean axtur bat eta orraze bat. Zure zango edo esku hauntua luzatu ondoan hola eginikako gurutzearen gainerat, tapatzu ongi. Gero zaude geldi geldia platako ura noiz eltzerat dena sartuko den beha, ezen hala gertatzen da. Bederatzi egunez, gisa berean joka zaite eta osasuna ukanen duzu.

Huna non bururatu dudane lanttoa. Hortako ez nauke hitz bat erran gabe. Huna zer. Ez otoi uste izan sendagailu hauk, nehorrek asma-tuak direla. Ez naiz aski burutik maingu hola paper beltzatzen artzeko ametsetako lukainkez eta bertzalde, irakurle maitea, ene sendagailuetarik hainitz zehorrek ezagutzen dituztula segur naiz, hori baita frogarik hobere-na ez direla ametsetakoak, bainan ba egiazkoak. Ahatik, ez iduki eskualdunak, jende tonto gibelatu batzuentzat. Nornahi bezein ongi badazkite



zer diren kataplasma, baso eta gaineratekoak, eta eskualde hautako botikarioak, bertze edozoin eskualdetakoak bezenbat aberasten dire. Nere xedea izan da beraz, ez medikuntza jakitatearen erakustea, bainan ba eskualdunen jakitatea, medikuntzaren gainean. Nik ez dut lana hasi baizik. Agian norbaitek segituko du edo sendagailu berriak bilduz, edo, ene sendagailuetan berexkuntza eginez on eta tzarren artean. Nork daki, ean, hola jokatzuz, ez giren jaingo ttipien maileraino helduko? Agian ba!

*(Gure Herria, 1934, 404-413)*

## SORGINAK LAPURDIN

Eskual Herriko etorkizun guzian ez da izan behar deus hitsagorik eta bihotz okaztagarriagorik, nola Lapurdik 1609an hartu izan duen zafraldia, eta hori, ikusiko dugun bezala, ametsetako sorgin zombaitengatik. Urrunagoko xehetasunen ongi kaskoan sar-arazteko, erran ditzagun lehenbizi hitz batzu, denbora hetako Lapurdi eta Lapurtarren gainean.

## LAPURDIKO BILTZARRA

Lapurdiko goiti-beheiten arta, Biltzarrak zuen. Biltzarreko gizonak, etxeko jaun edo auzapez, (hauk orduan apezak deitzen zituzten) urtean behin Uztaritzen elkarretaratzen ziren, Uztaritze baitzen Lapurdiko 35 herrien burua.

Herrian zuzentasunaren atxikarazteko eta mendiz bertzaldekoeri behar orduan ihardokitzeko, Uztaritzen baziren 1.000 soldado Lapurtar, Frantziako erregearen kideko gizon bat zutela aitzindari. 1609an, Senpereko jauregi-zaleak zuen kargu hori.

Elkarren artean ezin xuri ziren auziak, Baionako buruzagi gorakoaren aintzinean agertaraz zitazken. Hunen ihardesteaz ez baziren ados auzilariak, beren samurgoaren zuzenlari, hartzen ahal zituzten Bordeleko lege gizonak. Haukien gainean ez zen erregea baizik.

Bi bizimolderi emana zen Lapurdi. Laborantzari lur barnetan, hala nola Uztaritzen, Hazparnen, eta arrantzari itsas hegian. Nahiz toki hautako sagarnok eta gatzainek bazuten erakaspen, lur lanak ez baitziren hantat aberaskor, itsasotik frango urrun bizi zirenak ere, bereziki Azkaindar eta Urruñar hainitz, arrantzari jarraikiak ziren. Etxe ttipi batzuen jabe, goldetsu bat lurekin, behi bat edo bertze hazteko manera gehienek bazuten. Beren haur-emazteak hemen utzirik, iñadak agertu baino lehentxago itsasoen barnetaratz gaten ziren, Ternuraino berdin, balea edo bakailauaren ondotik. Zazpi hilabetetaraino urean ematen zituzten.

Orduko kostatarrek, oraikok bezin odol beroa zuten. Maiz elkarren artean kasailan ari ziren. Bainan bazituzten bereziki bi makur-bide.

Batetik Hendaiarren eta Hondarrabitarren artean. Alabainan Españolek, hek zutela bakarrik Bidasoan arrantzan aitzeko dretxoa, timuin atxikitzen zuten. Frantsesek berritz, Bidasoaren erdia bederen





hekiena zela zioten. Hortarik, noiz nahi baziren mutur-jokak eta heriotzeak, ezen, behar orduan, ala Hondarrabiko jauregia, ala Hendaiakoa, ez ziren kezak, beren eremutako gizoneri esku emaitako, zombait kanoi ukaldi noiz-hemenka etsaien bizkarrerat largatuz.

Bertzalde Donibandarrek eta Ziburutarrek ez zuten batere elkar adi-tzen. Bi herri hoikien artean, itsasorat pulunpatzen den ur haundian, halako eta holako untzi egon-tokiak hekiek zirela, zioten Ziburutarrek eta hanbat gaxto, zergarik pagatu gabe, leku hetan kokatzen bazen zombait Donibandar atrebitu. Donibandarrerik aldiz, ura denena zela iduritzen baitzitziotien, ez behar bada arrazoinik gabe, ez ziren segur ixilik egoitekotan. Hi bahaiz, ni banauk, arnoa hirugarren, mutur-joka partida batzuen egiteko, gaia ausarki bazuten.

## LAPURTARRAK SINESKOR

Eta erlijioea zertan ote zen denbora hetan? Orok dakitena da hamabortz eta hamaseigarren mendetan, jendea deubruaren beldurrean bizi zela. Sinestea tikitzen den tokitan, maiz amodiozko sendimenduen ondotik, beldurrezko sendimenduak etortzen dire. Beraz, hainbertze entzuten zen deubruaz eta haren obrez mintzatzen, dela prediku-alkitik, dela sahetsetarik, non, gertakari bat ere ez baitzitaken iragan, hartan nehork, zombait deubruri, bere sudurra sar-arazi gabe, Eskual-Herrian bereziki, egundainotik sinestedun bezin sineskor izatu baigare, deubru kondairak gogotik entzunak ziren eta gazura bezala iretsiak. Horra zerk behar zuen galdu Lapurdi.

Emazu behi bat hiltzen dela. Oraiko egunean miaka ariko gintazke, ean ez diogun bada azienda gaixoari zerbeit pozoiniki eman, edo trefla berotu edo ixurkin zikindu edo... nik dakita zer. Bainan orduan, jendeak ez zuen holako buru-hausterik ibiltzen. Behi batek arta eskasez edo eritasunez leher egin zezakela? Ba zera! Bitxia behar zen holakorik ateratzeko ere. Hiltzeko gaitza? Ez urrun bila. Bi egun zituen doidoia, auzoko atso sorgintsa deubru hura, haurrek ikusi zutela heiaiko atetik behieri beha. Beha, ba jauna, beha egotua zen bere begi xorrotz ziferekin. Geroztik uztarriko Katxok ez zuen gauzonik. Hiltzeko xortea botaila zion sorgintsa, eta lurreko marexalik hoberenak, deus ez zezaken, haren sendatzeko. Sorgintsa tzarra! Izigarria zen ba ahatik haren lana! Bainan laboran gaxoak ixil

ixila egoitea hobe, bere herra bihotzean, ezen oihuka hasi-eta, ez bat, bainan berdin azienda guziak ziozkan sorte tzarrez joko delako atsoak.

Huna, etxe batean, gizon bat eri. Eztiki eztiki, ehorts-lekueri buruz, barneko gaitz tzar batek derama. Emazte multxo bat, auzo edo ahaide, han ditu ganbaran. Ezar dezagun apur bat beharria atearen kontra, entzuteko zer dioten elkarri: «Ni nago, da hasten Kattalin, min hori ez ote zaitzun zombait zorte-tzarretik heldu. Ez zaitu nehoiz zombait sorginek ukitu, begiztatu edo mintzatu bederen?». «Ez dut uste, du lehenik ihardesten eriak, bainan, gogoetak egin eta: hala duzu, Kattalin, Urketako atso sorginak udare eder bat eman daut guri guria», «Segur naiz hura jan duzula?», «Ba, eta gogo onez, ahotik ezin utzia baitzen!». «Horra Maria, horra, Mañana, ez dun dudarik. Barneko min hori ez din onezkoa. Atso zikin harek ukan-arazia zion!». Ez zen gehiagoren beharrik gure emazteen ikaraz hormatzeko eta heien gogo-bihotzen iluntzeko. Sorgintsa higuina! Eta hobendunari ezin jazarri dena, norbeiti halere pikoa sartu gabe ez baitagoke, bereziki emaztekoa: «Zer deubru, zioten elkarri! Zer ari dire herriko buruzagiak eta apezak? Ez ote dute ba zerbeit indar sorgin gaxtagin hoikien kontra? Hola ez ditake iraun. Ez badute deus bururatzen ere, zerbeiti bederen lot daitzila, hola geldi-geldia egon gabe».

Jendea geroago eta kexoago zotan. Herri batetako sorgin gertakariak, haizea bezin laster, bertze herritan hedatuak ziren. Orok bazakiten Mendiondon, haur bat, epe laburrak barne, hamikatu, ziritu, eta hil zela. Nola hori? Bere gapelua lurrerat erori baitzitzaion, atso sorgintsa batek zion bildu. Hortan akabo. Haur gaxoa gaitz gaxto batez joa izatu zen eta hiru egun bertzerik ez zuen iraun.

Hiru egunez ez bazen hiltzea zilegi, sorginkeriarik gabe, asmatzen ahal duzue, are gutiago garbi zitakela norbeit tipus-tapan, nonbeitik zerbeit xorte tzarrez hunkia izan gabe. Ez da harritzeko beraz Baionan iraganikako gertakari batek, burrunba gaitza ibili bazuen zombait egunez, Eskual Herri guzian. Huna delako gertakaria. Andere gazte bat ari zen otoitzean ehorts-harri baten ondoan. Bizkarretik zerakarken mantaleta beltzaren gainean, baitzuen luma edo hari xuri bat, Mandiburo izeneko emazte xahar bat hurbiltzen zaio, luma edo hari xuri hura kendu beharrez. Edo norbeitik hala gibeletik, ohart-gabean, ukitzeak, izitu ote zuen, edo, lur azpian ziren ezagun eta ahaiden oroitzeak, bihotzean zerbeit egin ote zion, xuxen ez dezakegu argitarat eman. Dena den, gure andere gaztea, punp zabal zabala erori zen, eta «Agur Maria» bat erraiteko astirik ukan gabe, mundu hau utzia zuen. Ez zen duda mudarik. Marrumek, oihuek, intzirinek eta oiharzunek gauza bera zioten. Mandiburek zortea botarik



hila zela delako anderea. Zoazi gero zu horren ukatzerat. Ez eta makil ukaldika ere ez zinioten egia kaskoan sar-araziko!

Harriak, artoak edo baratzeakariak xahutzen bazituen, eritasun kutsudun batek artalde bat ondatzen bazuen, ihurtzuriak arbola bat jotzen bazuen edo zombait sorropil kixkailtzen, oro sorginen gain gaten ziren.

Martikot de Migelkorena ziburutarraren untzia ur zolarat gan bazen, hori ere sorginen lana.

Baionako kalonje bati, orena, uste baino lehenago, etorri bazitzaion, Catherine de Molères sorgina zen hobendun.

Erortzeko mina, barneko gaitz gehienak, eritasun luzeak eta heriotze lasterrak, denak debruaren obratzat zauzkaten.

\* \* \*

Lan haundi baten bururatzeko, langile hainitz behar den bezala, hoinbertze sorginkeria nekez zitaken sorgin hainitz izan gabe. Hortako, beren solas urratsetan zerbeit berezi zuten jende guzientzat, debruari salduak zirelako burrunba laster ateraita zen. Bakartasunean bizitzea, nehoi kasurik egin gabe, bere buruarekin palabran aitzea, bertzeak ez bezala kurritzea, mintzatzea edo behatzea, gauaz ametsetarik edo zentzu osoarekin kanpoan ibiltzea, horiek oro, sorginkeriarri emana zinelako seinaleak ziren. Bereziki, eliza zokoetan, ezpainak otoitzean eta begiak xorrotx, ikusten diren mutzurdin hoitarik gehienek, zorte tzar botatzaile zirelako fama zuten.

Bainan elizatiar atso zahar hek baino ehunetan hastiroago zituzten gure arbasoek, bertze jende mota batzu. Buhamiak nahi ditut aipatu. 1575an Espainiatik haizatuak, hauk Lapurdin alhatu ziren, hala nola Ziburun, Azkainen, Senperen, Ezpeletan. Batzuek otarre eta saski eginez beren bizia ateratzen bazuten, hainitz bizkitartean, eskeari eta ohointzari emana zen. Frangok ere, merkatu egunetan eta berdin handik kanpo, geroa ezagutu nahiz ari ziren teteleeri, dirutan truk, geroa argitaratuz, zuten beren ogia irabazten. Ohidura bitxiak, esku zikinkeria maite, etziko gertakariak egundik ikusten, horra tira arrazoin, Eskualdunek Buhamien seko higuintzeko eta debruari saldurikako arima batzu zirela kaskoan hartzeko. Geroztik buhame eta sorgin hitzek halako ahaidetasun bat izan zuten gure zaharren ahoan. Eta, ez baititazke nahas ardiak akerrekin, elizan berean, sar-ate eta jarleku berexak eman ziozkaten agoteri.

\* \* \*

Horra beraz nor ziren gure sorgin izigarriak eta zer ziren hekien lan tzar, ezin jasanezkoak. Bainan xo, xehetasun harrigarrienak ezen, aipatze-koak ditut zorte botatzaileen gainean. Hortako zahar zaizte lau mendez eta zatozte enekin gure arbaso baten sukalderat, iluntze batez.

Su eder baten ondoan, huna jarri-ta, amatxi, hiru lau haur inguruan dituela. Ama berritz, baxera lanetan ari da, artean hasperen batzu entzun-araziz, doaike itsasoan den gizonaren oroitzeak eginarazten diozkanak. Bainan, hauxok haurren prestutasuna! Ez harri, amatxi istoriotan dugu: «Haurrak ez ahantz ur benedikatuarekin zeinatzea oheratekoan. Bertzenaz sorginek berdin gauaz eremanen zaituzte. Ganden astean oraino bat gan omen dute bere sehaskatik. Zorionez haurra nigarrez hasi baita, burasoak atzarri dire eta sukaldeko atean, abantxu kanpoan zelarrik gelditu dute». «Bainan, dio tikiak, norat eremanen zuten?». «Debru bestarat, haurra. Han haurrak debruari jaterat eskaintzen diozkate edo hari saltzen. Eta haurrek ez badiote debruari musu eman nahi, sorginak zanpakoka ez zaizkote gelditzen. Luziferrek, behieri adarretan bezala, burdin gorritu batekin, bere seinalea ezartzen diote begian. Seinale hura apo zango bat izaiten da. Geroztik, haurrek apo itsusi, beltz, haundi batzuen zain behar dute egon, han ilunpetan. Kasu beraz, haurrak. Ur benedikatua ez ahantz. Ederki eginen zinuteke beti zuen sakelan ibiltzen bazinute pixka bat».

Hemen, krak, amatxi ixiltzen da. Zer du bada? Ez duzu entzun oilarra kukurukuka? Gizon gogorra zu! Haurrek, amak eta amatxik bertzelako beharria dute, ezen denak oihuka ez dire ixiltzen: «Sorgina puies, sorgina puies!» Ahur bat gatz laster surat aurtiki du batek, zarta dadien mila bunbakotan. Hauxok bitxikeria! Zertako hori? Ha, ez dakizue! Ikasiko dautzuet beraz, ximixta lasterrak bezala «ziuztan» ibiltzen direla sorginak, gauaz, airez aire, multzoka edo banazka, ezkartz gidar batzuen gainean edo oraino akarren itxurako debru ikaragarri batzuen bizkarrean. Oilarrek begi ona baitute, sorgin ximixtak, egun argiarentzat hartzen dituzte eta horra zertako kukurukuka diren hasten... Bainan ez orai kexa, egon deskantsuan, ezen gatzaren zanpakoek sorginak urruntzen baitituzte.

Amatxi kezkan dugu: «Ha, haurrak, berritz ere, gure etxe inguru huntan dute ba beren besta sorginek. Gan den gabeen, ohetik entzun ditut gure errekan heien irrintzinak. Egun, segura urari joka ariko dire eta laster barazuza edo harria, gain behera jautsiko zauku». Hasi litania aintzinarat segitu zuen gure kondari xaharrak. Haurrek ikasi zuten nola, holako herrian, nehor ez zitaken elizatik atera, apezak, meza erran-eta, ahantzi zuelakotz, aldareko liburuaren hestea. Ikasi zuten ere, lepo azpi-



ko buhurdietako lumak elkarrî josten direlarik, behar zirela harrotu eta bat bertzetarik berexi, ezen, hori gabe, segur herioak, epe laburrak barne joko baitzuen, buhurdi haren gainean lo egonen zena.

Amatxik mihi ona baitu, lur huntako sorginkeri gehienak aipatu zituen, baina luzegi bailitake denen xehetzea, gu hemen ixilduko gare. Bakarrik ez harri otoi, gure sukaldeko lau haurrek sekulako sorgin amets tzarrak izaten badituzte heldu den gauean. Ez harri ere, jeikirik ametsetan kurri ibiltzen badire, barnean edo kanpoan. Bihar goizean, atzarri orduko, huna zer izanen den hekien lehen hitza: «Ama, sorginak jazarri zaizkit gau huntan». Ama sineskorrak ez badiote ihardesten: «Haurra, zaude ixilik, amets egin duzu», baina hasten bada oihuka eta nigarrez, aiherriz zaitzen zorte botatzaileen kontra, segur izaten ahal zare haurrek, beren buruko gogoeta maingua, gertakari egiazkotzat hartuko dituztela.

Horra nola zen herritan zernahi burrunba hedatzen, sorginek haurrentzat zuten aiherkundeaz. Sutan zagozin izpiritu zombaitetarik aterako umek zituzten beraz gure arbasoen adimendu ahulak ikaritzen. Zorigaitzez buruko sukarra, botikariotako sendagailuz ezituzteko orde, suaz bertzerik ez zitakela garbi zitzaizoten gogoratu orduko buruzagieri eta hortarik erreka gaxto jo zuen Lapurdi eskualdeak.

## ERREGEARI GUTUNA. DE LANCRE BILIGARROA

Alde guzitan, sorginez eta hekien itsuskeriez bertzerik ez zen mintzo jendea. Denak bat ziren erraiteko hola ez zitakela irau, pozoina behar zela kendu leku hautarik. Baina beren pekoen begiratzeko eta hetaz opukatzeko eginbidea zutenak zertako zagozin ba hola deskantsuan, haizea nondik etorriko zen beha? Egia aitortu, Lapurdiko soldadoen aintzindari ordeak, Boniface de Lasse lotinantak, 30 bat urte lehentxago, bazituen erreka Uztaritzen zombait brozela sorgin (berrogoi bat arima). Mihi tzarrak orduan urte multxo batentzat ixildu ziren, baina orai, egundaino bezala kalaka abiatua zen, beti gauza beraren gainean. Zer nahi duzue! Neguko gau luzeetan, nekez zitazken supazter xokoan, arats osoak iragan, ametsetako sorginen gaxtakeria bihotz-ilungarriez hitzik atera gabe.

Dena den, irakiak azkenean gairi egiten baitu, hala zitzaizoten gertatu Lapurdiz arta zuten buruzagieri. Errenkuren berruzatzeko eta bakea-

rengatik, Urtubi eta Senpere jauregik, 1609ko urtarrilaren 17an, Henri IV, Frantziako erregeari igorri zituen gutun bat, erranez nola sorginkeria zaharria zen eskualde hau eta otoi zerbeit mana zezan hemengo jendeen onetan. Jorraleian, leku hartako makurren zuzentzeko, erregeak izendatu zuen Bordeleko lege gizonetarik bat: Pierre de Rosteguy edo de Lancre jauna. Hau kakolaskoa zela iduriturik lan hortako, hunen lagunek izkiriatu zituen gibelarat Henri IVeri, galdetuz bertze norbeit hauta zezan. Baina erregea bere hartan tematu zen edo halatsu, ezen, de Lancre-i eman bazion aholkulari gisa, d'Espagnet jauna, Bordeleko lege gizonen buruzagia, hau, handik laster, kargu hortarik kendu zuen, Hendaiarrek eta Hondarrabitarrek zituzten kasaila-bideen antolatzerat huiatzeko. Beraz de Lancre bakarrik gelditu zen, esku osoak berekin zituela, hiru hilabeteentzat, Lapurtar guzien gainean.

\* \* \*

De Lancre-n lana argitarat eman baino lehen, ikus dezagun zer lumatako biligarroa zen jaun hori. Tipi tipitik, sorgin istoriotan hazia, hekien gainean idatziko liburu gehien jakitateaz hanpatua, gure gizonak, Eskualdunek bere baino sineste haundiagoa zuen sorginkeria baitan. Sorginak airetan ibiltzen zirela, haurrak beren sehaskatik ebasten zituztela, debruekin ezkontzen zirela eta holako zorokeria batzu, nehork ez ziozkan burutik aterako. Alabainan, bai san Augustinen, bai san Thomas Aquino-koaren, bai bertze frango idazleen erakaspena zen hori. Ezagutua ere zen orotan, Sprenger izeneko fraile baten liburu, zointan xeheki irakutsia baitzen, Alemanian sorginek zerarnaten sail ikaragarria. Aita sainduak bere, hainbertze zuten entzuten gauza horietaz mintzatzen, non, batek baino gehiagok, manu bereziak egorri baitzituzten zombait eskualdetarat, sorgineri nola behar zen ihardoki argien emaitako. Baina egundaino aita sainduak ez dute beren gain hartu, orduko jendeak sorginen indarraren baitan zuen sinestea, eta, sorginkeriari jazartzeko molde-tan, beti zuzentasuna eta ezintasuna bilatu izan dute. Lekuko hor ditugu heien izkiriozko manua, hala nola Innocent VIIIenak.

Beraz, de Lancre etorri zitzaizun, dena espantu eta dena kar, Jainkoaren esku-makila zela, bere buruarentzat goraki erranez. Kasu egiten ahal zuen Satanek. Orai arte, bere eskupeko balin bazauzkan Lapurtarrak, hemendik goiti, irri trufak sar-araziko ziozkan gero de Lancre bipilak. Eta nola hori? Ez zare ahalge holakorik galdetzeko ere, zu, elizako gizona? Idek-azu Testament Zaharra, Exodo liburuaren 22 kapituluaren eta irakur-



azu. Huna zer atzemanen duzun: «Ez zakela utz bizitzerat sorginik». Jainkoaren manamendua hola zenaz geroz, gizonak aski zuen ixil eta apal bere eginbidea betetzea. De Lancre-k segurik, berea beteko zuen. Gure lurra sorgin haziaz zikinduak balin baziren, harek laster garbituko zituen, eta ez nola-nahizka, bainan suaz, suak baitu bakarrik landare tzarra betikotz suntsitzen. Beraz bego hitza eta lot lanari. Irakuts sorginak de Lancre-i, laster erre ditzan.

## DE LANCRE LAPURDIN. HAREN JAZAR-MOLDEA

De Lancre Baionatik Lapurdirat sartu zen, uztailaren ondarrean, eta harekin jende-oste osoa: Tribunale batean behar den jauneria guzia, soldado andana bat, gizon urkariak beren tresnekin, miriku bat eta ere, hamazazpi urtetako neskatxa bat, La Morguy izenekoa. Urruntxago irakutsiren dugu hunen ofizioa.

Epe laburra barne, Lapurtarrek jakindu zuten, erregeak igorririk, jin zela sorgin gazitzaile bat, garratza baino garratzagokoa. Zalu hale, herritan, sorginak zirelako fama zuten guziak salatuak izan ziren eta preso altxatuak. Bainan hunkia denak atx egiten baitu, itzalpekoak ez zagozken ixilik. Zuzen edo aldrebek, bakoitza bere etsai berezien belzten hasi zen de Lancre-n aintzinean. Laster auzoa auzoen kontra, herria herrien kontra, zoinek bertzea gehiago zikin lotu ziren. Demendrenik uzkurto gabe, de Lancre-k, salatuak zitzaizkon guziak, preso ezar-arazten zituen. Azkenean, itzalean ez baitzen tokirik, jauregiatiko ilunpeak, presondegi bilakatu zituzten. Denbora berean, tribunala lanetik ez zen gelditzen. Egun gehienez, han edo hemen, sorgin erretzeak ikus zitazken.

Hainitz Lapurtar orduan, ikaratu-eta, mugaz gaindi ihesi abiatu zen, alegia Compostelarat beilaz gaki. Bainan gutik zuten han ere bakea aurkitu, ezen Espainian, Frantzia bezala, tribunale bat moldatua bazuten, erlijionearen etsaien eskuetarik, gogoeta xuxenatarat, onez ez bazen, minez bederen itzul-arazteko. Beraz, ohartu zeneko hobendun multzo bat haren aztaparren gerizan eman zela, de Lancre-k Espainiako tribunalari galdetu zion iheslariak preso hartu eta gazi zetzan.

Gaixo Lapurtarrek bakarrak ikusi zituzten. Itzalean sartua zena, akabo zela, kasik aintzinetik erran zitaken. Gizon baten urkatzea eta erretea zerbeit balin bazen, ene iduriz, hil baino lehen, jasaiten zituen oina-

zeak, oraino latzagoak eta bortitzagoak ziren. Jada aipatu dugun Sprenger frailearen liburutik ikasia zuen de Lancre-k, nola behar zen jazarri sorgin-neri. Eta huna zer dion liburu harek. Norbeitek sorgin fama balin badu, hura preso hartua izanen da. Deus zorte tzarrik ez dezan bota bere behakoez, jujea haren giblean ezarriko da, bere galdeen egiteko. Debruaren-ganik ukanikako irin edo bertze zerbeit pusketeria, beren gainean sorginek gorde bailezakete, beldurrez-eta gauza horierri esker izan lezaketen indarrak balia daitzin, tribunalerat ez dituzte hauk sartuko, biluzirik baizik eta gorputz guzia bizar-nabalezatatu ondoan. Sorgintzat ekarria denak, mintzatzailerik ez dezake har bere xuritzeko, eta, kontra dituen lekukoak nor diren, ez zaio salatu behar.

Egia jali-arazteko, jujeak lehenik onez onean solastatuko du sorgin delakoa, sekulako lausengu eta agintza ederrekin. Hunek debruari saldua duela bere burua aitortzen badu, segidan, saritzat, urka-hagatik zintzilik ezarriko dute. Ez badu deus aitortzen, soka batekin estekaturik airetan atxikiko dute apur bat. Hola egonez flakatzen bada, mirikuak argitaratuko du, ean haren flakezia egiazkoa den edo alegiazkoa. Alegiazkoa balin bada, gure flakaturia sorgina delako seinale segura. Egiazkoa balin bada aldiz, mirikuaren arteri esker, zalu gure presuna, sokarekin berritz lurretik airatzeko on izanen da.

Frangotan, oinazea ezin jasanez, dilindan zagonak aitortzen zuen: «Ba, sorgina naiz». Orduan dohakabea lurrerat jausten zuten eta bere hitzak, sahetseko gela batetarat gan-arazirik, berritz erran-arazten ziozkaten, ezen: «Hola jujeak deskantsu izaiten ahal ziren, ez zela minarengatik manera hortan mintzo gure gizona, bainan haren ezpainen egia ziotela». Batzuek ere, izan zaitzin onez onean edo tzarki hartuak, ahorik ez zuten idekitzen jujearen galdieri ihardesteko. Heientzat ez zen dudarik. Gisa hortako mututasuna, sorgina zirelako seinalea zen. Hala zion Sprengerren liburuak eta liburu haren erakaspena, bigarren Ebanjelioa zen de Lancre-entzat.

Zonbaitek, oinaze eta mehatxu guziengatik, ez zirela hobendun gogor egiten zuten. Hemen La Morguy, nexkatxa ziztariari zen tribunalearen argitzea. Ziztaria diogu, eta huna zertako. Debruek omen, larru gainean uzten zuten seinale bat, o, ez haundia; xinaurri begia bezalatsukoa gehienaz. Seinale hari esker, sorginek gorputzean bazituzten leku bat edo bizpahiru, minberatasun gabeak, hainbertzetaraino non, leku hetan ixkilin batez ziztatuak zirelarik, ez baitzuten pitsik senditzen. Hortako deusere aitortu nahi ez zuteneri, La Morguy-k begiak tapatzen ziozkaten, eta ziztakoka gorputz guzia miatzen zioten, ean ez zuten bada alderdi



minberatasun gaberik ikusteko. Zizta aldi bakotxean, gehienek atx baitzioten, arteka La Morguy-k, larrua ixkilinaren mutur ziztadunaz ukitze-ko orde, mutur pilotadunaz ukitzen zioten. Maiz, sorgin zelako dohakabea, izan zadien ixkilinaren mutur xorrotxaz edo kamutsaz ukitua, ikararekin, atx erran gabe ez zagoken. Gaxoak bere burua oihu hortaz galtzen zuten, ezen, de Lancre-n arabera, hola minik gabe atx-ka aritzea, sorgina zinelako seinalea zen.

Batzuetan, gorputzean La Morguy-k atzemaiten zituen leku bat edo bertze, non, ixkilinaz ziztaturik ere, tribunalerat deitua, ez baitzen batere kexatzen. Behin, jende guzia lekuko hartzen zuela de Lancre-k gauza hori frogatu zuten, Jeannette de Belloc, sorgintsaren gainean. Sorgintza horri, besoko haragi ginarrean, orratz luze bat barna sartu zioten, intzirin bat haren ahotik aterarazi gabe. Gramont jauregi, Vausselos jauregi eta hunen andrea ikuslier baitziren, de Lancre-k bereri, orratzaz haragia sistarazi zakoten, erakusterat emaiteko ez zela gero hura aiererat mintzo bere sorginkeriako solasetan. Gaurko egunean, holako istorioaren irakurtzeak irri egin-arazten dauku. Alabainan, orok badakigu gorputzean baditugula zombait leku, eta bereziki besoko haragian, non ez baigira den gutienik minbera. Ferietako ttattoletan, noiznahi, hogoï sosetan ikus ditazke, hola beren burua orratzez ziztatzen aritzen diren jende-abusari batzu.

Irrigarri bazaizkigu jazar molde horiek, ez dugu ahantzi behar, duela lau mende, orai baino ohidura zakarragoak eta bortitzagoak zirela. Halere de Lancre higuntzekoa da, Elizaren eta Jainkoaren izenean, bere sail okaztagarria ereman duelakotz. Arteka berak ere bihotza ez zuela sobera deskantsu iduri luke, Lapurdiko sorginen gainean idatzi izan dituen bi liburuen arabera. Han hemenka, berak bota eta berak errefera, garratzegia izan zela zioteneri, ihardesten diote: «Ez dela nehor sekulan sobera gaizkiaren kontra izanen». Garbitu zituen sorginetan, denak ez zirela hobendun zioteneri: «Zer erran nahi du, diote ihardesten, erre dituztenetan, hogoïtarik biga balin baziren ere bakarrik debruari salduak? Hala, Jainkoak ez ote ditu bereak ezagutuko eta berexiko?» Birikarik gabeko gizona; espantularia, tupin aire puska batekin, horra zer izan den de Lancre.

## DE LANCRE-N SARRASKIA

Batetik edozoin lekukok norbeiten salatzea aski, haren hilarazteko bertzetik salatari herratsu edo ahul haintz izaki, de Lancre-k bazka hauta

zuen segartzatzeko. Zer izatu diren haren harat-hunatak, xuxen ez dakigu. Bainan iduri luke itsas hegiko Lapurtarreri gehiago jazarri zela, lur barne-takoeri baino. Ez da ere harritzeko, ezen, hor lan errexagoa zuten tribu-nalak, itsas hegiko gizoneria Ternurat gana zenaz geroz arrantzarat, zombait hilabete hartan. Bertzalde, Kazkarotek Eskualdunekin, Ziburuk Donibanekin zituzten kasailez orroituz, nik uste ez deus bat aski zutela itsasturien emaztek, elkarri sorginka eta debruka aritzeko, bereziki egun-dainotik famatuak izan dituzten moko-zintzurrekin.

\* \* \*

Agorrilaren lehenean, Urruñan dugu tribunala. Eskuararen erdararat bihurtzeko, apez dohakabe bat hartua bazuen de Lancre-k. Urruñan bi emazteki zituzten partida: Nekato eta Marissans de Tartas. Lehenik, Marie de Gastagnalde, 15 urteko neska bat mintzatu zen, erranez, lo zagolarik, aintzineko gauean, Sandoteguy, 20 urteko bere lagun batekin, Nekatok ereman zuela Hendaïarat, Lakua deitu lekurat eta han zanpatu zuela. Nekatok hori ez zitakela ihardetsi zion, ezen, bai berak, bai Gastagnade-k gakozen preso iragan zuten aintzineko gaua.

Bainan orduan bertze bi lekuko agertu ziren Nekatoren kontra, bi mutiko, 15na urtekoak: Kristobal de Garralde eta Aspilconette. Gauaz elkarrekin lo egina baitzuten, tira asti izatua zuten nola solasta elkar aditzeko. Beraz Aspilconette-k aitortu zuten, Hondarrabian bizi zen Urruñako errientak, gauaz debru bestarat gan-arazirik, han ikusi zuela Nekato, Gastagnalde-n jotzen. Cristobal berritz, Marissans de Tartasek airetan eremanik debru bestarat, Aspilconette-k egia ziola goraki mintzatu zen.

Marissans de Tartas-en izena aipatzearekin, bortz haur tipi xutitu ziren, ziotelarik sorgintza horrek Larrun kaskorat bizkarrean garraiatu zituela gauaz eta han odolerraino panpatu, errientak ekarririk seigarren haur batekin. De Lancre-k haurrak mirikuaz biluzarazi zituen, ikusteko ean joak izatu zirelako seinalerik bazuten. Bainan, mirikuak deus ez baitzioten atzemaiten, haurrek ailegatu zuten, Marissans de Tartas-ek halako urin batez gantzuturik, uspel guziak gorde zitzaizkotela. Hortan, haurren amak hasi ziren oihuka eta nigarrez, de Lancre-i galdetzen ziotelarik urrikal zadien hetaz. De Lancre-k berehala bere bihotzaren onezia erakutsi zioten, Marissans de Tartas erretzerat kondenatuz.

Bere aldetik Nekatok onez onean denak ukatzen baitzuten, azkenean tzarrean hartu zuten tribunaleko jaunek. Oinazeri esker edozoin gezur aitoren baititake, bereziki emazte bati, erran arazi zioten beraz



Nekatori, Gastagnalde eho zuela, ez ziolakotz pot bat zaindu nahi. Hortan gure sorgintsak, Marissans de Tartasen gaztigu bera ukan zuen.

Ahatik hil aintzinean Nekatok bere etsaiak belztu zituen, bereziki Estebe Detsail Hendaiarra, finkatuz, hunek, debru bestan, makil ukaldika bizkarra berotu ziola. Horra beraz Detsail preso. Nekatoren alde agertu zen Jeannette de Belloc, Atsoa deitzen zuten, 24 urtetako neskatx buru xoro bat. Hunek bere istorioa kondatu zioten jujeri. Oilarxahar emaztearekin gan zen lehen aldikotz debru bestarat eta gero berritz, Adamzehoreneko Marie Martinekin. Han, Jean de Harrosteguy Zubernuko apez baten izeba baitzen, apez harek zuen Atsoa, 1609ko otsailean, sorginen aztaparretarik atera. Debru bestan Atsoak ikusia zuen Detsail eta harekin bertze bi Hendaiar: Angusardo eta Gastellore.

Detsailek ukatzen baitzuen beti, azkenean tribunaleko jaunetarik bat, Laurent Moisset, xutitu zen eta gezurretik egia aitor-arazi beharrez, huna nola zen mintzatu. Piaietan ibilki zelarik itsas hegian, bi Hendaiar neskatxekin buruz buru egin omen zuen bezperan Neskatil heiek erran omen zioten gauaz entzun zituztela Detsail eta Nekato kasailan ari zirelako oihuak. Laurent Moisseten lekukotasuna tira baitzen, deus bertze xehetasunik gabe, de Lancre-k Detsail erretzerat kondenatu zuen. Debru bestan ibili zirelakotz, Detsailen gaztigu beraz jo zituen de Lancre-k: hunen alaba, bi emazteki (Neskabeltza Hendaiakoa eta Martibelsarena), Ansuperomin, Ziburuko soinulari itsu bat, Petry d'Aguerre, 73 urteko gizon xahar bat, bere familia guziarekin, Catherine de Molères, behialako kalonjerari zorzea bota ziona, Urruñako Johannisseguyren neskato, eta bertze frango.

Marie d'Aspilconetta Hendaiarrari, zuela 14 urte, haurra zelarik, burua nahasi zitzaion. Sorgintzat ekarria, huna zer kondatu zioten jujeri: behin omen, Larrun kaskoan zelarik, debru bestan, bi atso sorgintsek egin zuten parioa, zoinek jautzi urrunago. Domingina Maleterra izan zen irabazlea, Hendaiako itsas ondoraino ailegatu baitzen, bertzea Hendaiako etxe baten ondoan, eroria utzirik. Dena den, hor ere de Lancre-k bazuen nor erre.

Ziburuko neskatxa batek, Jeannette Dabadie-k, jende parrasta bat zikindu zuen, bereziki Gratiane, Donibaneko sorgintsa zelako bat eta Xantakorena, saratar emazte bat. Hau omen, irin batekin, sorro bateko bazkaren ihar-arazten aritua zen.

Hendaiar, Urruñan, Ziburun, Donibanen bertze sorgin frango erre bide zituen de Lancre-k, ezen, berak diona, debrua kexatu zen azkenean eta trufaz, zeru-lurren nausia, «Janicob» bertzerik ez zuen deitzen, bere

sorginen ahotik. Horra beraz «Jainko» hitza, gure kaskoinak nola ederki erdararat bihurtu zaukun.

Buruilaren hogoia aldean, tribunala Senperen dugu. De Lancre-k, berari arras ongi zohakon izeneko ostatu bat hautatua zuen egon tokitzat: Barbarenenia. Ez dakit bulunba aire bat badutelako errankizuna, nondik heldu zaioten Senpertarrerri. Beti, orai duela hiru mende, hango sorginek bezenbat antzekin, nehongoek ez zuten beren burua debekatu. Beha-zue bada: bi 18na urteko neskatxa ziren, Senperen, sorgintzat ekarriak Marguerite eta de Lisalde. Lehenik, tipi tipi jarri ziren jujearen aintzinean. Ez zutela deus hobenik zioten. Alabainan, goseak hilak, gabezia gorrian, eske ibilki baitziren, atso zahar batek ogi puska bat emanik, hura jan zuten. Dohakabez, ogi puska hartan, debrua gordea zagon, eta geroztik, berek nahi edo ez nahi, Satanen peko bizitu behar zitzaizoten. Espantularia zela de Lancre idatzi baitugu, gure neskatxak ederki de Lancre-n alderdi mainguz ohartu ziren eta erran zuten: «Debrua zure kontra erotua baitago, gogoan hartu du, duela zombait egun hatsaz behar zaituela gabetu. Beraz etorri da, gauaz, Barbareneneerat, Amoreta eta Sansinena andere sorgintsekin, bainan zalaparta guziengatik, bere lan tzarra ez du bururatu, Jainkoarengatik zure ukitzeko baimena ez baitu ardietsi». Kondatu zuten ere gure neskatxek, debrua hala hala debaldetan gan zela, Senpere jauregi urkatzerat, hiru atsoren laguntzarekin (Arrosteguy, Sansinena eta Lauren-sena).

De Lancre sekulan baino gehiago bere buruaz hanpatu zen «Datorzila ifernuko debrua oro, zioten deneri; ez naute den gutienik kexatzen. Ala zer uste dute, de Lancre gizon tonto hetarik dela? Datorzila, ukanez dute biper eta gatz!»

Marguerite-ek eta de Lisalde-k, beren etsai bat, Jeannette de Biscar maingua, Satanen bizkarrean, debru bestarat gaten zela, jujeri salatu zioten. Cathalin de Hilson eta Joannes Ditchinique harekin Barbarenenian sartu zela baitzion, de Lancre-n garbitzeko, Ditchinique-k aitortu zuen, bainan tink atxikiz, Barbarenena beherian egotu zela, de Lancre-n gelaraino upatu gabe. Nor izan zen gaztigatua saltsa hortan, xuxen ez dakigu, bainan gorago argitaratu ditugun legeen arabera, erreki ederrak egin bide zituen tribunalak Senperen ere.

\* \* \*

Sorginak nola hiltzen zituzten jakin nahiak direnentzat, huna zenbeit xehetasun. Arratsaldeko biak aldean, soldadoak sorginen bilarat gaten



ziren presondegirat. Hauk karro batean ezartzen zituzten oinhutsik eta gurutze batekin, apezik gabe. Orduan elizako ezkilak brandan hasten ziren. Karroa hiltzeko lekuari buruz abiatzen zen, zaldizko eta oinezko soldadoez inguratua. Jende guziek ikusteko gisan, urka-haga taulazko altxadura baten gainean zuten eraikitzen. Urruntxago, egur meta bat gaitza, gorputzen erretzeko, suaren beha zagon.

Taulazko altxaduraren gainerat, tribunaleko jaunetarik bat izatzen zen. Atabalaz jendea ixil-arazirik, goraki irakurtzen zituen sorginen izenak, bakotxarentzat erranez zertako kondenatua izatu zen. Irakurtze horren ondotik, galdetzen zioten karrokoeri, ean bazuten bertze deus argitasunik emaiteko. Nola sorgin hetarik hainitzek baitzituzten auzoak edo lagunak, zuzen kontra tribunalean zikinduak, orduan aitortzen zuten gezurrez mintzatu zirela. Sorginek zikindurikako persunen ahaideak eta burasoak han izaiten ziren, hiltzerat zoazineri otoizka, edo berdin, mehatxuka eta oihuka, belztu zituzten jendeak xuri zitzaten, han, denen aintzinean. Azken orenean, Marie Dindarte, 17 urteko neskatxa saratar batek aitortu zuen, berak amesturikako tiroak ziozkala de Lancre-i sakatu, salatu ziolarik Satani hau eremaiten aritzen zela eta herritar emazte batzu (izendatu zituen nor) debru bestan ibiltzen zirela. Hala hala, Marie Bonne, donibandar buhamesa bat, ez zen bururaino ele beretan tematu, bere gezurrez dohakabe bat baino gehiago hil-arazi ondoan. Horiek hola, sorginen gorputzak oraino sutan zagozilarik, urka-egun aratsetan, behiaren irri eta dorpe ixurtzen zituztela Lapurdiko bakarren etxetan.

## ITSASTURIEN SAMURGOA

Behialako ardieri, zakurra galdetu-eta, otsoa baitzitzaioten etorri, gauza bera zen gertatu Lapurtarrentzat. Hauk, de Lancre jin aintzinean bai bai zioten; ondotik egin zuten ai ai. Hainitz ihesi mugaz gaindi gan zela erran baitugu, hautarik zombait Ternurat untziz abiatu ziren, lekuko berrien itsasturieri eremaiteko. Ezin sinetsia da, zer xixtuan jarri ziren arrantzariak ikasi zituztelarik hemengo harat-hunatak. «Zer, zioten elkarri! Ez dakiagu nondik agerturikako kaskoin bat, gure herrian nausi utziko diagu? Holakorik ez! Goazen, mutilak, goazen gibelarar. Gure haurrak, emazteak, gure beha zagotzik. Beharbada ez ditiagu bizirik atzemanen ere. Utz ditzagun gure irabazpideak eta goazen jendeen salbatzerat. Bizia

dirua baino lehenago duk. Ha! De Lancre ustela! Eror dadiela gure azta-parretarat!»

Haizeak alde suertaturik bide guzian, gure itsasturirik, nehork uste ez zuelarik ohi zuten baino bi hilabete lehenago, ttanpean Donibanen eta Ziburun sartu ziren. Sarraski gaitzean aitua baitzen de Lancre, arrantzari gehienek beren familiak dolutan kausitu zituzten. Hortan erotu ziren. Zuzenki, hekien etorriadako aratsaldean, sorgin erretze bat egitekoa baitzuten Donibanen, bortz edo sei milek elkar aditu zuten, inarros aldi bat ona behar ziotela eman de Lancre-i eta haren kidekoeri.

Aratsaldean sorginen karroa, presondegitik urka-tokiri buruz abiatu zelarik, arrantzariak, beren puñal kanibetak eskuan, oldartu ziren karroaren eta haren zaintzaleen kontra. Orduan izigarriko nahaskeriak han ziren gertatu. Soldadoek berenak eta asto beltxarenak ikusi zituzten, hoinbertze zalaparten erdian. Nola Marie Bonne jada aipatu dugun buhamesa, erretzerat baitzeramaten, huni donibandar emazteak itsuski jazarri zitzaizkion. Gezurrak baitzituen jendeak tribunalean belztuak, oihu paturiaka, ezkilin ziztakoka eta muñotik tiraka, aitor-arazi zioten, herraz, zuzen kontra mintzatu zela. Tribunaleko jaunak, itsasturien larderiaren aintzinean, pareta bezala zurituak zauden eta doidoia zuten beren larrua salbatu, lausengu eta agintza eder batzueri esker. Egun hartan oraino sorginak erre zituzten, bainan azken aldikotz edo halatsu, ezen arrantzariak legea egin zuten eta huna zer lege. Hanbat gaxto sorgin erretzetan norbeitek sudurra den gutienik sartzen badu, kridari edo urkari gisa, edo bertze zerbeit aitzakiz. Holako gizona, bera dute itsasturiek kixkailduko.

Ez zen goizegi hola arrantzariak mintzatu baitziren. Sei ehun arima bazituen jada de Lancre-k lurperat egorriak, berak espantuz dioen bezala. Ahatik hau zait bitxi: Donibaneko nahasmendua gertatu bazen gertatu, sorginak arras gutitu ziren. Tribunalak presondegiak hustu zituen eta handik goiti, ixilka bezala eta halako ikara batekin bakarrik, zituzten jujek, hobendunak kondenatzen. Lehengo xaharrek ongi hale arrazoin zuten, ziotelarik: beldurra dela zuhurtziaren hastapena.

## APEZERI AIHER

De Lancre-k, etorri zeneko, leku hautako apezzeria begitan hartu zuen. Alabainan, haren arabera, apez on izaiteko, behar zuen gizonak «nor naiz ni» aire bat. Hemengo apezak aldiz xeheak eta jendekariak bai-



tziren, trasteak eta zarpailak iduritu zitzaizkon. Ez zezaken ereman apezzen pilotan ikustea, edo bestari beha edo ostatutan sartzen, orduan ohi zen bezala. Bertzalde harritu zen ohartu zelarik, gure elizak, emazte mutxurdin edo alarguntsa zahar batzuek zituztela garbitzen eta apaintzen. Eskual Herritik kanpo gizonak zuten lan hori egiten. De Lancre tipulak, halako duda-muda bat bere baitan bildu zuen, elizako emazte heien eta apezzen arteko atxikimenduak garbiak ote ziren bederen. Geroztik, tribunalerat deitu sorginak hasi zirelatik apezzen belzten, hauk gehienek debru bestan ibiltzen zirelakoan, gezur azia ez zitaken lur hobearat eror. Horra nola de Lancre-k kaskoan hartu zuen, sorginkeriaaren erroak apezzen baitan zirela eta hauk suntsitu gabe deus onik ez zezakela burura. Beraz apezzen itzalpean ezartzen lotu zen. Ahatik, hainitz mugaz gaindi ihesi gan zitzaizkon.

Nor izan ziren hunkiak, xuxen ez dakigu. Sorgintsa bat mintzatu zen Hirigoien, Pausuko bikarioaren kontra, erranez hau ikusi zuela debru bestan, dantzari, Marie de Hassy eta Salbonhouria alarguntsarekin. Senpereko apez bat ere zikindu zuten, etxe batean, Jainkoaz trufatzeko, debru meza emaiten aitua zelakoan. Halaber, Arancette, Hendaiaiko bikarioa, sorgin saltsan sartua izan zen. Bainan horiek baino gehiago merezi dute aipatuak izaita hiru apezek. Huna heien izenak: d'Arguibel, Migalena eta Bocal.

D'Arguibel, Azkaingo erretora zen. Jadanik 80 urtetan iragana, zentzua pixka bat nahasten hasia zitzaion. Bere buruarekin noiznahi solasean zagon eta haren mintza, kurri-manerak bitziak ziren. Sorgintzat ekarria, de Lancre-k haren etxea miarazi zuen eta huna zer zuten atzeman. Egurrezko gurutze hautsi bat, gaineko adarraz gabetua. Bazen aski. Gurutze bat hiru adarrekin? Eta non zen laugarrena? Erretor sorginak trufaz moztua zuela, dudarik nehorik ez zezaken izan, de Lancre-n arabera. Horra zertako surat zuten kondenatu d'Arguibel.

De Lancre-k, erregearen dretxo-zalea zenaz geroz, nehoi bere egin-kizunen berri eman gabe, d'Arguibel hil-araz zezaken. Ahatik, nahi baitzuen, ez bakarrik erregearen bainan oraino Elizaren esku-makil agertu, Deschaux, Baionako apezpikuari galdetu zion, Azkaingo erretorari bere apeztasuneko ohorea gal-araz zezon, Elizak orduan, Jainkoa ukatzen zuten apezzen gainean egiten zituen zeremoni berez. Deschaux apezpikua, Baigorri jauregitarratarik zen sortzez. Kartsua, argitua izanagatik, bere artaldeaz arta guti zaukan eta Baionan baino egun gehiago iragaiten zituen Parisko aldeetan. Beraz de Lancren galdea zertaz zen sobera bar-

natu gabe, bere amen egorri zion, Akizeko apezpikua otoiztuz Baionarat etor zadien, berak astirik ez zuelakoan.

Egiazki zeremoni hitsak ziren d'Arguibelen gainean egin zituztenak, Sant-Izpiritako elizan. Gaxo apezza, meza erraiteko apainduretan, eliza erdian xutik ezarri zuten eta han jauntzi guziak kendu ziozkaten banazka. Biluz-ahala, apezpikuaren ahotik ateratzen ziren hitz hauk: «Ez zare hola-ko jauntzien ekartzeko gai, zikindu dituztunaz geroz, zure burua debruari salduz». Azkenekotz, sotana gain behera axturreztatuturik, zaku tzar bat eman zioten, haren orde, tapaki gisa. Lehenago burua harrotzen hasia baitzuen d'Arguibelek, hortan arras nahasi zen. Dohakabea, ezkilaren brandan urka-tokiari buruz ereman zuten. Haren gorputza Azkaingo plazan izan zen.

Migalena (71 urte) eta Bocal (27 urte), Ziburuko erretor eta bikario ziren. Hauk Jeannette Dabadie sorgintsak belztu zituen, finkatuz goraki, debru bestan ibiltzen zirela. Bocalentzat bereziki, jendea bortitz agertu zen. Alabainan, haren familiako guziek, sorgin zirelako fama aspaldi hartan bazuten. Deschaux apezpikuak jakindu zuelarik bertze bi apez auzitan zirela, kexatu zen eta bere ondoko lehena egorri zuen tribunaleko harat-hunaten zeletatzerat. Ziburuko erretor-bikarioak bain ziren gogoe-tatuak, non aldi bat ez baitzuten ahorik ideki, galdetu xehetasuneri ihar-dokitzeko. Zirikatzaile, de Lancre-k enganaturikako apez ez deus bat zuten. Ez baitzezaken hetarik fitsik atera, azkenean gure legezaleak, d'Arguibelen gaztigu beraz jo zituen, «ikustez» hobendun zirelakoan.

Baionako apezpikuak nahiko zituen ongixko halere salbatu, bainan deus ez zezaken. Oraiko aldian, berari zitzaion tokatu jada aipatu ditugun zeremoni hitsen egitea. Ahatik, baitziren oraino bortz apez preso, hek bederen de Lancre-n aztaparretik aterako zituela, kaskoan hartu zuen. Hortako, segidan bi gutun, bat erregeari eta bertzea Bordeleko lege-gizoneri, egorri ziozkaten. Gutun hetan galdetzen zioten otoi tribunala leku hautarik ken zezaten.

Denbora berean, de Lancre ez zen lo egotekotan. Buruilaren ondarean baitziren Donibaneke nahaskeriak gertatu, geroztik Baiona zokoan kokatu zen. Alabainan Lapurtarrak kilikegi ziren eta heien artean ez zitaken bizi irriskurik gabe. Beraz, Baionan zazpi ahalak egin zituen preso ziren bortz apezzen kondenatzeko. Hauk nor zitazken ez dezakegu erran. Iduri luke horietarik bat, François de Bidegaray, Ziburu Bordagaineko apezza zela eta bertze bat, Arancette, Hendaiaiko bikarioa, bainan deus segurtamenik ez dezakegu eman. Seigarren bat kaiolatik ihesi gan zen.





Baionako apezpikuak zalaparta gaitzak ibili zituen bartz apezzen salbatzeko. De Lancre-k, Bocal eta Migalena hil-eta, urka tresnak, katedrale aintzinean utz-araziak baitzituen, hetaz laster berritz behartuko zirelakoan, apezpikuak tresna hek handik eraman zetzan, manatu zion. Bera agertu zen auzitarat, apezzen kontrako lekukoen entzuteko. Hautarik suharrena, d'Aspilconette neskatxa buru-xorua zen, behialako Larrungo pario irriegangariaren ikuslea. De Lancre, apezak surat botatzeko solasetan hasten zen aldi guziz hauk aitzaki zerbeit atzemaiten zuten auzien luzarazteko. Batean Akizeko lege-zale haundiagoaren aldetasuna eskatzen zuten, bertzean Saint-Sever-ekoarena. Apezpikuaz, azpiz akulatuak ziren.

Azkenenan Leporaino ase baitzen de Lancre, egun batez erretzerat kondenuatu zituen. Bainan ordu berean Bordenetik etorri zitzaion gutun bat, huna zertsuko berriekin. «Jauna, ikasi dugu sail ederrean aritu zarela Lapurdin. Langile onak pausa merezi baitu, gutun hau hartu orduko, zure lana utziko duzu den bezala, gehiago pikorik tira gabe eta ahal bezen laster, itzuliko zare Bordenelarat. Ez adiorik». Apezpikuak partida irabazia zuen. Apezak salbo ziren. De Lancre karratxo gorrian Deschaux-en kontra, hazilaren lehenean, betikotz leku hautarik urrundu zen, segur ez baitzen goizegi. Ahatik, gan aintzin, itzalpeko bartz apezak ez zituen libro utzi, bainan hetaz erregeari idatzi zion. Apezpikuak, presondegi zaintza-leak enganatu ondoan, apezkeri ihes egin-arazi zioten Espainirar.

Gatua gan-eta, saguak zalu agertzen baitire, hiru apez iheslari mugaz hunaindirat goixko aire itzuli ziren. Senpere jauregi, de Lancre-n gizonak, begiak erne baitzagozkan, Donibanen preso altxarazi zituen. Bainan ez zuten ondorio gaxtorik izatu. Bordenelarat igorriak, nehor belztailearik gabe, han libratu zituzten.

## ONDO-SOLAS

Sei ehun erretze, hiru hilabetez, ikaragarri ere bada. Halere, erran ditake, de Lancre-k pitsik ez zuela bururatu. Hura gatean, etortzean bezain sineskor gelditu ziren Lapurtarrak. Bertzalde, hebainduak izanagatik, egun batetik bertzerat ez baitzezaketan ahantz, bereziki hunkituak izatu ziren familiek, nor zituzten zikintzaileak, hortarik, saltsa frango, mendekio frango izan zen. 1612an, Donibane eta Ziburu elkarri gerla emaiterat zoazin, ez balitu Baionako aintzindariak hautsi-mautsi batez baketu. Azkenean, Marie de Médicis, errege berriaren aman, gogoratu

zitzaion Eskualdunak tzareriak baino ez-titasunaz aiseago bilduko zituela eta leku hautarat huiatu zituen bi jesuita, predikari gaitzak, kartsu bezain goxoak. Hetarik bat, aita Soccarro, garaztarra zen. Hastetik, Lapurtarrek ez zituzten sobera begi onez ikusi predikari horiek, ezen de Lancre-n zafraldiaz oraino ikaratuak zagozin. Bainan, ohartu zirelarik, armatzat, beren gurutzefikak zituztela bakarrik, hetan fidatu ziren. Hautarik ikasi zuten, debrua jazartzen bada ere arteka gizoneri, haren indarrek izan bat badutela eta apezek bentzu dezaketela. Geroztik, noiz nahi, egiazko edo ametsetako sorginez gudukatuak zirelakoan, apezzen atzemaiterat gaten ziren eta haukien otoitzeri esker, gogo-bihotzak arras deskantsatzen zaizkoten. Horra nola, agian betikotz, Lapurditik haizatua izan zen sorgin hazi higuigarria.

*(Gure Herria, 1936-1937, 398-407, 114-126)*



## ALLANDE ETA HIRU «ASTRONOMUAK»

Allande... gaizo Allande! Orotan ezagutua zen Allande ikazkina. Halako gizon txar bat, erdi konkorra, zango batetik maingu, ahal bezalako galtzak soinean, beti atorra has eta galtzerdirik gabe.

Asto bat bazuen beltza, asto harekin karroa eta karro hartan ikatza garraiatzen zuen hirirat. Goiz guziz, eguerdi inguru artio, haren boz meharra ez zen ixiltzen karrketan: «Ikatza merke! Merke ikatza!»

Haurrek batzuetan trufatzen zuten, edo harek bezalako oihua eginez edo urrundik haren astoa manatur. Jende haundiek ere emaiten ziozkaten arteka kitzika-aldi batzu: «Allande, zure asto ihartu horrek bazter guziak usaintzen ditu». Eta Allandek aire berean: «Behazu, anderea, aski duzu ahotik hats hartzea». «Alo, ba. Allande, zuten erasiatzen hiri-zainek, noiz ikasiko diozu zure astoari bidearen eskuinetik ibiltzen?». Baina erreferan han zen laster: «Egungoan barka ezozue, jaunak... Bihartik eskolarat igorriko du».

Hola zen Allande, deusez ez nehorrez axolarik gabe, dena ditxo, jukutria eta bitzikeria, bereziki zorta bat zintzurra beheiti igorri ondoan, orotaz hartua eta maitatua.

Ahatik, denbora hetan, jendeak nahiago baitzuen ikatzarekin baino egur idorrarekin berotu, buru-hauste frango bazabilkan bere ikatza ezin salduz. Etxerat itzultzean, ardurenik, irabazi diruek arrabots guti zioten egiten bere galtza txar petazatuen sakeletan. Beharrik ez zuen haurrik! Andre Katixarekin, bi biak bizi ziren ttattola pobre batean.

Ahatik Allanderi ez zitzaion galdetu behar ean non bizi zen. Laster ihardetsiren zautzun: «Jauregi eder batean».

Eta futxo, ez zen baitezpada gezurrez mintzo. Jauregi bat bazuen, baina...auzoan. Halako jauregi kankar bat, dena xirez estalia, lehiotzat zilo txar batzu han hemenka, iduri Moisen denborakoa.

Jauregi hartan egoiten ziren hiru anaia, hiru mutil gazte. Nor ziren, zer ziren mutil heiek, nehork ez zakien xuxen herrian. Beti hiruak elkarrekin zabiltzan, berdin berdina beltzez jauntziak eta kasik neherekin solastatu gabe.

Gaztetasan guzia ikasten iragana zutelako fama zuten, han nonbeit Parisko aldeetan. Halako izen bitzi bat erraiten zioten, heien jakitate suer-

tiari: «astronomia» edo «astonomia» edo... nik ez dakit zer... Dena den, gauaz eta egunaz zeruari beha zagozin halako tresna luze batzuekin.

Allanderi norbeitek salatua zion mutil hek jakiten zutela aintzinetik zer aro egin behar duen. Baina gure ikazkinak ez zuen heien trebentzian sineste pikorrik. Eta huna zertako:

Uda goiz batez, ari zen Allande bere buruarekin solasean «To, egun kalernatu behar dik. Astoa minbera diat, ileak harro ditik eta beharriak xut!»

Hainbertzenarekin horra non ikusten dituen jauregiko hiru anaiak bidean heldu. Behingoa heieri solas emaiterat ausartatzen da eta galde-tzen diote: «Errazue, jaunak, zer aro egin behar du?» Hek aldiz: «Zortzi egunez idorte... Ez duzu ikusten zeruaren urdin hori?»... Ba, baina, aratsaldekotz pesiak ari baitziren ahatik!

Geroztik Allandek, mutil heientzat ez zuen bertze trufarik. Jauregi-ko «astomamuak» deitzen zituen. Pitsik ez zirela hek... bere astoa baino gutiago zakitela... haren katixima entzutekoa zen jauregitarren gainean.

Ba eta, nahi baduzue egia jakin, Allanderen ahopaldiak ez ziren gezurrezkoak. Segurki zozoak ziren jauregiko hiru mutil hek. Zozoa baino zozoagoak. Hainitz urtez eskolan ibili ondoan, kasik deusere ikasi gabe, azkenean, ofizio bat hartu behar-eta, zeruari beha egoitekoa zuten hautatu. Eta huna zertako Ilargiak, gau batzuez, urrea bezala dirdiratzen baitu, hiru mutil buru eskas hek amestu zuten, ilargia urre meta bat zela dilindan, han nonbeit zeru gainean. Geroztik urre hura zer moldez bere-gana zezaketen, ezin pentsatuz ari ziren.

Aita zentzudunagoa izana zuten. Seme hek hain herabe ikusteak emaiten zioten bihotz minekin, berrikitan hila zen. Huna zer izan ziren haren azken hitzak bere semeeri: «Mutikoak, mutikoak, aski baduzue zeruari beha egonik! Ez zaituzte horrek aseko. Joka zaitze bederen azen-da hazten, bertzenaz erreka gaxtoak joko zauzte laster». Aholku zuhurrik horiek... Zuhurregiak, mutil bulunba heiek entzuteko.

\* \* \*

Egun batez beraz, ari zen Allande bere andrearentzat erasian. Ez zen arrazoinik gabe. Alabainan, gizagaizoak, josiaren eskasiaz, galtzen sakelak zilo zituen eta sakelako diru xehe guziak lurrerat eroriak zitzaizkon... eta ez lur garbirat, baina, hala beharra, astoaren ongarrirat. Han ari zen beraz Allande dirua bil eta Katixari mokoka.



Hainbertzenarekin, huna non ondotik iragaiten zaizkon jauregiko hiru zozoak. Behin ere ez-eta, oraikoan, hiruak gelditzen dire ttanpean, ikazkinaren aldean. Han beti sos biltzen. Hek berritz Allanderi beha, harrituak, ahoak zabalik, konkortuak hurbilagotik ikusteko ongarr hartan zer ari zen. Azkenean zozo hetarik batek emaiten dio solas: «Zer egiten duzu hor?» Allandek aldiz: «Lan urrea egiten, jaunak... Urre biltzeko lana», «Bainan, nondik heldu zaizkitzu diru horiek guziak?». «Astoarenganik». «Astoarenganik?». «Bai, jaunak... Zer uste duzue, ene astoa iduri duen bezain ez deusa dela? Ez, ez. Urreak balio ditu ene astoak. Hori ez baginu ez ginazke biziko... Horrek gaitu-eta hazten!»

Hiru zozoak han gelditu ziren, ez jakin zer pentsa, elkarri beha. Azkenean batek erran zion bertzeari: «Bahakien hik,azienda urre egileak bazirela?» Bertzea luze egon zen, begiak urrun galduak, han nonbeit laño-petan. Noizpeit ihardetsi zuen: «Ez, ez nakikan. Bainan, ongi gogoratu-eta, ez nauk harritzen gauza horren hola izaitez... Alabainan, ilargiaren axala urre balin baduk, lurrarena ere hala izan zukek. Eta astoa, lurraren axaletik bizi denaz geroz, horren tripan urrearen aurkitzea, ez diat hain bitzi atzemaiten».

Hirugarren zozoa ere hitzketatu zen: «Oroitzen zaizte, gure aita zenak nola erran zauzkiagun hiltzean, aziendetan aberastuko ginela ilargi lanetan baino hobekiago? Ez zukan hura airerat mintzatzen den hetarik. Harek ba bide zakiken zerbeit... Ba, ba zaharrak arrazoina ziken... Aziendetan, aziendetan duk urrea, ez ilargian ez!»

Huntan hiru zozoak luzaz ixilik egon ziren, begiak lurrari, iduri burua asmuz pisutua. Azkenean bat ernatu zen eta halako irri zoro bat ezpainetan, anaiak ondorat deiturik, beharri zilorat, pitxi-pitxi, zerbeit salatu zioten. Bainan laster agertu zen zertaz zuten solasa. Astoa nahi zioten Allanderi erosi.

Hasi ziren beraz tratuan: «Allande, asto hori behar daukuzu saldu!» Ikazkinak aldiz: «Asto hau saldu!! Mila untz urretan ere doidoia eman nezake! Ez, ez, ez... hau erosiko duen diruduna ez dago sorturik». «Emanen 500 untz urre». «Ez eta ere...». «Emanen 700». «Zazpi ehun untz urre?..... Hemen kopeta zimurtzen du Allandek, halako samur aire batekin. Nor zen trufatzen? Hura hetaz edo hek hartaz? Asto ederrenak 50 untz urre ez balio-eta... zer ari ziren? Irrizko tratua egin nahiz? Hortako, mintzatu zitzaienten motz-motza: «Behazue hortik, jaunak! Ilargia esku-ratuko duzelarik, etorriko zaizte asto traturat. Beharbada orduan antolatu-tuko gare».

Bainan zozoek ez zuten irri-mirririk: «Mila untz urretan salduko zinukela, aipatu baituzu oxtian, zioten erran ikazkinari, horra mila untz urre». Huntan zakuxka bat urre bota zioten Allanderi eskuetarar, eta, astoa sokatik harturik, urrundu ziren. Allande, harritua, zorotua eta zuri-tua gelditu zen, hitz bat ere atera gabe.

\* \* \*

Huna orai gure hiru zozoak jauregirat itzuliak... Azienda baten eroste-eta ez baita aski, behar baita hura hazi, eta gure «astomamuek» ez baitzakiten demendren pitxik beharri luze baten mantenuaren gainean, hasi ziren liburuetan mia eta mia, astoak zer janez bizitzen diren jakiteko. Epe laburrez, zer nahi xehetasun ikasi zuten: astoek barne sanoa dutela. Oloa, zahia, ogia berdin jaten dituztela bai eta ere belar idorra eta perdea. Azkenean, zozo hetarik batek, liburu zahar batean, harrigarrizko xehetasun bat atzeman zuen eta anaieri gora gora irakurri zioten. Liburu harek zion aziendak, trefla berotutik jaten badute, hanpatzen direla.

Gauza hori entzutean, hiru zozoak zutitu ziren, lorietan: «Horra, zioten elkarri, horra gure astoak behar duen bazka: trefla berotua. Alabainan, tripa haundiago eta urre gehiago dikek barnean. Kanpoan hanpatua den sakelak, barnea jori».

Baietz eta baietz, ase zuten astoa, aipatu dugun bazkaz, lepo zintzur-reraino. Eta futxo, liburu zaharrak erran bezala hanpatzen. Hiru zozoak hari beha zagozin atseginez itoak: «Zer azienda ona, zioten! Nola baliatzen duen ahatik jaten duen hura! Eta laster!». Eta, astoari, muturra perezkatuz, eskutik zioten emaiten jaterat, haur bati bezala: «Alo, jan-azu, adixkide maitea! Jan ausarki!... Oraino bertze ahur bat... Hori azken trefla ahur bat! Hau bertzeak baino beroago da! Jan-azu bada!»

Bainan astoak bazuen askitsu iretsirik. Haunturarekin ezin hatsik hartuz ari zen. Azkenekotz bere burua bota zuen lurrerat. Zozoek pentsatu zuten, dudarik gabe, ongi ase ondoan, astoa orai lo egin nahia zela, eta hartarik urrundu ziren, ahal bezain arrabots gutirekin, haren ez atzarrazzteko.

Gaizo beharri luze! Tripa gero eta gehiago hanpatu zitzaion, eta ondarrerat, lehertu eta zapartatu zen.

Berritz itzuli zirelarik aziendarenganat, hiru gizonek astoa hila atzeman zuten. Bihotz fultsoak ikertu ziozkaten. Berdin zuen ez eginik ere ezen gorputza jada hoztua zen. Barnea ere miatu zioten bainan urre pikorrik aurkitu gabe. Huntan, hiru zozoak arrunt burutik nahasi ziren. Bat



hasi zen gora gora marrumaka, eta nigarrak nigarra deitzen baitu, bertze biak ere sail berari lotu ziren. Bihotz-erdiragarrizko intzirinak botatzen zituzten. Batek zion: «Ha, gure asto maite maitea, zer gertatu zauk bada?». Bertzeak errefera: «Gaizoa, hik ere tenorea izaki, tenore lazgarria!». Hirugarrenak, moda berriko hil-otoitzak atera zituen: «Anaiak, zuen erran buru-has xutiturik, anaiak, holako gertakari hitsaren ondotik, gauden minuta bat ixilik!»

Noizpeit bada lekuak hustu zituzten eta joan ziren Allanderengana, behar ziozkatela errenkurak egin erosi astoaren gainean: «Allande, zure astoa hil zauku». «Gaixoa, ez nintzen beldurrik gabe! Ezin laketuz segura?». «Ba... hil zauku eta zuk gezurra sakatu daukuzul». «Zer gezur?». «Zure astoak urreak balio zituela... Barnea ikertu diogu eta ez diogu deuserere atzeman». «Nere astoak ez urreak balio? Nahi duzue oraiko orenean ere bortz untz urre kentzen diozkatala nik hari?». «Nola ba hori?». «Nola hori? Aski duzue nik erranaren egitea. Arras gauza errexa izanen da». «Zer behar dugu ba egin?». «Segur ez duzuela gibel eginen?». «Ezetz, gizona, aginduz geroz». «Bon atozte enekin».

Allandek hartzen du ikazketako karroa eta badoatzi denak asto hila-ren ondorat: «Alo, diote manatzen Allandek bertzeeri, karga-azue asto hori karro huntan». Eta kargatu ondoan: «Orai, eman zaitze timuinean eta tira-azue karroa. Nik manatuko norat joan».

Agindua agindu baita, hiru «astronomuek» ez zuten ezetz erraiteko kopetarik izan. Timuinari lotu ziren beraz. Orduan, ikazkina izatu zen karroaren gainerat. Hola, bera gidari eta «astronomuak» mando, itzuli haundi bat egin zuten karririkaz karririka, jende guzia irriz ase baitzen.

Noizpeit Allandek karroa geldiarazi zuen larru-lantegi baten aintzian. Eta larrupintzaileen nausia deiturik, asto hilaren larrua, oraino haragitik berextekoa, bortz untz urretan, saldu zion. Eta segidan «astronomueri» ukan dirua bota zioten, larderiarekin erranez: «Horra nik astoari bortz untz urre kendu... Har zazue diru hori eta neri ez gehiago aipa ene astoak deus ez zuela balio!»

Zer den ahatik! Zentzugabea balin bada ere jaunxkil, hari beti nausi edozoin zentzudun, izanik ere ikazkin, galtza zikin.

*(Gure Herria, 1938, 209-215)*

## OKERRAREN OKERTZEAZ

*«Dire usia zaharrak:  
Ederrak edo okerrak.  
Segi ditzagun ederrak,  
Konda bakarrik okerrak!»*

Gure herriko okerra, nola okertua zitaken, nere gizon xaharrari ezin atera nion.

Nere xaharra, supazterrean zagon, onbor su bat noizean behinka zirikatuz, zigarro mutur hil bat ezpain zokoan.

Lehio bakarreko gizona urrikari nuen: «Non galdu ote du gizon horrek bertze lehioa? Edo, sortzez ote da hola?... Edo, gaizoa, gerlan da hola bilakatu!»

Ezpainak larrituz, espalda tankaz, ezetz eta ezetz zarion nere xaharrak.

Karatxo! Nik ez ote dut ba gizon hori mintzaraziko?

Betbetan orroitu nintzen, nere xaharra gerlan ibilia zela eta hainitz sofitrua, Verduneko gudukan.

«Zer da, gizagaizo hori, bertze hainbertze bezala, Verduneko erreze-latuatarik?»

Huntan, xaharra supiztu zautan, Verduneko gerlarien ohorea zikindu banu bezala:

«Ez, ez duk Verduneko erreketan okertua gizon hori bainan Anozteiko errekan!», zautan bizi-bizia ihardetsi.

Salbu nintzen... Solas iturria azkenean ideki baitzen. Dautzuet ahoa xabalik egon nintzaiola aditzale.

Bere zigarroa, tu zirrizta batekin, onbor suari bota zion, eta lotu zautan okerraren istorioa kondatzen.

«Ba... Mutil gazte zelarik, galdua dik okerrak bere begia... Eta, atzo balitz bezain ongi, orroit nauk, noiz eta nola.

Elgarrekin muntatu ginian balentria baten ondotik duk hortaratua.

Azkainen orduan, gazteak zerbeit bagintukan... Oraiko gazteak, pitsik ez dituk! Espantu hanitz ba, bainan obretan, debru pitsik!

Denbora hetan beraz, Donibaneko jandarmek, Mortzelaitar gazteak begietan gintiztekan.



Goiz batez, Erroteneko astoa, bi sokez tripa azpitik hartua, arbola baten puntan zintzilik atzeman zitekela eta, hura gure gain!

Gure gain ere, pilota plaza kaskoan arrimaturik atzeman zitiztekan Xobadin-baitako mahain bat eta lau kadira.

Astoa, ez zakiat nork hupatua zikan arbolerat, bainan plazako lanaren egile buru: Pepe Nanao zukan.

Pepe Nanao, gizon zango makur, tiki-tiki, enbalier hura, hortako on zela, nehor ez baitzukan dudatu ere.

Dena den, kaxketadunek gure gazte lagun, Zizari Mortzelaitarra, lan horietaz akusatu zitekan, preso altxatu, aitor-arazi nahiz zafratu, eta azkenean libratu, erranez gu denak abisa gintzan, ez baginen geldirik egoiten, bertze hainbertze bilduko ginuela.

Kaxketadun zitalak! Zer zitekan hola guri jazartzeko, jakin gabe ere nor zukan hobendun?

Erotu gintukan! «Gurekin taria nahi baditek izanen ditek! Irakutsiko ziotegu zer axola dugun heien mehatxu eta larderia!»

Sei Mortzelaitar gazte elgarretaratu gintukan, denak kontrabandako lagunak, eta, hilik ere, elgar galduko ez ginuenetarik Borkotx eta Zizari, Menttura, Okerra, Xubero eta ni. Deliberatu ginian jandarmeri behar giniotekela zortzi egunen kurriada bederen eman, zerbeit balentria larri, aipagarri muntatuz.

Larruntzolanen gaineko aldean, baituk giltzurdin harroka haundi bat, gogoan hartu ginian, behar gintuela, gau batez, harrokaren ondorat bildu, kartiereko gereta, ateka, zerrakura guziak, eta gainerat, etxe guzietako laneko tresnak... Guhaurenak lehenik, nehork ez zezan pentsa nor zituzkan balentrilariak.

Erran bezala, seiak bildu gintukan.

Mentturak pitzar bat izpiritu ekarri zian, nik ardi gasna zahar bat, eta Borkotxek ogi opil bat, indarren bixitzeko.

Hirunazka, bi multzotan partikaturik, multzo bakotxak non zer lan egin behar zian, elgar aditu genikan.

Hiru jokatuko gintukela Espartinbaitako eskualdeari, Martineneraino, eta bertze hiru, Olaberrietako eskualdeari.

«Lehenik puskak metatuko ditiagu bide hegietan, eta gero, etxetan harturik orga, arkeria, gurdi edo zaldi karro, hetan garraiatuko ditiagu hitzartu tokirat».

Baietz eta baietz, ados gan gintukan bakotxa gure lanerat.

Beharrik, zakurren beldurrik ez ginian. Guk ibiltzen ginikan kontrabandarekin, kartiereko zakurrek errotik ezagutzen gintiztekan. Ez zitekan

guretzat sekulan saingutzen, bainan hanbat gaxto gardarik agertzen bazen inguru hetan. Errepika osoan, heien pasaia urrunerat salatzen zitecian.

Halere ederki pekatu behar ginikan gau hartan.

Hastetik, gure harat-hunatetan, ongi atera gintukan. Larruntzolan mutil baitzukan Xubero, hari esker, etxe hortako pusken aldaira aise erreusitu ginian, bai eta Xarlexbaita eta Zelaikoena ere.

Bainan, Eskolakobordako ondoan hasi zaizkigukan desgraziak. Hango larrekia behera, hiruak, gereta bana bizkarrean, gaki baigintukan, ez zauzkiuk ba azpiko tarte bidetik bi garda ateratzen: «Halte!», eta «Halte!», oihuka.

Briu-brau, burua behera, gure geretak bota ginazkotekan, eta nik dau, lastersko tokiak hustu ginituela.

Geroxago berritz, Premun errotan galtzez gintukan. Premu errota-zainak, erralditako, sekulako astoak, hamabortz bat segurik, hazten zitian.

Astoteiko ixpila batean beiratzen baitzitikan laneko tresnak, ahal bezain poliki, astoen artetik, ixpilarat sartu nindukan, heien handik hartzeko.

Ba baina, ez zaizkitakan ba asto guziak ernatu eta orroaz lotu! Debruen fildak!

Premu senditu nian gelatik jausten... Arraxina argia eskuetan, etorri zuan astoteirat eta bere kabaleriaren lausengan luzaz han egon.

Anartean, han nindagokan ixpila hesiari josia, hila bezain geldi.

Uruski ez nindian ikusi, eta, handik urrundu zelarik, jakiten ahal duk ez nintzela ni ere han lokartu.

Ez handik eskuak hutsik urruntzeko, ote meta ondotik, lerak giniozkan airetan ereman Premuri.

Goiz alderat, ehun bat laneko tresna eta gereta segurik, baginitian metaturik, Larruntzolak giltzurdin harrokan.

Lanean lehertuak ginituan... Bainan halere, eta, argi zirrirtza izanagatik ere, kaskoan hartu ginian, seiak batean, azken garraio bat egin behar ginikela... Anozteia ginikan begietan.

Han bizi zukan Basurdia deitu gizon bortisko bat, eta, harekin, zenbait denbora lehentxago izana gindian eztabaida bat. Kontrabandako presa batez, haren sorroan baiginitian zenbeit pottoka sartuak, hek herriko mutilaz bahitu zauzkuian... Halere salbatu ginitian. Bainan, Basurdeari egitate horren kitantza zor giniokan.

Beraz, deliberatu ginian, seiak gan-eta, haren etxeari behar giniokela huts aldi on bat eman.

Harat-eta, lotu gintukan lanari, lehenik airetan eta ixilik, biderat garraiatuz gurdia, arkeria eta zaldi karroa.



Heien gainerat kargatu ginitian atzeman apailu eta puska guziak: are, bortz-hortza, marka, irauldeko apailu, sega, aintzur, haga, brozela sake-tsak, otasketako trebazak, uztarri, hede, ba funtsean... eskuperat etorri guziak.

Aldaira osoa han muntatu ginian, bideari lotu gintukan, biga gurdia-ekin, bertze biga, zaldi karroarekin, eta, aintzin aintzinean, Okerra eta ni, arkerarekin.

Arkerari, gibeletik, martinbulua arrimatua giniokan.

Abiatzen gaituk beraz bideari, bainan hara non, oiuhu paturria ikaragarri batzuek airea inarosten diteken: «Heup, heup, heup! Ohoin basa zikinak! Norat gaki ditutzue nere tresnak!!!»

Denek ezagutu ginian Basurdearen orroa.

Bainan, badakika zer egin zaukun Xuberok?... Egiaz errana duk ba: Xuberotarrek, zangoa bezain arin dutela burua!... Ehorrek juja zak ba!!! Ixil ixila egoteko orde, ez zikena Xuberok, bere boza altxatu! Boza altxatu, eta... xuberotarrez!

«Kasü, kasü! Basurdia dük heben!» Oraino beharrietan diat haren oihoa. Pentsa ba Basurdiak ez zian ezagutu nor zen! Xuberotar ergela!

Dena den, ez ginitian halere gure kargak eskuetarik utzi, bainan, mutur hauska, pusken erdiak tilisti-talasta bazterretarat berduratuz, seiak aintzinean eta Basurdea ondolik, patarra behera tira-ahala jokatu gintukan.

Eta, orduan nik izan nintian nahigabeak! Soineko boten lokarriak zartatu zaizkitaian, eta, oinetakoekin hasi lasterkada, ortutsik segitu nian.

Gehiago zena, karga nausitu zaitakan, eta, timuina han harat largaturik, doidoia kargapetik baztertu ninduan.

Gibleko kargek, abaila gorrian, nerea jo ziteken, eta han amildu hituen, gizon eta puska, patapunpaka, zafrada izigarri batean.

Halere sei gizonek, nolazpeit ihes egin ginian.

Zorigaitzez, gutarik bat, Okerra, begian kolpe bat harturik, atera zuan.

Etixerat sar-eta, igandea baitzukan, ongi garbiturik, bizarra eginik, gan gintukan denak goizeko mezarat.

Gure malobraren berria laster hedatu zukan herri guzian.

Herriko mutilak kridatu zian, bota pare bat bazela atzeman... Gal-tzailea agert zadien herriko etxerat. Pentsatzen ahal duk bota heien jaberik ez zela behin ere agertu.

Pilota partida bat egin-eta, itzuli gintuan nor gure etxerat... Kartiera guzia airean atzeman ginian.

Kaxketadunak etorri zituken, meza nausi ondoko.

Guhurre barne, hogoi bat itzain segurik bildu gintukan Larruntzo-lako harrokarat, puskaketarat... Guk, gureak, bertzek berenak baino aiseago berexi gintukan, gisa hartarat ezarriak baiginitian.

Denek bezala, gaitzeko erasiak atera ginitian holako joko basa muntatu zitekenen kontra.

Zizari, bertzeak baino harrokiago mintzatu zuan jandarme-ri: ean, berritz ere, hoben gabeek pekatuko zuten, egiazko hobendunentzat... Hek ziren baliosarekin, jende prestua ez zela biziki gerizatu... Eta, holako!

Basurdearen erranetik, kaxketadunek Xuberok deitu zitekan eta itsuski galdezkatu... Bainan, ez zioteian debru pitsik salatu.

Okerra aldiz, kontrabandakotik kolpatua balitz bezala, Urruñako mirikuaz ixilka artarazi ginian. Bainan, bere begi hura ez zitzaiokan behin ere oneratu, eta, emeki emeki, azkenean, bixta galdu zian.

Horra, gure herriko Okerra, nola okertua den.

Ez gintukan orduko gazteak, oraiko perttolietarik! Orduan ba, baginakikan jostatzen!»

«Hum!», nion ihardetsi, nere xaharrari!

«Zer, hum eta hum!... Hori hala duk!!! Orduan ba, baginakikela gazte abusatzen!»

«Baietz, gizona, baietz... Ba, baaa!»

*(Gure Herria, 1955, 51-56)*



## HUNTZAREN FALTAZ

«Aitatxi, nolaz ez zinuen frantsesa ikasi?»

Aitatxikengoitik hamar aldiz kondatua diote istorioa, bainan berdin du haurrek berriz entzun nahi diote.

Haur lotsagabeak! Han dabilta haren beso zangotan purtzupilka. Aitatxiren ingurua dute beren bil-tokia. Aitatxik diote katixima erakusten, baitaki oso-osoa gogoz... Harekin dituzte gaitzeko otoitz marmarizak erabiltzen.

Amak larderiitzen dituelarik, hura dute ihes-leku: «Haur horiek, nahi dutena egiten dute zurekin, galtzen dituzu».

Aitatxik ez du errepustarik emaiten. Ixil ixila goititzen ditu... Adimenduz amaren alde da, bainan bihotzez haurren... eta, bihotza urratzen zaio, adimendua fermutzen zaion baino gehiago... Paso, paso dario amaren inbidoeri.

Erasia zombaitengatik, laket baita hola familian denak elgarri-atxiak ikustea.

Dena den, aitatxik frantses mikorik ez daki... Oraiko egunean, murriz baita eskuara bakarrik jakitea...

Eskuaraz behar dugula mintzatu eskualdunek, hori ba! Bainan on da, behar orduetako, frantses, espanyol eta bertze edozoin mintzaira ikas ditzagun.

Aitatxik, frantsesa zertako ez dakien? Eskolan guti ibili delakotz... Eta, zertako da guti ibili eskolan? Aitamen faltaz ote? Ez, miletan ez! Bainan... Huntzaren faltaz! Huna istorioa, berak kondaturik:

«Bederatzi bat urte nintuen, eta eskolan nindabilan, adineko lagunekin. Lagunetan banintuen adixkideak, bainan biga baginen, beti elgarren fantesian ginabiltzanak. Auzo ginen, eta bertze hanitz bezela, gure hitz goitiez deitzen ginituzten. Hura zen Huntza eta ni Ttanko.

Xori kafiraka, pilotan, kaniketan, edozoin joko motetan, beti kasaila ginuen biek. Goiz hartan, pիրrinda pollit bat banuen muntatua, barrika uztai batetik. Eskolarat sartu aintzin, gorde-tokitik, Huntzak ez zautana ebatsi! Ebatsi eta hautsi... Jakin-azue xixtu onean nintzala harentzat.

Kolpeka taria egiteko astia, errientak ez zaukun utzi. Sartzeko tenorea zen, eta, eskuak garbiak ginituen erakutsi ondoan, lerroan eta ixilik, gure alkitarat joan ginen. Gure jar-tokiak ginituen: Huntza giblean, eta ni, haren aintzinean.

Gure errieta, gizon handi sekail bat zen, dena zain, mustatza luze mehar batez bisaia marratua, bortitza mixterioa.

Lotu zaukun bere eskola lanari, taula beltzaren aintzinean. Frantziako karta gure buruetarat sar-arazi nahiz, ari zen erran eta erran... Bainan, Huntza eta ni, ez ginen harekin, aparantziarik ere. Huntza gibeletik trufaz ari zitzaudan, mahain taula eskuz kisk eta kisk jotzen zuela, ukapetik erranez: Ttanko, Ttanko, Ttanko!

Ene aldetik, errefera emaiten nion: Huntza kuik! Huntza kuik! Errepikatuz...

Gu bien ixil-zalapatekin besterenak gainerat eskola barnean, hats gaxto baten ibilkada sendi zen.

Errieta bera zerbeitetaz ohartua bide zitaken; mustatza luzearen hegala bat daldaritzen zitzaion segurik... Hori baitzen guretzat, koska bultaren aintzin seinalea. Koska bultaren edo hobeki erraiteko, ero bultaren... Zeren samurtzen zelarik gure errieta, itsutzen eta sesuz gabetzen baitzaukun.

Holako eta halaka, Huntza, mahain azpitik, ostikoka lotu zautan... Errabian, debruak hartua, errientak behatzen ez zaukun batez, itzuli eta, Huntzari igorri nion, bekainaren gainerat, ukamilo kolpe alimale bat. Eta, bran, ene tokian geldi geldia, plantatu nintzan... Huntza, gaitzeko «ai» bat eginik nigar orroan hasi zen, eskola guzia airatzen zuela.

Errieta itzuli zitzaunkun, eta, ene bizian ez dut ahantziko, haren orduko begitarrea. Bi mustatz adarrak, bi beso bezala, goiti beheiti zabilzikion. Matel eta kopeta larrua zimurdikatuz, hortzak karraskan, begiak sutan, ikaragarriko behako bat bota zaukun.

Tenore hartan, nahiagoko nuen lurpean ene burua, ezenetz, nintzan tokian... Bizikartean alegia ez hobendun, ahal bezain sanfretazko kara baten hartzerat, entseatu nintzen. Bainan debaldetan, denek akusatzen baininduten. Eta, demendreneko xehetasunik galdatu edo emaiteko astirik utzi gabe, lehoin bat bezala, errientak gainerat jauzi egin zautan.

Hartu nintuen eneak eta asto beltzarenak. Burua, ahal bezenbat, besoez gerizatu nuen, bainan eskuz, zangoz zanpaka iletarik eta beharritik tiraka, umaldi bat itsusia eman zautan... Azkenean, lepo zokotik bar eta, herrestan ereman ninduen bere taula beltzaren ondorat, eta han egoiteko manatu, zutik, zango baten gainean, eta, bi besoak airetan.

Hura zen hura penitzentzia... Halere, nigar tuntik ez zautan jali... Kontent bainintzan hortaz bederen.

Nekagarri baita zango baten gainean egoitea, zer gisaz ene zortea arin nezaken gogoetan nindagolarik, ohartu nintzen, ene ondoan bazela



lehiu bat idekia... Ene xedea laster hartu eta obratu nuen. Gatu bat bezain zalu, lehiu hartarik kanporat jauziz joan nintzan eta tira-ahala norapeit aldaratu.

Gorderik egon ondoan, eskolatik lagunak atera artio, ene zakua ixilka eneganatu nuen, eta, usaiako tenorean, etxerat deskantsuan sartu nintzan.

Gure etxean ez baitzen hitzik erran behar errientaren kontra, haren egitate guziak zuzentzat ekarriak baitziren, haren pasoa onartuak eta batzuetan aitak doblatuak, egun hartako ene eskolako gertakariak, ez nuen deusere salatu.

Erdi afaldurik, oherat joan nintzen, baina ez nuen biziki begirik hetsi... Burua larri, gogo amets tzarrekin borroka, lehertua jeiki nintzen biharamun goizean... Gosaldu nuen dena intzirin eta arrangura, ama urri-kalduko zautalakoan eta etxean geldituko nintzalakoan. Baina, amak ez adituarena egin zautan, eta eskolako bidea hartu behar izan nuen.

Ahatik, etxeko arto landaren hegitik iragaitean, debrukeria gogoratu zautan, eta, bi behako laster inguruari botarik, bixt artopean sartu nintzan, eskola han gordetzeko, edo, guk ginion bezala, «mankarro» egiteko.

Artope hura ez daukat ahantzirik. Bakarrik, geldirik egon behar, arrabots guzieren beharria xut, ez dut behin ere nola orduan konprentitu ihiztatua den erbiaren barneko berri.

Bi orentsu hartan han nindagon, noiz eta ere, etxe aldetik, arrabots batek ernatu baininduen. Gure behiak, bulta hartan etxe aintzineko larrainean, alhan baitzauden, miga txar bat buru, arto landarat sartzen ari ziren... Halako artoa, jada bihitan! Aita, nun ote zen?

Behi higuinek ez zuten, ez gure lanaren, ez hain uztagai ederraren axolarik, baina, jan baino gehiago zangopilatuz, holako padara ustegabekoez erotuak, lerro osoak bazeramazkaten kraskada izigarrian.

Han nindagon zifritua!... Zer egin!... Ene baitan, borroka ari ziren, batetik hobendunaren ikara, bertzetik lurtiar hauraren asaldura... Eta, gure etxean, nehor ez zela ohartzeko behi horietaz!

Azkenean ba, hola gehiago ezin iraunez, kabaleri hurbildu nintzaio ten, eta, gordeka, ahapetik manatuz, entsatu nintzen heien ipularrerat haizkatzerat. Baina debaldetan. Ez nuen ez akilorik, ez bozaren larderiarik, eta gizonetan bezala, kabaletan ere, ahul denak ez du errespetua bortxatzen.

Miga txar debrua bereziki, ni ikus-eta, ergeldu zen, eta buztana harrotua, jauzika artopez abiatu, oro xahutuz bere ibilkadan. Hau ezinbertzea!

Hainbertzenarekin, aita nunbaitik agertu zen, oi hu garrasietan behieri, eta heien jalitzeko, artorat kontra eskualdetik sartu. Han orduan gertatu zen, azkenean gertatu behar zautana.

Aita ohartu zen, ez zituela bakarrik artopean bere kabalak, baina han zuela ere bere semea. Haren katiximaren hastapena eni buruz, hola-xetsu izan zen: «Zer ari haiz hemen? Baina, zer ari haiz? Hemen duka eskola, purtzil mukizu txarra! Habil etxerat!...».

Beharrik, ni baino presatuagorik, hor baitzitu behiak... Bertzenaz harek orduan zuen potroarekin, ene bizkarrak bere biziko oroitzapenak bilduko baitzitu.

Aitaren orroez beharriak oraino tutan, tira-ahala, gorputz guzia daldaretan sukaldetat sartu nintzan, ez baitzen ama guti harritu.

Orduan, noizbait, bihotza arrunt lehertu zautan, eta galerna euri iduri marrumekin, amari, denak, ziren bezala, aitortu niozkan.

Hain bide bainintzen asaldatu eta malurus, amak ez ninduen demendrenik gaizkitu, baina sukarra banuela iduriturik, oherat igorri ninduen.

Handik laster, salda xorta bat zerbitzatu, ohea ingurikatuz «Haurra, zautan ez tiki erran, holakorik ez berritz egin... Orai pausa zaitel!»

O amaren goxoa! Haren hitz laburrek, aintzineko panpa eta orro guziek baino gehiago bihotza jo zautaten.

Nik ez dakit, zergatik... Ohe hartarik ez nintzan luzaz atera... Emazte bisitari kalakariak zioten, zizariek emaiten duten zainetakoa nuela... Mirikuak, pausa hainitz eta kontrariamendu guti eni emaiteko zion, ez bainintzen hortaz batere samur.

Holaka eta halaka, egun hainitz iragan ziren, eta ikaritzen bainintzen eskola aipatzeaz beraz, ene burasok batere ez ninduten gehiago eskolarat igorri.

Hola gelditu nintzan frantsesik ikasi gabe, Huntzaren faltaz».

*(Gure Herria, 1955, 156-160)*





## PERTSULARI AIPATU BAT: TXIRRITA

Oraino bizi diren gutarteko hainitzek ezagutu izan dute, mende has-tapenean, Txirrita, pertsulari eta kantu-emaile gipuzkoar famatua.

Mutil zaharra, ofizioz hargina, lanari tiro emanik, maiz ostatu edo pestetan zabilan.

Ditxolaria eta zirtolaria, bere bitzikerieri esker, denak abusatzen zituen eta denek maite zuten.

### HAREN ATERALDI ZONBAIT

Astelehen goiz batez, tranboa hartu nahi zuen etxerat erretiratzeko, bainan diru pilik ez zuen zarpan... Lanean ari ziren hargin adixkide batzueri buruz joan zen, diru eske...

—Baduzue enetzat lanik, zioten galdata?

—Ba, ez da hemen lan eskasik zuten ihardetsi.

—Ha, ez nian bertze beldurrik, zuen atera Txirritak!

\* \* \*

Bertze behin, ostatu batean, bere iduriko Prontxio izena zuen har-gin batekin, parioa egin zuen zoin alferrago...

Lekukoak harturik, Prontxio lurrean etzan zen eta han hila bezala egon...

Sahetsean aldiz, Txirrita zutik zagon, tente potente, mugitu gabe...

Azkenean, Prontxio altxatu zen, erranez

—Parioa irabazi diat... Hi baino alferrago nauk, ez baitiat izan xutik egoteko kalapiorik ere...

—Nik aldiz etzantzekorik ez diat izan, zion atera Txirritak!

Eta parioa irabazi zuen.

\* \* \*

Arnoa maitegi eta lana hastiro zuelakotz, Txirritak ez zuen begitarte onik bere amarenganik... Elgarren artean larri bizi ziren. Behin, ostatuko

lagunek, bere ama lehioetik erakutsiz, galdata zioten, trufaz, emazte hura ezagutzen zuenetz... Huna zer pertsu bota zioten Txirritak:

Emo lepo luze hoi, dezue nere ama,  
Errenterian dauka sorginaren fama.  
Astian jartzen ditu, hiru'do lau gona,  
Ni tzarra naizela-ta, ez dek hori ona!

\* \* \*

Txirritaren pertsulari lagun ezagutu bat zen: Pello Errota. Hau ohar-tu zen, behin, Txirritak bi atorra soinean bazituela, eta hortaz trufa egin zion pertsu batez... Huna zer errefera ukan zuen:

Hauxe da lotsa, dutana hartua,  
Bi ator dituala'ta!  
Edozoin gauza esaten degu  
Arduak nastu-ta:  
Pellok bi nundik jauntziko ditu.  
Bat besteik ez du'ta.

\* \* \*

Xenpelar bertze pertsulari bat zen, hura ere omen handikoa... Bixta eria zuen, eta begitarik heldu zitzaion halako dario bat. Txirrita, pixka bat edana, erdi-lo baitzagon ostatuko mahainean. Xenpelarrek pertsuka gaitzeko trufak botatzen ziozkan burutik behera. Noizpait, Txirrita ernatu zen eta, xutiturik, huna zer pertsu zion eman bere kitzikariari:

Gizon hunek egin nahi dauzkit,  
Burutik beiti farrak.  
Berak ere merezi ditu'ta,  
Entzunen tu ederrak.  
Huneri ongi garbitzekotan  
Begitako makarrak,  
Hamabost egun, aintzur batekin,  
Biar tu gizon bakarrak.

\* \* \*



Urte hetan, ez baitziren laborariak orai bezala tresnatuak, jokia eskuz xehatzen zen, otasketa deitu tokian, trebeza izena zuten tresna batzuekin... Jokia jotzea, lan nekea zen beraz...

Egun batez, Txirritari bere anaiak duro bat eman zion, jokia jo zezan, bera bestarat joaiteko.

Txirritak duroa hartu zuen, batere ez jokirik jo, eta ostaturat segidan sartu... Han atzeman zuen bere anaia... Hunek galdatu zion: «Jo duk bederen jokia?». Txirritak errepusta: «Hameka desafio egin ziozkaiat, bainan jotzerat ez nauk atrebitu!»

\* \* \*

Berako bestetan, pertsulariak, etxe balkoinetik aritzen dira pertsutan.

Urte hartan, Txirrita eta Pello Errota hasarretu ziren, pertsutan lotu-eta, eta gaxtakeriak elgarri erran zituzten...

Txirritak Pellori ohoin bat zela, eta Pellok Txirritari: «Hi berritz mozkor bat!». Huna bi pertsu, elgarri eman zituztenak lehena, Txirritak; bigarrena, Pello Errotak.

Nehoz ezin ixildu errotaren tranka,  
Zakuari kenduikako artoaren laka.  
Bertze mundukotz hori, ai zer debru bazka!  
Ixtilu gorri asko ikustekoak dauzka.

Zuk ere ez ahantzi ardoaren saltsak.  
Pasatu berriekin, oi zer kontu latzak!  
Kakiterat joan-eta, galdu ditu galtzak,  
Espaceko eginak oihalezko beltzak!

\* \* \*

Baitugu aski aipaturik Txirritaz beraz, bi hitz orai haren obraz.

Txirrita ez da gorapenetako pertsulari bat... Ez zuen gisa hartako izpiritua eta jakitatearen argitasuna...

Txirrita pertsutan ari da bere gorputz eta bihotzarekin, izpiritu xorrotx eta gordin-aire bat duela gidari... Hortako, haren izaria hainitzena baita, gehienek Txirritaren pertsuak gostukoak dituzte.

Hemen, agertuko ditugu Txirritaren hiru kantu: Neska zarraren eta Jituen kantuek erakusten daukute Txirritaren izpiritu irrikin, maleziadun eta «biper eta gatzal»...

Nagusia eta bordariaren kanta hor da lekuko, Txirritak bazazkiela ere sentimendu bero eta gozoak ibiltzen...

Ohartuko gira bertzalde Txirritaren koblak, beren musika eta puntuez, zoin plazerkor diren beharrientzat...

\* \* \*

*Abisu:* Konprenitzeko errestasunarengatik, han hemenka doi bat saildatuz, hemengo eskuarean ditugu ezarri Txirritaren kantak.

(P.L.)

## IJITUAK

Esplikatzera noa kontuak

Ijito jende hoiinak.

Nola diraren gure artean

Gertatu izan direnak.

Alferrak edo're mozkorrek

Erdi ohoinak gehienak.

Okasionea ta eskandala

Eskastutzen ez zaienak.

Beren asto ta zakur eta ume

Hemen dabilta igande t'aste.

Kaxketadunek maiz aintzinean

Ereman bai izan dituzte.

Berak bainon lehen gibelat etorri

Ta pian hartzen gaituzte.

Beste holako nazione bat

Nihun badenik ez dut uste

Beren asto ta zakur eta ume

Dabilta joan etorrian.

Emaztekiak lasto galdeka

Kasikan larru gorrian.



Gizonak berritz lanketa aitzaki  
 Beren aixurrak gerrian.  
 Siñale bat utziko dute,  
 Sartzen badira herrian.

Emaztekiak haurrak hartu'ta  
 Eskera badoazengan.  
 Etxeko andre amoinatxo bat  
 Jainkoaren izenian,  
 Konplimendu luzea bainan,  
 Arrazoin motza azkenian.  
 Gauza guziak gero berentzat  
 Nehor bixtan ez denian.

Ebatsikako aberiekin  
 Dakite nola jokatu.  
 Hemen hartuta urrun ereman  
 Han saldu edo trukatu.  
 Hangok berritz hunat ekarri  
 Jabiak ez ditzan topatu.  
 Kontu garbia nai duenak ez  
 Ijituakin ein tratu.

Ijituetan guti izaten  
 Dirare berritz antzuak  
 Naturelezaz kasta gogorrek  
 Ta gainera umetsuak  
 Bizkarrian bat, tripan bestia  
 Bi sahetsetan batzuak  
 Sail galantekin ikusten dira  
 Dabilzala gehientsuak.

Usaindutako janhari jaten  
 Dira paregabekuak,  
 Arima salbu, zakur goseak  
 Diraren bezalakuak.  
 Nahiz izan usteldu ta lurpian  
 Luzaki egonduak,  
 Estimatusat daramazkite  
 Horiek horrelakuak.

Sasietako oihalak eta  
 Oilo ebasten atsuak.  
 Ta karriketari moltsa miatzen  
 Dabilza mutil gaixtuak.  
 Gizonak berritz mendietarik  
 Behorrek eta astuak.  
 Gauza gozorik sendi badute  
 Azkar hedatuz eskuak.

Atsoluzione beharrik ere  
 Ez da izaten hoiekin  
 Aita Sainduaren ahalak  
 Omen dituzte berekin  
 Ahaideak berdin ezkontzen dira  
 Elgar nahi dutenarekin  
 Hortarako gaztedanik prest  
 Nahiz katixima ez jakin.

Kontratuetoako ere ez dute  
 Sekretario beharrik  
 Gastuan zertan ibiliko da  
 Xorokerian t'alferrik!  
 Berdin ahaide ezkontzen dira  
 Lekuko gabe, bakarrik.  
 Ostatuetoako arnoa bada  
 Ez da bertzeren beharrik.

Neska mutilak gertatzen bada  
 Berentzat elgar hartzia,  
 Aipatu diren omenak hortan  
 Ere baderabiltzia.  
 Buruaz gora botako dute  
 Hautsi dedila eltzia.  
 Zonbat puska egin, hainbeste urtekoz  
 Eiten dute ezkontzia.

Etxe, harrobi, ola, teileri  
 Lehiorrak dauden tokira



Gehientsuetan gauetarako  
 Erretiratutzen dira.  
 Hurbildanikan egon izan naiz  
 Nola dabilzan begira.  
 Ez dute onik haserretu-ta  
 Zanpakatzen ez badira.

## NESKA ZAR BAT TENTATZEN

Dozena bat bertso, nahi nituzke jarri,  
 Pestetan kantatzeko, denbora pasagarri,  
 Horien emaiterat hunek nau ekarri,  
 Bihotza diot eskaini, zenbait neska zarri.

Neska zar bat tentatzen, hasi naiz lenguan,  
 Izana ere halako pollita zegoan.  
 Umil eta serio, hitz egin ginduan,  
 Bainan xantza guziak ez dira munduan.

Izketan hasi ginen, biak gozo-gozo  
 Ezkontzeko mandatu, egin diot atzo.  
 Leihotikan oihuka ama-ta bi atso:  
 «Ez duk arrapatuko uste bezin mantsol!»

Ama abiatu zait hasarrez betia.  
 Lehenbiziko oihua: «Zonbat duk dotia?  
 Hainbeste gostaikako alaba maitia!  
 Lastima izango duk hiri emaitia».

Zure familiari errespetuz heldu,  
 Inozente daudenak ez ditezen galdu!  
 Diru trukana alaba nahi zinduke saldu?  
 Lenago gustokorik ez al zaio gertatu!

Ner'espos-gutizia, ari da ja hozten:  
 Errexki dela diote zonbaitek ezkontzen  
 Agintza on bat egin-ta, ez bazira ontzen,  
 Lanak izango dira zurekin konpontzen.

Ez duzu sinetsi nahi, egia erran-ta-re.  
 Zintzua nahi ginuke, pobria izanik ere.  
 Gure bazterrak baino hobeak nun dire?  
 Alaban sasoina pixka bat joan-ta-re!

Bere alabarentzat horrenbertze fama!  
 Nik ez dut sinistutzen, haizeak derama.  
 Zuen bazterrean nik egitea lana?  
 Izan laiteke baiñan... ez dut uste, ama!

Ez dela uste duk, hori nahi duenik?  
 Urrats ibiltze onik, mutil zarrak ez dik.  
 Nere alabak ez zaukak, ezkontzeko kezki!  
 Hi ez bezalakua, aise bilduko dik.

Hitz bat erran biar dut, nere borondatez.  
 Ez banau nehork lotzen grilla edo gategaz,  
 Ezkontzeko idaiak banituen ustez  
 Arnoa maitatzen dut, andriaren partez!

Mutil maliziadun, deabruz betia,  
 Ez dizut zabalduko, gehiago atia.  
 Bein ere ez zaitut izandu bihotzez maitia.  
 Niganik libro zira, hor konpon zaitia!

Horra hamabi bertso oraingo berriak,  
 Bere andregaiari Txirritak jarriak.  
 Eman dauzkit desgusto ikaragarriak,  
 Nigar egin lezake nigatik harriak!

## NAGUSIA ETA MAISTERRA

Orañ artian ni izandu naiz  
 Aitatxi, zure nagusi.  
 Errenta zintzo pagatu dezu  
 Bere kapoin eta guzi.



Zu bainon gizon umilagoak  
Ez ditut asko ikusi,  
Orain etxe saltzerat goaz  
Nai bazinduke erosi.

Larogoi duro zuen errenta  
Etxeak orai artian.  
Zehorrek hala pagatu dezu  
Berrogoi ta hamar urtian.  
Lengoan bertan geldituzia  
Ez da neretzat kaltian.  
Bost mila duro balio ditu  
Ta konpondu gaitian.

Zer familia izandu degun  
Jauna, nai al duzu orroitu!  
Hamabi haurren aita naiz ni ta  
Semiak hamar baditu.  
Lan egiteko nehor guti ta  
Mainean ezin kokatu.  
Baneukake nun enplegatua  
Bost mila duro banitu.

Han aditu'ta beste aldera  
Itzuli zen nagusia,  
Erranez: «Nik zer falta daukat  
Zuk ume asko hazia?  
Ez dezu hainitz estimatzen nik  
Egiten dautzutan grazia.  
Zuek hartu nahi ez badezute  
Bada zeinek errosia».

Eskerrik asko, nagusi jauna,  
Bakian gaiten bizi.  
Eta hitzak bururatu gabe,  
Ez bedi joan ihesi,  
Argi dabilan gizonak ez du,  
Arrazoin txarrik merezi.  
Nai duenari saldu bezaio,  
Guk ez ginezake erosi.

Aziendaz eta laneko tresnetaz  
Baginduan indarra.  
Heiekin ere ez dugu orai  
Arras alderdi ederra.  
Zazpi balio luketen gauzak  
Bostetan eman beharra.  
Hau pentsatzian etortzen zauku  
Begietarat nigarra.

Hamabi lagun mahain itzulian  
Muntatzen gira jateko  
Gehienaz ere heietarik bost  
Irabazirat joaiteko  
Pazientzia hartuko banu,  
Hanbat ez nuke kalteko.  
Jaungoikoari eska diezogun,  
Osasuna emaiteko.

Oraitxe berritz aldatu behar  
Kanpain edo karrikara  
Norbaiti egin beharko zaio  
Bizi lekuen galdera.  
Esplikatuaz nola izan den  
Familiaren galera.  
Gure Jainkoak nai duen arte,  
Nonbait mantenduko al gera.

*(Gure Herria, 1958, 65-75)*



## LARRUN, ENE MENDIA!

Zerbait dakiena, mintza bedi! Ene iragan denbora, oraino atzo duzu. Bainan, hain da laster atzo hura bertzalakatu, nun Larrun, ene mendia azken berrogoita-hamar urte hautan saildatu baita naski, aintzineko bortz mendeetan egin izan zen baino gehiago.

Larrungo mendi-pean sortua, Larrun kaskotik lehen auzo den etxean, Azkaingo eskualderat, ttipitik eta geroztik ere, Larrun kurritu izan dut luzeka eta trebeska, dituen zabaldua eta xokomoko guziak erneki ikertuz, begiz perekatuz, bihotzez gozatuz.

Larrun mendia, hitaz zerbait dakitalakotz, aipatuko haut, gerokoek jakin dezaten, zertarik zertaratu haizen.

## LARRUNGO BETIZOAK

Orroit naiz, hamalauko gerla bururatu berria-eta, nola mendi mal-dari lotu baino lehen, beha-aldi luze bat ematen ginion ikusteko ean kabala lanjerosak han ziren. Delako kabalak behi betizoak edo, laburkiago deitzen ginituen bezala: «betizoak». «Betizo» hitz hori hedatua da Larrun mendiaren inguruan, jende eta alimalentzat da bakarrik baliatzen, eta «non domestique, sauvage» laitezke horren frantseserako itzultze hoberenak.

Dena den, betizoak, orai «lasterketan» erabiltzen dituzten landes behi horien idurikoak ziren. Ogi bihi kolore, txar eta zaluak, eta gaxtoak, multzoka alhatzen ziren: zezen, behi eta aratxe.

Nik ez dakit ote ziren odolaz arraza basatik, edo etxeko behi basaturik... Nehork ez zituen ihiztatzen, salbu lanjerosak gertatzen zirelarik... Bat hiltzen zutelarik, hala beharrez, gehienetan hil-toki inguruko etxetatrat haragia partitzen zuten, «sesiña» egiteko. Sesiña egitea da haragia kontserban ezartzea olioan.

Betizo horiek, lanjeros izanagatik, bazuten beren abantaila ere. Ez baitzen orduan «xiringazko eraintzalerik», ez eta beti auzoan zezenik, zombaitetan etxeko behiak larrerat igortzen ginituen ernaltzerat... Merkeago zen hola, eta, bertzalde xahal onak botatzen zituzten betizo zezenek... Ahatik, ume aitatarrik! Behin gure behi bat holaz erdirik, debruarrenak ikusi ginituen haren ume-ihizia ezin eskuatarat bilduz.

Bainan kanpotiarrak, Larrunen hegal ederrez oharturik, batzu oinez, bertzeak mandoz, azkenak tranboz, gure mendiaz jabetu ziren.

Guk, lekukoek, baginakien ez zela arropa gorritan betizoeri hurbildu behar, baginakien betizoeri ihes egiten, harroka puntetarat iganez bederen. Bainan, hiritar hain argituek holakoxkarik ez zakitelakotz, zombaitek adar kaska batzu bildu zituztelakotz, legea atera zuten behar zirela betizoak suntsitu... Eta, tiroz denak garbitu zituzten, azkena Uharteko ondoan.

Pena da... Ahatik, ez dakit gerlen edo zergatik, oraiko jendeak, lehenagokoak baino irriskorrago eta lanjerkinago baitira, nago hainitzek ez ote luketen Larrunerat tirantza berezi bat beren baitan sendituko, berritz betizoak alha balire mendi horren maldetan.

Larrun kaskoaren jabe diren lau herrietako buruzagiek, elgar aditurik, ezar baletzazte kabale basak, lehen ziren tokietan, eta erreklama egin balezate «Montagne de la Corrida»-rentzat, iduripena dut jendea usuago iza laitekela mendi hortarat.

## LARRUN KASKOAZ

Larrun kaskoak asko xapela mota jauntzi ditu azken mende erdi huntan. Gure haurrean, seinale ziren oraino hor, denboraz zen ermita kaperaren teila eta paretak... Geroztik, erlijionez bezain ilusionez aberats ziren bi Azkaindar gizonek (Jean Sougarret eta Koxe Larranbaitakoak), otoitzean eta ortutsik, ereman zuten zurezko gurutze pisu bat eta landatu lehen kaperaz zen tokian.

Hor izan dira edo badira oraino, Napoléon ttipiaren ohoretan altxatu harrizko arranoa, inguruko hedaduren karta dakarkien mahain arrunda, hotelak eta menttak ere.

Alemanek, gure tokiez jabetu zirelarik, hor ezarri zuten, airetakoan seinalatze «radar» deitu miraila zabal bat. Haren inguruan muntatu zituzten, burdin zimentaz, gerlako ziloak... Lekua hustu behar izan zutelarik, oro jauzarazi zituzten bolboraz... Hortakotz oraino ere, Larrun kasko inguruan, nun-nahi arrapa ditazke aleman gerlako orroitzapenak.

Orai fama da behar dutela oto bidea egin Larrunerat, eta ere, hor muntatu telebizioeko-potretan hedatzeko tresna bat.



Tokiko jendea gehienik upatzen da mendi hortarat Pazko eta Mendekoste biharamunetan... Gaztek maite baitute orduan, jan edan eta dantza egitea, han hemen, multzoka.

Lehenago, Azkaindik Larrunerat joaiten ziren prosesionez, euriaren galdatzeko. Azkaingo jende xaharrak orroit dira azken prosesionez, Bécas bikarioa buru, 1887an naski.

## CORONADO JAUN MIRIKUA ETA ARDI HAZKUNTZA

Han eta hemen egiten dira, oraiko egunean, laborantzaren onetan, entseguak. Entsegu horietarik izan dira, lehen ere. Bertzeak bertze, Coronado jaun mirikuak ardi hazkuntzako bat egin izan du, Larrun mendiaren maldetan.

Jaun, miriku horrek, ardi-artalde bat erosi zion Ziburuko Guilbeau andereari, 1903an. Ardi heien pazkatzeko, alokatu zituen Larrun azpiko bi etxe (Xalbadinen eta Xeruen-borda), eta erosi, Azkaingo herriari, lur batzu, Iturriederretan eta Zazpi Haitzetan. Gainean bi borda muntatu zituen ardi heien geriza-leku, eta beherean, erein pazka ferdeak, neguan heien hazteko... Artzaintzat hartu zituen Fermin Xeru eta Battitta Xalbadinen-bordakoa.

Allier departamendutik ekarri zituen, lehen primako marro edo ahari batzu gaitzak, angeles Southotown eta Diskley arrazakoak... Oraiko dirutan, marro hetarik bakotzak balio lukete ehun mila liberaz goiti... Eri gertatzen baziren ere, heien artatzeko, muntatu zuen barne berezi bat, Donibanen, bere biziteian.

Zorigaitzez marro heiek ez zuten ontsa eman... Itsas azienderi ez zaiote laket mendia... Bertzalde, Coronadok zionaz, bi artzainek ez zuten konfiantzarik marro heietan, eta zakurrik ez zutelakotz, higuindu zituzten, ezin bilduak baitziren... Halere, marro hetarik etorri ume batek, irabazi zuen lehen prima, Donibaneko ardi primatzetan.

Angeles arraza bazterrerat utzirik, Coronadok ekarri zituen bi marro, Larzac frantses arrazakoak, menditarrago ziren eta xuhur pazketan usatuago... Bainan, hek ere eritu eta hil zitzaizkon.

Ondotik, bertze bi marro alimale, adar handi batzuekin, erosi zituen Haute-Garonne departamenduan... Hauk ere fin gaxto egin zuten.

Orduan, baitzuen jada zer-nahi diru xahaturik, Coronadok, etsiturik, artaldea saldu zuen, eta ba artzain, ba etxeen jaberri, despeira eman zioten.

Ez-erreusitua, erreusitua bezain argitzale izan baititake, badute hor zer ikas oraiko entseguariak.

## MENDIAN HILIKIA

Larrun arrano toki duzu... Gauza ederra da bainan suerta nekea, arrano multzo bat harroketan pausatua, beren lepo larrutua erne daukabela, etsaien zelatatzeko.

Arranoa, hegaztin basa izenagatik, garbia da eta baliosa... Ez duzu edo guti duzu jazartzen haragi biziari eta landetako uzteri, hala nola miru, belatx eta buzokak.

Arranoek eta belek, hilikiak garbituz, mendia sanotzen dute.

Ahatik, ez dute moko bera janariaren prezatzeko... Arranoak hil berritik nahi du. Beleari aldiz berdin zaiou hil zapar usaindua.

Gauza izigarri, ezin-ahantzizkoa da beha egoitea zer gertatzen den azienda bat hiltzen delarik mendian... Han baitagotzi beti barrandan, gorputza ikusi edo usnatu orduko, harenganat joko dute inguruko arrano-bele guziek.

Arrano jauna jabetuko da lehenik hilikiaz, eta, puska hoberenak beretuko ditu: begiak, mihia eta buru-fuina. Bere moko aztaparrak bortizki ibiliko ditu, bainan ohorezki eta garbiki, errege bati dohakon bezala, noizean behinka begi zorrotz batez, bele ausartegiak urrunduz eta inguruak zainduz.

Bere zeremoniaz hilikia kontsekratu balu bezala, segidaren jateko, bele herrestak hurbiltzerat utziko ditu... Berehala, kataskan, harrapaka, zikin eta okaztagarri, beleak lotuko dira apairuari... Hilimiliklik, kabala hustuko dute, batzuek gibeletik hertzeak ateriaz, bertzek gatzagi zilotik tripa xurgatuz, urdekerian eta saltsan, iduri erotuak, ihauska dabiltzala.

Arranoak, oraino ere, bertze puska hoberen batzu beretuko ditu, bainan bazterrerat tiratuz janen, ez baitu beleen ziliportez bere jauntzi ederra zikindu nahi. Eta, ez bada alturan, airatzeko abaila hartuko du pisuki, lurra joz bere hegalez gaitzeko arrabotsarekin eta jauzi batzu eginez.

Denbora laburrak barne, hilikitik ez da geldituko hezur eta larru zamarra baizik... Kabala norena zen, beharritako markatik gizonek ezagutuko dute; hegaztinek beharriak oso uzten baitituzte.



## ARRANO IHIZIA

Orai arrano ihizia bazterrerat utzixea da, bainan, ene haurrean, ihizatzen zituzten, hirietarat erakusgarri igortzeko lastoztaturik.

Bi xoletan egiten zen bereziki ihizatze hori: Kolar Handietan zen etxola batean (orai beti xutik). Ibarregarai, Ottare, Vergon, Harriet komandant batek eta bertze zonbaitek, badituzte hameka gau pasaturik sola horietan.

Orroit naiz nola behin, gure etxean, ardi bat galdatu zuten, arranoen apastatzeko. Tipia izanagatik, gure artaldeko ardi guziak ezagutzen nintuen (baziren ehun bat). Bat edo bertze eskas gertatzen zelarik, artaldea bordarat biltzean, laster atzemana nuen zoin zen hura: Lepo larrutua, Titi makur, Adarkari, Beharri xut edo bertze.

Gure ardietan, bat baginuen haurrek bereziki maite. Gorputz xehekoa, ahuntxa bezain fina, zortzi bat urtetarat jada heldua, zaharrez antzutu. «Muino» zuen izena, kopeta gainean zuen ile karbutzarengatik... Ile putzuka hura, adinarekin, zuritu, lehundu eta harrotu zitzaion, hegastei airos eta errespetagarri batez apaintzen baitziozkan bekainak. Ardi maite hori, arrunt eskuetakoa ginuen haurrek. Noiznahi, alhan edo geldian, etortzen zitzaion, jaten ari ginenaren eske... Eta, ez baginion pitsik largatu nahi, buruarekin perekan ez ginituen bakean uzten, edo berdin, oinetakoan lokarriak desegiten zauzkigun... Arditeirakoan, bere artaldeko lagunaren artetik aldaraturik, beti sukaldeko aterat hurbilduko zen, amoina galdez.

Bainan, Muinori ere itaitzurak abiatu. Negela zuela, muturretik gorputzerat min zakar batzu hedatu zitzaizkon. Ez zitaken holakorik atxik artaldean... Goiz batez beraz, hartu ginuen gure ardia, aita sokatik aintzinean, ni gibeletik, makilxka bat eskuan. Abraham eta Izaak bezala joan ginen mendia gora sakrifizioaren eskaintzerat. «Arrano xolak» badu aintzinean soropil garbi bat, kamomila lorez apaindua. Aitari ihiztariek galdua zioten ardia han hiltzeko, bainan odolik kendu gabe, hola tirantza gehiago zukeelakotz mokodun basentzat... Beraz, aipatu lekuan, aita pazota kozkor batekin, hiru kolpe izigarritz, burua arraildu zion Muinori eta han utzi ginuen gaixoa, lau zangoz zeruari deika.

Biharamun argi ziriztean, xolako murru zilotarik, ihiztariek tiroz bota zituzten zonbait arrano, ardi xahar haren jaterat jautsiak... Tiroen

ondorio, ikusi nintuen Gantzume eta Ganix garreiriak, arranoz kargatu haga baten pean plegatuak.

Betikotz bihotzean zauri bat gelditu zautan, gaixo Muino hola finitzen lagundurik.

## ENE AITATXI

Ene aitaxi zen gizon bat izila, osoa eta otsoa bezain azkarra... Gure etxea, patar baten kaskoan baitzen, errebidetik kilometra on batean, behin bazituen bide hortan garraiatzeko lau zaku xori-ongarri (hola deitzen ginuen, lehen: guanoa, eta orai: fozfata zuria) bakotxa kintalekoak (50 kilo).

Denbora hetan, urgulu bat zen bizkarkako lana, eta, alter jukutria edo ahul molde bat, lan xeheterientzat kabalen uztartzea.

Xori ongarri heien garraioa beraz, gure aitaxik, bizkarrez egin zuen. Bainan, bere indarraren frogatzeko, lehenik hiru zaku betan zituen etxerat joan, biga espaldetan, bertzea galtzarpean... Bigarren itzuliko, azken zakua bakarrik zitzaion gelditu.

Ene aitaxik maite ninduen, gehienik naski ardietako begi ernea nuelakotz, eta, galtzak soinean ezarri orduko, bide zorrotzetan itxaklok hartuz, berekin Larrunerat eremaiten ninduen.

Lehengo xahar hainitz bezala, xuhurki bizitzen ikasia baitzen, bidean aurkitu guziak biltzen zituen eta etxerat joaiten... Baiginakien nun, jateko, jartzen ziren Larrungo piaiantak, heien apairu lekuetan, aitaxirekin biltzen ginituen botoila hutsak eta paper garbi balia zitazkenak... Gertatzen bazitzaikun bidean ardi hil baten zamarra, hura belarri batez aitaxik biribilkatuko zuen eta makil puntan garraiatuko.

Noizean behinka ere, zaku bat borda batean arkinez betetzen ginuen (arkina da ardi ongarri xehe gizona) eta, aintzur bat bizkarrean, otardi itu batzuetarat sartzen ginen... Zertako ote? Pipa-belarra kario baitzen salteietan, gure aitaxik han hemenka bazituen pipa-belar baratze tipi batzu muntatuak... Baratze horiek herriko lurretan egiten zituen, guardek harra-patzen bazituzten ere, ez zezaten izan jaberik... Makila puntan, edo zakuan, edo arropa besotan, ekartzen ginituela gure puska jada aipatuak, edo onjo, edo gatzain, edo otatx zama, aitaxi eta ni beti kargatuak itzulitzen ginen Larrunetik... Ean ez den ba Larrun, mendi aberatsa.





## AITATXIREN ADIXKIDE BAT

Nik maite nuena oroz gainetik, zen, ardiak beherean gintuenean, aitatxirekin ardi zain joaitea, Hiriburuko-bordako pentzetarat.

Han bizi zen frango behardunki, mahasteiak zirenean dolareztat baliatzen zen etxola batean, Inazio Beltza deitu karlista gudulari ohi bat. Haren etxetik ginituen ardiak zaintzen, lanean, pipan eta janean denbora pasatuz.

Erran baitut gure aitatxik «belar berritik» pipatzen zuela, orroit naiz zoin arta bereziarekin apailatzen zuen bere pipagailua... Pipa-belar hezea, mailuz ongi jo ondoan, idor-arazten zuen ilunpean, eta xerrakutzen kani-beta batekin, suko hauskoaren gainean... Pipatzeko muntadurak zituen bi totxa: bat, urde pizuntziz, egun guzitako, bertzea, sator larruz, besta burutako... Mendian bildu su-harri koxkor bat ferretaz joz, pizten zuen mitxa gorri bat... Pipak bazituen, bat gerezikoa, gider mako labur batekin, erdi errea, gapelu-pean ibiltzen zuena maizenik. Bertze multxo bat, lurrezko zuriak, kabitze gutikoak, merke eta hauts-errexak, etxean uzten zituenak kopa baten barnean.

Ardi zain ginaudelarik, ez ginen alferrik egoiten, bainan aihen, bihurri edo faro egiten artzen ginen... Orduan, hainitz garreatze obratzen baitziren bizkar zamaka, orai baino estekagailu gehiago zen higatzen. Hor-takotz ginituen aihen eta bihurriak. Bihurria da adar heze bihurtuz egin korda.

Faroa da joarea zintzilik ibiltzeko lepo uztai egurrezkoa... Gaztaironondo gaztetik ginituen jalitzen... Nolako eta nozentzat baitziren joareak-eta, gisa hartarat ginituen faroak moldatzen eta apaintzen... Zeren, baduzu joare eta joare... Bildots joaretan, badituzu: kalaxkak eta ttolonttak. Ardienetan eta behienetan: luzeak eta bulunbak. Ahuntzenetan: zilintzak eta kroskilak. Behi uztartuentzat aldiz: panpalinak, hauk ohorezko joareak, uhal edo uztai kobratu ederretan ibiltzekoak.

Bainan, Luzaiderraino joana bainaz ene xeheterien kondairekin, hasi sailerat berritz itzul gaitezen... Inazio Beltza, karlista!... Ha, zer istorio izigarriak ez zauzkidan kondatzen, lur sagar edo gatzain basa batzu hauts-pean errez. Santa-Cruz apezaren soldado izana zen. Kondatzen zuelarik nola «beltzak» ostatu mahainen gainean estekaturik, makil-ukaldika ehotzen zituzten. Nola gauaz ohetik gizonak hartu-eta garbitzen zituzten. Nola behin lasto-pean gordeak zaudelarik, etsaiak lasto gainean lo plan-

tatu zaizkoten... Bainan luzegi laiteke ororen errepikatzea... Eta, istorioa Inaziok bururatzen zuen beti hitz berez: «Santa Cruz, potella, hura zukan hura apaizal»

Badut uste, karlista horrek zautan, bere gisan gogoan sartu, apezak, norbait gorako eta ohoragarritzko mailetik zirela.

## LARRUNGO AZKEN AKERRA

Larrunen oraino ere pottoka multzoak badira... Denboraz jito edo buhamek erosten zituzten gehienik beren karrosen zalditzat. Orai aldiz baliatzen dira ardurenik haragiko edo ikatz mina zilotako.

Bainan, nago pottokak ere ez ote diren Larrunetik kuntsumituko, duela urte zombait ahuntzak kontsumitu ziren bezala. Zeren, ene haurrean baziren oraino Larrunen ahuntz artaldeak... Bainan, ez zutelakotz errespetatzen ez berro, ez zerrakurrik, beren aho pozoinaz primaderako lehen aldaskak moztuz, landareak zafrazten zituztelakotz, peko ontasunetan haiekin burutzerik egin ez zezaketelakotz, legea atera zuten, ahuntzak ez zirela gehiago haizuko estekan baizik.

Bizkitartean ahuntza, alimale pollita duzu eta garbia... Halako dolu bat kausitzen diotet Larrungo harroka mutur, arboldei eta bidexkeri, ez baititut gehiago hetan ikusten ahuntzak, lerro lerro joaki, akerra buru, edo beren kolore ttittakatuekin josiak leku gora guziera... Eritasunen kontra ez da kabale sanoagorik, eta nago ez ote lezaketen oraiko jakintsunek, xangre edo bertsuko gaitz zikinen bentzutzeko, zerbait sendagailu jali ahuntzen odoletik.

Dena den, legea lege, egun laburrak barne, Larrungo ahuntz guziak bildu zituzten, jan, saldu edo estekatu... Guziak erran dut... Ez. Salbu bat... Eta, bat hura: Harizpenbordako akerra. Aker bat oreina iduria, burua gora eta erne, betizoa bezain basa, desafiakzko behako batekin... Ezin bildua zelakotz, deliberatu zuten tiroz garbitzea.

Harizpenbordan bizi ziren senar-emazte xahar batzu, seme bakarrarekin. Hau, Baratzuri bataiatua zuten jendek... Orai, hiruak hilak dira, bainan Baratzurientzat nehork ez dautzu fama onik emanen... Mutil mandrin bat zen, edalea, ongarrria baino alferragoa, hain alferra nun, behi zain zagon batean, tiroz bat garbitu baitzuen, haren itzultzerat joaiteko ez akitzeagatik.



Bainan, enetzat Baratzuri norbait zen. Haren aire futituak eta fama gaixtoak, emaiten zautan harentzat halako lazadura bat, eta beldurraren ohorea ekartzen nion... Ohorea naski-ta areago ekartzen nion, Baratzuri maiz tresna berezi bat bizkarrean trebeska ikusten nuelakotz... Tresna hura zuen zipa bat... Ez oraikotarik, bainan lehengo kanoi luze bakarrekoa, muturretik kargatzen zena eta oilar azpiko ximinean pixtuna ezarriz, pizten zena... Oren laurdentsu bat behar zen zipa haren kargatzeko, eta maizenik oilarzangoa behar zitzaion bizpahirutan zapatu, bolborari su emaiteko.

Baratzurik beraz, aker ihizirat joaiteko, hartu gintuen laguntzat auzoko mutiko kozkor zorbait, eta heien artean, ni... Zizpa kargatu zuen gure aintzinean, erran dudan bezala kanoia muturretik, harrobian ebatsikako bolbora, ziri batekin, sartuz-eta, Napoléon-en denborako berunezko bala errunda bat, perdira larritzat ezarriz... Eta hola, gure kapitain harmatua buru, airoski jo ginuen mendirat.

Akerra urrundik ikusi ginuen Androla kaskoan. Harek ere ikusi bide gintuen, ezen, ez gintzaizkolarik oraino hurbildu ere, jo zuen tira-ala Kas-koin xolako errekarat, handik berritz, malda gora Negu xolarat. Haizatzaleak gibeletik utzirik, Baratzuri eta biak, joan ginuen azpiz, Ximeldegiko bordari buruz, barranda muntatzerat.

Igortzaleek akerra jauts-arazi zuten Ateketan beheiti, Xalupa-harri-raino. Han ginauden gordeak. Gure aintzinean harroka konkora gora bat baitzen, haren gainean, betbetan agertu zitzaikun akerra... Lepoa zut, begia kezkan, behin luzeki usnatu zuen itsasotik heldu zen aire gazia. Gero, brastakoan itzulirik, so bat, petik gora, eman zion Larrun mendia-ri, han nunbait ihes-leku bat miatzen bazuen bezala.

Hartan zagon oraino, noiz eta ere, Baratzurik zapatu baitzuen ziz-paren oilarzangoa. Eta, hala beharra, lehen zapa-aldian, harrabots ikara-garri batekin, tiroa jali zuen eta akerra hil hotza aurtiki.

Hola erori zen betikotz Harizpenbordako akerra, Larrungo ahun-tzen azken erregea.

Baratzurik bizpahiru egunen pesta muntatu zuen aker haren jateko... Nik, ez nion jastatu ere... Hil hurranean, aker hura sartu zen ene gogoan-aldarean, eta ez nezaken onart platan...

## ANGELESAK ETA AZERIAK

Ez naiz mintzo Napoléon handiaren denboraz... Orduan ere, Angelesak, Espainian gaindi, pasatu ziren Larrundik, bainan gurlari gisa. Ordukoak dira Kolar Handietako murrak, Aira-Berriko zilo paretadun batzu, eta ere, Esnaurreko eta Bizkartzuneko pezoin eta izakak.

Bainan, geroztik Angelesek adixkidetu ginen, eta, hauk etortzen zauzkigun negutiar gisa herrirat... Guk, haurrek, Angelesez ginuen iduripe-na, zirela denak zaldizkariak eta banana jaleak... Angelesek alabainan eza-gut-arazi zaukuten banana. Harrituak egoiten ginen beha fruitu berri horri, eta berdin lurreko azalak milikatzen ginituen zer gustu zuen jastatzeko.

Bertzalde, Angelesek, Azkainen gaindi muntatzen zituzten azeri ihizatzeak... Hoteleko, Ottare zuten azeri fornitzale. Ihiziko egun goi-zean, Xabat, Hoteleko mutilak, hartuko zuen zaku zahar batean azeri bat hila (edo ezin bertzean: azkona bat)... Eta, hura lurrean herrestatuz, larre-kiz larreki, joko zuen Susiondoko ondotik, edo berdin Serresetik, Doni-baneraino.

Angelesak, zaldiz, beren zakur larri tittadun hori beltzekin, entseiatuko ziren hatzatarik azeriaren atzemaiterat... Ihiztari zaldizkari horiek ez baitzituzten errespetatzen landetako zerrakurak, ez zituzten gure labora-riek biziki begi onez ikusten... Hetarik bat bazen zaldikari famatua, Azkai-nen egoiten zena Dorreko nausia.

Hainitz Angelesek maite zuten ere, mandoz edo oinez Larrunerat izatzea. Oinezko gidariak batzuetan, bi aldiz egun berean, egiten zuten Larrungo joan jina, gomendio zituztenen puskez kargatuak. Itzuli bako-txarentzat irabazten zituzten host libera... Mandoarekin aldiz hamar libe-ra... Azken mandozainetarik, bertzeak bertze, izan dira: Pele Pilipaitakoa, Andres Ederko, Jean Laduxe, pilotariaren aita.

## LARRUNGO AZKEN OTSOA

Azeri eta azkenarroak balin-badira oraino Larrunen, denboraz, Eskual Herriko mendi gehienetan bezala, baziren ere otsoak. Hor dire lekuko, Androla mendiaren hegian «Otso zilo» deitu harripe itsusiak.

Ez du hain aspaldi garbitu zutela Larrungo azken otsoa... Harane-derreko Jean-Batiste Gracy-ren amatxik kondatzen zuen bere haurreko istorio hau, duela ehun bat urte pasaturik gertatua.



Haranederreko artaldeari basa alimale bat jazar zen eta nehork ez zezaken konpreni zer zitaken... Egunetik edo bietarik, ardi bat edo bertze odol hustua, funditua aurkitzen zuten.

Azkenean ba, artaldearen zain ezarri zuten etxeko ate-zakurra, zakur bat gaitza, lepoko uhala itze puntez harmatua... Halere, lehen gauaren ondotik, egundaino bezala atzeman zituzten bizpahiru ardi sarraskituak, eta, delako ate-zakurra aldiz, odolez orratua, leher egina... Ha debrua, zuen pentsatu artzainak!... Horra beraz nor zaukun ardi jaten ari!... Etxeko zakurra, ala-jokoan!... Hasarre gorrian, berehala urka-sokatik zintzilik ezarri zuten arbola bati.

Gaztigu horren ondotik, artzaina itzuli zen artalderat, desmasien hurbilagotik ikusterat... Eta, zertaz zen ohartu!... Han, ardien erdian, otso alimale bat bazela... Otso bat odoletan, hil-berria... Etxeko zakurrak hila, guduka izigarri baten ondotik, hatzek erakusterat ematen zuten bezala... Gaizo zakurra!... Asma jabeen pena!... Bainan zer egin!... Hila hill!...

Urteak eta urteak, eta berriki artio, Haranederrean atxiki dute murruan, edergailu gisa, delako zakur haren lepo-uhalek itzeduna.

## LARRUNGO ITZAINAK

Larrun aberats bada ihaurkiz, hala da ere harriz. Harri mota guzietarik bada Larrungo harkadietan: zuri, gorri, beltz, giltzurdin xabal, eta bertze...

Sant'Izpirituko zubia, Baionan, Larrungo harriz egina da... Oraiko egunean, bereziki harri gorria, Pariseraino despeitzen dute harrobi-zaleek... Harri, eskuz lantuetan, hiruk badute tira handia: harri zikiak, harlozak eta galtzarako harriak. Harlozeroak, tokiko gizonak dira, bainan aspaldiskoan harri ziki egile hoberenak, Italiatik heldu dira.

Ene haurrean oraino altxatzen ziren asentua (murruek) harri hutsez... Asentu altxatzale famatuenak izan dira, mugaz bertzaldetik hunarat ihesi etorri karlista batzu. Heien lanak dira Sant-Inazioko ondolan, Xominone lur berriko asentua... Bizi beharrez, janean truk, obratu omen zuten lan hori... Zaharretan, nik ezagutu dudana tokiko ofizialek hoberena, harri hutsez paretan eraikitzeke izan da: Zoldoritz... Delako karlisteri zor omen zioten bere artesia... Baditu Larrun behean, hameka harri eskuetan pasaturik.

Kamionak agertu aintzin, itzain multxo bat bizi zen harri garraiotik. Garraiatze hori egiten zuten gurdiz (hola deitzen da orga ttipi, adur betea). Beren karga jausten zuten Azkaingo porturat, Artxinen zalantetarat eta hunek, urez, Donibanerat.

Larrungo itzain horiek famatuak ziren debotak, eta bereziki estazio-neri kartsuki jarraikiak... Lehen estaziona ohoratzen zuten harrobian berean, gordea beiraten zuten menttakotik benedikatuz. Bigarrena Uxenean, bideko lehen ostatuan: hau, zintzurra mendi-errautsetik garbitzeko... Hirugarrena, Xipa-baitan: hau, Pele Xiparen bizitzen laguntzeko... Laugarrena, portuan: deskargari buruz, zainen zalutzeko... Gurdiak hustu-eta, estaziona berak ohoratzen zituzten aintzin-gibelka... Ez da harrizteko beraz, aratsetako pixka bat zeruan baziren ere.

Itzain horietarik gehienak gizon maitagarriak ziren, jostakinak, elgarririk atxikiak, irria muntatzaleak... Behin, Peitipeitako bat, frango aire-puskatua baitzuen, lagunek, bera ohart gabea, «estaziona» bakotxean, gurditik harriak deskargatu ziozkaten... Porturat heldu-eta, gure itzaina joan zelarik idien gibelerat, kargaren jausteko, gurdia hutsa atzeman zuen... Pentsa haren harrizte eta bertzeen trufak zer izan ahal ziren!

Bertze behin, Oker bat, ziminoan, ostatutik ezin aldaratuz baitzagon, bere behiak ber-berak etxerat abiatu zitzaizkon... Okerraren lagun zonbaitek, behi hek arrastatu zituzten eta gurditik kendu... Behiak hutsik etxerat igorririk, gurdia arbol baten puritan ezarri zioten.

## LARRUN MENDIARI ENE AGURRA

Frangotan, gau arats epel batez, egon izan naiz Larrungo mazeletan, ene gogo bihotzen goxatzen. Urrunean, hara itsaso zedari gabekoa, bere orro loakor betierekoaz, bazterrak betan gerizatzen eta ikaritzen dituela... Han, hurbilago, Donibane-Ziburuko argi ttipiak keinuka... Eni buruz heldu, suge alimale bat iduri ur ibaia, bere mirailean ilargia kukulaukan jostatzen zaiola... Ene zangopetan, Azkaine, herri maitea, haur pollit kriketa, Larrunaren altzoan jarria... Ene inguruan aldiz, ehunka ardiak, iluna arras sartu aintzin, lurrari musuka, beren joare desberdin eta marraka minez, airea, batean ezituzten dutela, etabertzean, zilatzen... Han hemenka landatuak, inguruko toki maiteak, ene adixkideak: Urkulako lepota eta Tramar, Zimini-harri, Xapel-harri eta Azeri-harri, Basaal, Golan-putzu eta bertze.



Bainan, gauak jada tapatuak ditu urrunak, eta hurbilak ere bere perekaz ari ditu belzten... Lurrak eta kabalak ixiltzen dira, airea libro uzten dutela gogoaren amets hutseri eta kezka ezin konprenituerei. Ahatik, aditzen baidituzu noiztenka bi-hiru sainga intzirinkor labur, ez otoi pentsa laminari... Azeri ama duzu bere umeeri mainuka ari.

Gau berean, lurraren konkorrak eta maldak dira bilakatzen mamu ezkin-gabeko batzu, doluzko arropetan kokorikatuak edo nola nahizka etzanak... Mamu horien denen gainetik, denen aitaso, bere gora marrez ezagut-errex, Larrun, ene mendia, bere bizkar seguraz, inguruak gerizatzen eta deskantsatzen dituela.

Bainan, huna ameslarientzat ere loaren tenorea... Hire pean. Larrun, lañoki lokartuko nauk... Larrun, izan-hadi ene beilari... Orai eta gero... Agur, Larrun!

*(Gure Herria, 1958, 257-268)*

## ALDAIRA

Zoin laster bizi-moldea bertzelakatu den ahatik! Horixe ene baitan nindagon berrikitan, gure etxetik aldaira egiten ari ziren bizpahiru kamioneri so.

Duela berrogoi bat urte, ene haurrean, egin ginuen bertze, aldaira batetarat zoan ene gogo.

Orduan, aldaira, lan luze eta neke bat zen, bainan ere pesta bat. Orai, lan berak, egun erditsu bat du bakarrik irauten, ofizialeri esker, eta ez da pestarik aipu ere... Langileak diruz pagatuak dira, eta, irabazia eskuratu ondoan, etxerat haizu.

## GURE ETXEKO BERRI

Bainan mintza gaiten delako aldaira hartaz. Etxetiar ginen ontasun koxkor batean... Mahain inguruan, ahoen nonbrea goratuz baitzoan, laguntza ere, bertzalde, heldu baitzitzaion, aita abiatu zen etxalde joriago baten mian.

Nunbaitik jakindurik, herrian, guk behar bezalako etxalde bat huste-rat zoala, hartan etxetiar sartzea, ixilik eta lehenbailehen galdatu zuen. Nausiak ihardetsi zion ez zela galdegile bakarra, bere gogoetak eginen zituela, eta errepusta ondoko merkatuan emanen ziola.

Dautzuet, ondoko merkatua arte, familian larri ibili ginela... Batean ba, eta segur ere etxea guretzat zitakela. Nausia holakori hola, eta halakori hala, guri emateaz mintzatu zela... Bainan biharamuneko, gure amets guziak berdin lurrean ziren... Ezetz ez, bazela gu baino lehenagorik... Kartierean berean, Piarres Etxoinek, etxetiargo hori beretzat ardiesteko segurtamena bazuela.

## XINKATRES ETA GU

Piarres Etxoini, gizon mainguxka bat zelakotz, «Xinkatres» bataioa emana zioten. Eta, zer den ahatik haurtasuna! Supazter-xokoan hartaz adituekin, halako hastiro bat bildu nuen, egun hetan, harentzat. Guk desiratzen ginuen etxalde bera, harek ere begizatzen zuelakotz, gure familia-



ren etsaitzat naukan, eta, ikusten nuclarik, errabia batek su-egiten zautan barnetik.

Dena den, ondoko merkatutik, aita arras «talenduan» itzuli zaukun. Ez ginion galdatu ere ean zer ihardetsi zion nausiak. Nausiaren errepusta argi zaukan bere begitarte irrikin, bapoan.

Ez zuen nausirik aipatu ere etxerat sartzean, bainan denak besarkatu gintuen... Ama ere, ba... Arras bakan gertatzen baitzitzaion holakorik... gure aintzinean.

Atorra mokasturik, mahain-muturrean jarri zen, eta, salda xorta bat edanez, nausiekin ibili solasen xehetasunak eman zauzkun... Artetik, Xinkatres, gorapenetik, ziliporta batzuz benedikatu zuen, eta ere aitor dut... ginuen: «Kanore baitzuen, nausi berriak, Xinkatres guri preferatzea!... Boho!... Holako ustekeriak nun zuen buru-buztanik?... Maingu debrua!... Segur bera ari izana zela fama horren hedatzen!»

## BAKOTXA BEREARI

Beraz, berritz ere abiatu ziren aintzina egunak egunen ondotik, eta, gure etxean ez ginen bizi San-Martinentzat baizik.

Ene haur-izpirituaz, familiako erran guziera erne nindagon.

Aitatzik ez zuen iduri sobera kontent zela aldairaz: «Ba, ba... Hemen berean ere egin ginezakeian ba bizitze!... Etxe berriko teilatuak ere izanen ditik bere itaitzurak!»

Amatxi zaukun pixka bat muturtu: «Ez gintuztena, hoinbertze urteren buruan, gure hezur zaharren pausatzerat uzten ahal hemen berean! Ha xaharra, gazteen meneko!»

Ama, frango aintzinetik, aldairako apairuaz orroitua ginuen «Azken mementoari beha egoiteak ez dik deus onik!» Uda aintzin, koloka ziren oilo guziak xitan eman zituen. San-Martinetakoa oilaskoen muntatzeko.

Kozinari bat ere beharko zela-eta, guk usaiakzi etxerat ekartzen ginuena, Maria Zalantza, amak ez zuen gehiago nahi etor zadien... Zertako ote?... Hurbileko emazte bat entzun nuen amari sekretuzki kondatzen, nola delako Maria, heien komunionezko bazkaria erditaratu gabe, «jesusean» gertatu zen. «Itsusi, desohoragarria!», zuen atera gure amak.

Ez bainakien xuxen zer zen «jesusean» izaite hori, eta, ene amarentzat nuen amodioak, emazte arraza guzia ohoragarri baitzautan kausiarazten, ez nuen berehala konprenitu eta onartu Maria Zalantzaren gaitz trixtea.

Aitak zuen halere buru-hauste gehienik.

Uzten ginuen etxearen bordari berria laster agertu zen. Galdegin zaukun, sartu aintzin, bere baratzearen egiteko lurra, eta belar-iratzeen ezartzeko lekua. Guk ere, gauza bera ginuen ardietsi, ordaintzekoa ginuen etxetiarrarenganik. Bertzalde, neguko arbi eta perdailuak erain ginituen batzuk eta bertzek, leku berriez jabetu aintzin.

Hola, asko gurutzamendu ibili baiginituen, ene haur izpintua gizonen arteko harat-hunatetan alhatu zen eta ernatu.

## ONGARRI META

Aitaren griñetarik bat zen, nola aldairako hitzarkiak beteko zituen. Bereziki, eta bertzeak bertze, etxea hartua zuen hamabortz metra ongarrirekin eta hitzeman, izan bereko ongari meta utziko zuela, etxea libratzean.

Sei buru ziren gure heian eta ehun bat ardi bordan... Udan, kabalak maizenik larrerat igortzen baiginituen, ez zen errex heia hutsetik ongarririk jalitzea.

Behin ene aintzinean, Lazaro Beltza, kartierako gizon bat, entzun nuen aitari kontseilu emaiten. Aski zituela ongari metaren barnean saka-tzea, larrekiko ote-heze batzu eta ere iraztorreko arto zango guziak. (Guk iraztorra deitzen dugu: samatsa). «Ez, zion ihardoki gure aitak, ez dugu gure mahainean holako jakitik zerbitzatzen!». Orroit naiz, fier izan nintzela aitaren errepusta hortaz eta hari jada ekartzen nion ohorea, berratu zela oraino ene baitan.

Lazaro hura, espainolki gizon itsusi bat zen, muztatz berduratu batekin, erdi laborantzaz eta erdi kontrabandaz bizi... Aintzinetik ere ez bainuen hartan sobera konfiantzarik, solas horien ondotik, lazadura bat emaiten zautan harekin gurutzatzeak.

Beraz, uda hartan, behiak alderat barnean atxiki ginituen, eta, azpiak zikin-arau erreberrituz, gure hamabortz metrako ongari-meta altxatu ginuen, behar zen tenoreko.

## ITZAINAK

Eguna hurbilago eta ezkila minago, supazter-xokoan, Urriko arats guziak San-Martinak aipatuz pasatu ginituen: ean nor izanen ziren gure auzo berriak, nor gurutze-xirio, zer lur mota ziren guk beharrak.



Aitatxi, bere zizeiluan jarria, amaxi puska zaharren peratxatzen, maizenik ixilik zagotzin... Haurrak, kontent ginen saindamenduaz: eskola hurbilago heldu zaukun, iturria ere urketako, eta auzoan izanen gintuen jostatzeko gure adineko lagunak.

Holaka, supazter-xokoko solas aldiek, gure gogo-bihotzak ber jana-ritik haziz, guhaur ohart-gabeen, orre bereziz moldatzen zaukuten gure familiako izpiritua.

Aldairako itzainen hautatzea ez zen lan bat errexa. Azkenean ba, ados erori ginen, kartiereko etxalde guziera gomita igortzeko. Jendaki eta adixkidetan aldiz, laguntzerat etor zadiela nahi zuena.

Nahiz Xinkatres minberatua senditzen ginuen, jeloskeriaz, guk gureturik harek desiratzen zuen etxetiar-lekua, halere hura ez ginuela berexiko deliberatu ginuen. Merkatu-aratsalde batez, aitak egin zion beraz hari ere gomita... Xinkatres arras potrotu zitzaion, ean bazuen kopeta galdatzeko «ohoina ohointza-tokirat» lagun zezan. Ez baitziren bat ala bertzea goizeko freskuraz bakarrik haziak, zer-nahitakoak han atera zituzten elgarri... Etxean, aitaren eskualdea hartu ginuen, eta luzaz bi familiak egon ginen gurutzatu gabe... Maiz gertatzen dena da, Eskual Herrian, familiak hola samurtzea ez-deuskeria batzuentzat.

## OSABA ERRAMUN

Bertze pondu bat ere frango nekea baginuen haxean ezartzeko. Hura zen gure osaba Erramunen kasua... Behar ote zen edo ez itzaingorat galdatu? Haren emaztearekin zerbañ pasaturik, handi ginen harekin ere, zon-bañ denbora hartan.

Osaba Erramun, ez zen sortzez gu baino goragotik, bainan etxalde on batetako alaba bakarrarekin ezkondua, bi sehi laguntzeko, hogoi buru barrokian, kukuruku aise jotzen zuen.

Emaztea zuen hotxa, dena «andere faxoin», mihi eztenadun, leiza-fina motatik. Gure etxean sarpide laburrak zituen, ez ginelakotz haren mailako.

Osaba Erramun boza basa kankar batez dohatua zen... Irri alimale batez ere. Emazteak, bere urguluan, haren larrikeriez sofritzen zuen, bainan lehuntze guti zuen ardiesten, adi-arazten ziozkan oharren guziengatik. Izpirituko apainduraren eskasian, gorputzekoa bederen ematen zion. Berenaz, osaba Erramun gizon ederra baitzen, oraino ederrago egiten

zuen, emazteak soinean ezartzen ziozkan arropa balios eta artexki josierari esker.

Osaba Erramunen etxean fantesia zuten, kartiereko lehenak izaiteko lanetan. Haren ontasuneko berroek, buruen buru, plomuz eta orrazez moztuak iduri zuten. Dautzuet ez zela hango ipularretan laparrrik, ez hango baratzean belar gaxtorik.

Hortakotz, nahiz amodio baino ohore gehiago ekartzen zion, gure aitak, maiz haren lana zaukun etsenplutzat hartzen. Iraulden edo markan, ildo eta izaka zuzenak nahi zituen, eta itots-emailea abisatzen gintuen: «Tira-aizik gero behi horiek tiroa bezen zuzen. Ene lerroak kordan nahi baititiat, osaba Erramunenak bezala!»

Pesta burutan, osaba Erramun bazkariz esperantza ginuelarik, aitak, gure etxetan usaia zen bezala, jan aintzin edo ondo, ontasun eta alimale-teietan itzuli bat egin-arazten zion... Hamabortz egun aintzinetik, osaba Erramun etortzekoa zela eta ez zuela desohorerik nahi, ipularren garbitzen, berro moztzen, belar gaxto jalitzen eta behi karatosatzen ar-arazten gintuen. Guretzat, osaba Erramunen bisita zen soldado xumeentzat jene-ralena bezala.

«Nor naiz ni»-ka lotzen zelarrik, osaba ez zen bakarrik espantulari bere alde, bainan erdeinulari bertzeen kontra... Orroit naiz behin haren solas batek nola bihotza zimikatu zautan.

Gure etxean ez zen behin ere mahastirik izanik eta gure aita ez zen trebatua mahats-lanetan. Osaba Erramunek aldiz fama handiko mahasti bat bazuen, ondo zaharretarik. Bere begiko ñiñikari bezenbat atxikia zen bere mahastiarri, eta emaiten ziozkan artamendutan, bertzeak bertze, moxtean zuen bere fantesia. Aitatxik ikasiak, bazauzkan berekin mahats moxteko sekretuak, ez baitzituen urretan ere salatuko. Heien jakiteko nahikeria agertzen zioteneri: «Mahats-ondo bakotxa, neskatxa bat bezala duk! Zuen ihardesten. Bakotxak bere gisako «tualeta» berezia nahi dik!». Ez zuen beharirik ere onartzen bere ondoan, mahats moztzen lotzen zelarrik, eta, lan horren zerbitzua galdatzen ziotenek, ezetza segur zuten: «Esku bera nahi dik mahats-ondoak, landatzetik eihartzaraino!»

Beraz, urte hetan, landa-mutur batean, aitak zonbait mahats ondo landatu zituen eta berak moxtu. Primaderako itzuli batez, galdatu zion osaban, batere salatu gabe nor zen lanaren egile, ean bere mahastia ontsa moxtua kausitzen zuen... Osabak, gorapen baino goragotik, trufa batean, ihardetsi zion: «Lehengo gizonak, ahuntzak emaiten omen zizteian mahastian, mahats moztzen. Oraiko mahats-moztaile batzu, ahuntz heien pare, to!»



Dena den, eta... Itzul gaiten gure sailerat, «hobe zela geroko baten-gatik», aitik osaba Erramuni, gure aldairaz parte eman zion. Eta osabak, ohoratua, gain-gainetik hitzeman: baietz ba, etorriko zela, uztarriko hoberekin.

## SAN-MARTIN GOIZA

Goizeko zortzitarik lekorat, hasi zaizkigun itzainak etxerat heltzen. Orañ pestetan ikusgarri agertzen dituzten karrosa apainduetar bezala, begiak luzatuak hurbiltzen ginaizkoten.

Kabala guziak ziren panpalinetan eta saiel edo kalainketan, kopeta-ko itze eta kuskuladunekin... Itzain gehienek zituzten lepoan mokanes gorriak, gerrian zintak, eta eskuetan akulu apainduak... Heietarik bati, Matin Erloskori, esku-zartak jo giniozkan. Ba, egiazki ehoskoa zela Matin!... Zerbait bitzikeria muntatzeko, betitik hauta baitzen, etorri zitzaunkun galtza zuritan, orga-altzoan zutik, bere behiak gidatzen zituela soka batez, zaldiak bridatik bezala. Aintzineko tentearen gainean ezarria zuen lore-buketa bat, eta bi falkatsuetan (erruda-xapelak), bazituen lerrotatuak, kolorezko xingola batzu... «Bide, bide eni! Ari zen oihuka. Ni naiz Naparrako erregea!»

Azkenik etorri zen osaba Erramun. Gutarat hurbildu aintzin tarte gorde batean egon-aldi bat egin zuen, segur azken torratze bat emaiteko bere idi eta orgeri.

Ha, osaba Erramun! Bere eder eta muntadurez, agertu ordu, bertze guziak itzali zituen. Haren apaindura zintzoen aldean, bertzenek ergel iduri zuten. Harena urretik, bertzerena girigileriatik.

Bera zen sekail eta zut, erdi-igandekari bezitua, ezpartin zuritan, atorra-gaineko botoina idekia, gapelua xurrutean, mizpirazko akilu koroplodun bat, bere puntako ditare kobrezkoarekin, bizkarrean zekarrela.

Idiak zituen, ez handi kankail, bainan ez ere koxkor, ontsa paretuak, borts bat urtetakoak, gizen bainan segorik gabe. Ileak karatosaz eta olio lehun dirdiratuak zituzten, zango-behatzak ezkoz ziratuak, adarrak ozpinarekin eskoilatuak. Uztarri-estalgia zuten beltza, zabalez eta zamaz aberats, azken ile-alditakotik. Uztarri-hedeak estreinak, laura itzuli emanik, beren mutur ezpartxatuez ziren adarretan gora biribilkatuak... Urkidea fermu, ontsa bildua, gorrasta, toleta beltz batez marratua. (Urkidea deitzen dugu hedezko uztarri-burdina). Panpalina zilarrak eta lepo-uhalak,

Espainiako jauregitako mandoenetarik. Orgek ez zuten apaindurarik, bainan eder ziren berenaz. Garbi ziren, tintatuak kolore sanoz, pertika (timoia), maxterrak, farak eta gain guzia, perdez, errudetako arraio, haxaburuak eta zatiak, gudron beltzez. (Zatia deitzen dugu ferraduraren azpiko egurra).

Ez dakit maleziarik gabe edo trufaz, osaba Erramunek bere idiak gelditu zituen Iexuxen behien aldean; bainan dautzuet heiek ez zituela holaz ohoratu... Gaixo Iexuxen behiak! Heientzat urte guzian garizuma zen... Hasteko, Iexux-baitan, denak, aita, ama, haurrak, behiak, xakurra ere, hezur eta larru ziren. Gure amak zion, jateko sustantziarik ez zutela etxe hortan «baxakana janez» bizi zirela. (Baxakana deitzen dugu elorri beltzaren fruitua).

## GURE ARTEAN

Itzainak lotu ziren beraz karga-lanari. Egia erran, frogatua baita hiru aldairek su batek bezainbat desmasia egiten dutela, aintzinetik guhurrez garreiatuak ginituen etxe berrirat puska hauts-errex eta baliosenak. Halere, bazen zernahi kargatzeko, ezin-sinetsia baita, zoko guziak harrotuz, zonbat gauza ez diren ateratzen, frango uste-gabeakoak eta bazitazkela ere ahantziak.

Aldairako, aitik haur bakotxari emana zaukun gure kargua. Batek behar ginuen ama lagundu, bertzeak xahakoa itzainetan kurritu... Nik, fagore berezi batez, betroin ttipia behar nuen sokatik ereman.

Gure etxean, heia-buruan, bazen behi betroinki ttipi bat: Bettoina ginuen deitzen. Ez zen baitezpada zaharra, bainan esne emankorraz higitua, bizkar-makila triparen kargaz uztaitua, errapea abantxu herrestan, zango-behatzak idorraz arrailduak eta gantzolaz gabetuak. Bainan halere, haurrek arras gurea ginaukan Bettoina. Titi lehun eta gure ahurren heinekoak baitzituen, behi prestua ere baitzen, harekin ginituen gehienik eginak gure deizteko apendizgoak.

Bainan, ez ginen etxean denak sentimendu beretan, aldairako goizean... Gure amatxi, argi-zirrintzako, betikotz etxe zaharretik urrunduz, bakarrik eta mutu, esku batean zaukala makila koxkor bat eta bertzean... suko neskatoa. (Suko neskatoa deitzen dugu laratzatik dilingo ezartzen den untzien pausa-lekua).



Aitatxi aldiz, itzainak abiatzean, jarri zaukun, etxetik hurbil ginuen gisu-labearen aintzineko soropilan, eta han egon zen goiztei guzia, neho-renganat hurbildu gabe. Denek errespetatu zuten haren barneko iluna. Ez dakit noiz zen xutitu eta handik lekutu.

Batek eta bertzeak egun multxo bat eman zituzten eskarmentatzeko.

## BIDEARI LOTZEN GIRA

Eguerdiko etxea hutsa zen, orgak oro kargatuak. Apairuxka bat egin ginuen bideari lotu aintzin.

Etorri zelarik tenorea tokien husteko, Mattin Erroskok baitzituen sekulako su-panpak, menttatik ekarriak, hetaz airea bonbardatu zaukun. Gizon guziak orduan, hasi ziren oihu-irrintzinaka inguruen abisatzen: «Ai, ai, ai!... Bagoatzil!» Ziotelarik. Gure etxe-bixkarretik harrabotsak urrun hedatzen baitziren, auzoetako irrintzinak gureeri erreferaka entzun ginituen.

Ha! Zer proosione ezin-ahantzia, gure aldairakoa! Hamar bat itzain, lerro-lerro, denak kantuz, irrintzinaka eta zahakotik tragoka, Mattinen su-panpen, panpalin-xilintxen eta orgen kirrinken artetik!

Aro ezti bat ginuen, guk behar bezalakoa.

Bideko ziloen berdintzen eta sasien mehatzen ari izanak baiginen egun hari buruz, gure pasa-tokiek iduri zuten gure pestan partzuer!

Bertzeen artean, ene Bettoina sokatik, lerroa segitzen nuen. Errege baten ohorezko zaldi-zaina ez bide da bere buruaz hain fier, nola bainintzen ni eneaz. Nehori ez bainion, urretan ere, ene ordaintza salduko.

Aitak erakutsia zautan, kabala bat estekan joaitean, korda behar zela laxoan atxiki eta ez sekulan biribilkan edo soka-lasterrean. Kabala erotzen bazen ere, harek herrestan joaiteko lanjerarengatik. Gaixo betroina! Ez dut uste erotzeko irriskutan zen. Galtzarte zabalka kurritzen zautan, bere errape handia ezin moldatuz, eta urratsak dudaka, zango-behatz herbailengatik... Halere, izan zitakenaren ohorea ekarri nion, aitak erakutsi bezala, soka laxoki eskutan atxikiz.

## ZUBIKO PATARRA

Bainan berantetsirik nago, Zubiko patarran gertatu zaukuna kondatu nahiz. Patar hori zen laburra, bainan zuta eta harri idorrez galtzaratua. Itzaintzat zen leku hauta beren kabalen entseiatzeko.

Horren zolarat jin-arau, itzainek geldi-aldi bat egiten zuten, heien aintzinekoa kaskorat heldu artio. Gelditze hartaz baliatzen ziren, ez bakarrik kabaleri hatsa emaitako, bainan ere, nundik eta nola jokatu ziren patar hartan, planen hartzeko.

Lehen lau-bortzek, aise edo nekez, partida irabazia zuten, noiz eta ere Paskual Larrebordakoaren saindea etorri baitzen bide zutari lotzeko. Paskual zen gizon lodito bat, hedadura ttipikoa, kexa-errexka, eta astoa baino kasko gogorragoa berearen alde... Frangotan, ostatuan, buru-muntzailek gontzatarik jali-arazten zuten...

Uztarriko behiak tirariak zituen, bainan ez berak uste zuten bezenbat, itzaina zelakotz. Behiak zituen, tokiko arrazatik, ogi bihi koloreko. Ezker-erak zezenaren eite zuten bere lepo eta bularrez. Adar labur, punta kamuts batzuekin zen eta haren gorputzak iduri zuten dupela bat, lau pazota azkarraren gainean pausatua. «Katxakar» zuten izena... Hitz horrek, gure eskualdean, erran nahi baitu «zalapart», edo holako zerbaite.

Behi eskuina berritz hezurrez larrixago zen, adar luze batzuen jabe, galtzez eta bularrez meharrago. «Jikutri» deitua zen, dena malezia zelakotz uztarri lanetan.

Beraz Paskualek, apur bat deskantsatzerat utzi ondoan, bere kabalak manatu zituen.

Itzainak ingururat bilduak ziren, patar hura baitzuten beren arteko izarien hartzeko toki ezin hobea... Paskualek senditzen zituen ofizio bereko lagunak begiak bere gainean pausatua. Ez zitaken julari garratzagorik, eta, haren itzain-ohorea kuxa ala pil zen, memento hartan. Ahatik, berak ez zakiena, hauxe zen kargariak ari izanak zakkola saka ahala saka puska pisuenetarik, eta haren orgak, bertzeenak baino zombait kintalez gehiago zirela.

Manamenduan, Paskualek adarretik zituela, bi behiak laparra bezala lotu ziren patarrari gora, zango burdinak sutan, xinkako batez bururaino heldu nahizik. Bainan erditsutan gelditu ziren harri batek erruda bat trabatuturik. Paskual entseatu zen zeharka malobratzerat, bainan bigarren arruda sartu zitzaion ziloka batean eta han kalatu, debruak berak ez ateratzeko gisan. Manatzen zituen ba kabalak, batean adarretik, bertzean





errudatik lauzkatuz, batean goxoz eta lausenguz, bertzean orroz eta zafratuz, bainan debaldetan.

Beren pestan ziren sahetseko itzainak. Dautzuet ez zuela Paskualek aholku eta arralleria eskasik: «Ixringa duk ez aski largatua!», «Zer dituk behi horiek! Hetikak?», «Nahi duka salboin-puska bat haxarentzat?», «Emoi-tzioztek mando-uliak gibeletik! Hik baino lan hobea eginen ditek!»

Osaba Erramunen boza ozen, larria ere adi zitaken: «Hum! Holako behi kokkorreri, ez orgak, bainan eskorgak!»

Denetarik ozarrena, «Xerxebrui» zen, bere boza kalaxka txarrak pozoinaren aurtikitzeke: «Ekar-zkitzue hunarat bizpahiru biper gorri, behi eta itzain txar horien norapeit atzartzeko!» Edo oraino, nihundik ere Paskualen kabalak pertikatik nahi zituen kendu, heien ordain Iexuxen behi hamikatuak ezartzeko. Ez zitaken afruntu minagorik Paskualentzat.

Bizkitartean, gaizoak ez zaukan zalaparta eskasiarik... Hastapenetik, bi behiek borondate ona erakutsi zioten; bainan, Jikutri laster oharturik indarren debaldeaz, zikanaka hasi zen... Batean, begitarat emaiteko Katxakarrek baino indar gehiago fornitzen zuela, muturra luzatzen zuen aintzinarat, bainan uztarriaren marraz gibeletik zela seinale zuen... Bertze batzuz, Katxakar trabatzen zuen, hura beheeretik lotzen zelarik, bera goratik ariz, edo desberdinka tiratuz, edo oraino, trebeska eta lagunari pusaka indar eginez. Biltzen zituen ba akilu-kaska eta ziztako on batzu, ez baitzuen itzaina enganatzen; bainan Katxakar ez baitzen goxokiago tratatua, ez zuen arrazoinik hobeki gobernatzeko, ontsa zabilana ez zenaz geroz makur zabilana baino saristatuago.

Gaizo Katxakar! Haguna darioan, muturra lurrari sartua, belaunka eta guziz, azkenekotz marruma batzu jaliz, jokatzan zitzaion... Ondarreen, etsiturik, ez bat eta ez bertzea, ez ziren lekutik kantitzen... Izaitekotz ere, «be» manatu-eta, «arre» zuten egiten.

Halere, Paskualek, bere kasko gogorrarekin, ez zuen amor emaiteko aipurik... Dolutu behar zitzaion...

Indarka ari zelarik, harri bat ezin jaliz orga-arrudaren libratzeko, ez zena, gaizoa, itzulipurdika erori! Dautzuet, haren tirabirakoak ez zituela itzainen mihiak lehendu: «Zer haiz, to! Ziminoan?», «Galtzak zikindu dituk gibeletik, to!», «Zer duk! Xatarra bustia?»

Hortan, Paskual ondarra burutik galdu zen. Seko errotua, arneguka katixima beltzenekotik, akiluz eskainka, bilakatu zen ezin atxikia.

Hein hortarik harat, irakinak gaintzeko irrisku baitzuen, gure aita eztiki mintzatu zitzaion: behien aintzinean eman zediela; denek pusaka

gibeletik lagunduko zutela... Hala zuten egin, eta karga airoski patar gainerat jali.

## ETXE ZAHARRARI ADIOS

Deskargak bururatu-eta, puskak etxe berrian berritz muntatu tenoreko, ilun nabarra zen. Orduan, bi haur ttipienak ohartu ginen gure sukaldetan eskas ginituela jostetako lagun maitagarrienak: gure gatuak. Biga baginituen arras eskutakoak: ama ume batzu... Ama, hiru koloretakoa, begi gozo batzuekin, xori-ihiztaria zen lehena, bainan ere pereka-gosea eta altzokaria... Umea berritz, zimino iduri bitzi bat, dena zalapart eta josteta, nehun ezin egona.

Beraz, gakoak harturik, itzuli ginen bi ttipiak, gure etxe zaharrerat, gure adixkide gatuketarat... Atea ideki-eta, ez baitzen gure etxean elektririk, bihotza pilpilka ginen sartu barne ilunetan. Lotu ginen gatuak dei eta dei... Bainan heien orde, sagu eta marmaluek zaukuten tauletarik ihardesten, kraska xehe batzuz, eta ere, haizeak, ate-lehiotako kirrinken intzinaraz.

Harrabots horiek entzunez, gogorat jin zitzaizkuz aitaxiren supazter-xokoko lamin eta arima herratuen ixtorio latzak. Hunkitzez bezain ontsa senditzen ginuen, gure familiako aingeru eta arima gerizatzailak ez zirela gehiago barne hetan. Heien orde, etxerik gabeko izpiritu pasaiant batzu zirela han, apur batentzat kokatuak, buhameak bizitei hutsetan egiten diren bezala, handik jabek kasatu artino... Ikaratuak, eta gaturik gabe, urrundu ginen gure etxe zaharretik, eta, utzi lekuarentzat, ondoko egunetan, ez nuen ene baitan, deus penarik senditu. Izaitekotz ere beldur mixteriozko bat.

## XINA, GIZON AZKARRA

Etxe berrian, itzainak jaten ari ziren, gu itzuli ginelarik. Mahain muturrean «gizonekin» jateko ohorea ardietsi zautan aitak amarenganik: «Ba, gizonekin jatea merexi du, gizon bat bezala baitu gobernatu Bettoina!»

Itzainak jada harrotzen hasiak ziren eta zoin goragoka mintzo! Gizon azkar bat zuten aipu. Nor ote zitaken gizon hura? Nik ez dakit... Xina ematen zioten izena.



Batek erran zuen harentzat, halako errespetu beldurtsu bat erakutsiz: «Hemengo bakarra duk, beharrian erreztuna ibiltzeko dretxoa duen!»

Bertzeak segitu zuen: «Behin gizon horrek, Constantinople hiri guzia harri-arazi omen zian. Nik ez zakiat nun den Constantinople; baina han omen dituk gizon azkarrak. Eta han omen zian gizon borrokari, nehorik ezin bentzutu bat. Borrokari hura, ari baitzuan nahaskeria eta denen desafiatzen, Xinak zian hartu buruz-buru, han gertaturik untzitik jautsia. Eta nahi-t'ez, Xinak borrokari hari muturra bihurtu eta amor galdearazil!»

«Bai, hori baino gogorragokoa egin omen dik berrikitan, zuen atera hirugarren batek. Senpere alde hortako gizonik azkarrenak nahi omen zian Xinaren indarra frogatu. Xina ez baitzian ezagutzen, jo dik hari buruz, behar zuela ikusi. Tokirat hurbildu-ta, hautematen dik gizon bat goldearekin iraulden ari, eta galdatzen zio: «Barkamendurekin adixkidea, badakizua nun den hemen Xina delako gizon azkarraren etxea?». «Ba, badakit», zion ihardetsi goldelariak, kopeta zimurtuz... Eta esku muturrean, makila koxkor bat bezala, goldea altxatuz, harekin zion erakutsi: «Horra nun duzun Xinaren etxea!» «Senpere aldeko gizonak, hori ikustean, ez zioian gainerateko xehetasunik galdatu, baina airoso bere etxerat zuan itzuli han beretik, eta ez omen dik gehiago Xinaren hautemateko gutziarik!»

Ni, loriatua nindagon holako istorio harrigarrien entzuten. Baina Xerxebruitek ez bide zituen aski biper minez onduak kausitzen. Hortako, bere ahuntz bozaz, denak baino goragotik, lotu zen kozinaren pizten: «Xina bezalako gizon bat izan baginu, zuen erran, orgen tirari, Paskualen behi txar horien orde, ez ginian egun hoinbertze denbora galduko Zubiko patarrean!»

Mintzatu bazen, gaizoa, nunbait mintzatu zen! Paskual han baitzagon, orenak hartan, hitzik jali gabe, potroz hantua, jasan afruntua ezin diserituz, supindartu zitzaion.

Sakreka, hitz larrika, jo eta errefera, biak mitrallezian bezala hizketatu ziren.

Bazterretik nehor ez zitzaioten arterat sartzen, salbu Iesus, eta hura ere, ez heien ezititzeko, baina heien erran berduren gaitzesteko.

Jada aipatu ditut Iexux eta haren etxeko garizuma. Bera zen gizon «itxuxi» bat, lausoa eta sudur zut luze batez lurra miratuz, kurritzen zuena. Se-ka mintzatzeko orde, xe-ka mintzo baitzen, ez zuen Jesus erraiten, baina Iexux. Hortarik zuen bere izen-goitia. Ez zuen ez ostarurik,

ez piparik. Holako hirukin, bat et'erdia gizon... Nago nola emazte bat bildu zuen.

Dena den, konpainian, Iexuxen ele bakarrak ziren, aldekoek tanto larri batzu botatzen zituztelarik, erraiten zituenak, bere asalduraren agertzeko. Ele hek beti bertsuak: «Iexu, Iexu!... Ixiltzago! Hori xobera da!» eta holako. Erdi ahapetik jalitzen zituen, xixtuz bezala, baina elizako litanien ondotik «ora pro nobis» bezain segur, litania beltz bakotxaren ondotik, Iexuxek aterako zuen bere errepeka.

Itzul gaiten gure itzain kalapitalarietarat: «Nahi dukana pariatzen deat, zion Xerxebruitek Paskuali, ene bi behiak buztanetik estekatuz, soka tiran, hire bi uztarrikoeri nausi direla!»

«Bai, estekatzen ahal dituk, zion ihardetsi Paskualek, hire behiek buztanetik eta ere...!»

Ez nion bururatzeari konprentitu, baina gaitzeko irri-karkailak jali zituzten afaltiar guziek.

Eta, ez dakit zertako, gure aita betbetan berebaitatu zen, ni sobera nintzala mahain hartan, eta amari oihuz erran zion: «Haur hau joan-azu otoi hemendik!» Dautzuet ez nuela onartzen, aita ohorezki «gizonen erdian» jar-arazi ondoan, berak handik, apur baten buruan, ni despeitza. Beharrik amak ez zuen entzun aitaren oihua, edo bederen ez entzunarena zion egin.

Bere erreputaz Xerxebruit zafraturik, eta, irrilarriak bere alde emanik, Paskual norapeit deskantsatu zen eta eskarmentatu.

## NOLA IHAURKIA JAUTS

Bertzela ere, solas berri bati zoazin gehien beharriak. Itzain batek zion, Harri-mendiko malda gaxtotarik, ihaurla jaustea errexago zela gurdiz ezenetz-eta leraz. (Gurdia da orga ttipi, erruda bete... Lera, herrestan garreiatzekoa).

Gurdilariak zioten, hango toki harkadetan, lerek, tornu bat gabe, galduko zituztela beren zola eta kokotsak, aldeak higatuko ere, gurbatoina jo artino.

Lera baliatzaileek zioten aldiz, urrats guziz, hango patarretan, gurdia irauliak izanen zirela.

Xerxebruit, ixtaño bat hartan ixilik zagon... Handi baitzen harentzat. Noizbait ba mintzatu zen, apuñatik, erraiteko, haren arabera, ez gurdia,



ez lerak pits ez zutela balio Harri-mendian, ihaurkiketako, bainan hobere-  
rena zela arbazta bat urkamotzari lotu-eta.

Ahoa ideki bazuen, ideki zuen... Denak kontra lotu zitzaizkon eta  
ozarkienik, bixtan da, Paskual. Solasak laster joan ziren lehunik azka-  
rreterat eta azkarretik kankarreterat... Gaixo Iexuxek izan zuen berritz ere lan  
litanieri ihardokitzen, eta berritz ere aitak pena egin zautan, oheko teno-  
rea nuela amari orroitaraziz.

## EMAZTE-SOLAS

Ura, xirripatik errekarat bezain segur, solasak, indarkako aipamene-  
tarik, emaztekilakotarat behar zuen jautsi... Ez dut hori erraiten Eskual-  
duna holakoa delakotz, bainan egun hartako konpainia, gisa hartakoa  
zelakotz.

Beraz, norbaitek aho-pazka berria furniturik, Gorgorio Menttako  
nausiaren kofesioa egiten ziren hasi: Espainia barnetik etorria zela, beha-  
tze zuriega zuela bide oneko gizona izaiteko, bi emaztekin bizi zela.

«Emazte» hitza entzun orduko, ene ondoko gizonaren beharriak  
tente jarri ziren. Pitsik ez baitzakien itzaingoaz, gaizoa, ahoa hetsirik  
egona zen ordu artio. Bainan, emazte gobernuan bazituen petrentzio-  
neak, eta hortaz saila idekitzea haren eremutarat sartzea zen.

Hal Ez dut ahatik oraino aipatu, nor zen delako ene sahetseko gizo-  
na! Gallego zuten denek deitzen. Eskuaraz bazakien, bainan, «pero» eta  
«si»-ka gure hizkuntza espainolarekin nahastekatuz. Donadoa, aspaldian  
Frantzirat lanerat etorria, gure etxe berriko auzoan zen pentxioner, eta  
bere laguntza eskainia zaukun aldairako.

Gorputz labur gotor baten jabe, adin gordinetik urruntzen ari,  
larruz hauts kolore, haren arpegiak «mutur motz» egiten zuen, bere sudur  
lehertuarekin.

Edan gaxtoak baitzituen, moldeak larri, mihia ere lizuna, ez zuen aitak  
nahi, haurregatik, sobera gurutzamendu izan zezan gure familiarekin.

Beraz Gallegor, emazteak aipatzearekin, arpegia argitu zitzaion,  
behakoa piztu eta sudur-hegalak, plazerrez, daldaraka lotu.

Nolaz ba, zarioten itzainek, Espainian onartzen ote zuten, Gorgorio  
mentteroa bizi zadien bi emaztekin? Ez zirena Espainiako buruzagiak  
errotik katolikoak?

Gallegok, mugaz bertzaldetik jina zelakotz, ez zuen nehorenganik  
erakaspelik hartu nahi Espainiako harat-hunatez. Berehala eman zuen  
beraz bere jakitatearen berri: «Ba, Espainian hola duk: Biba dios! Oihu  
eginez geroz, oro, haizu dituk. Hango erregea, munduko katolikoena  
omen duk, bainan zazpi emaztekin bizi».

«Zer debrutako ditik zazpi emazte?» Zuen galdatu osaba Erramu-  
nek.

Ene haur izpirituan, galde hori bera jina zautan gogorat. Ene baitan  
ari nintzen, dudarik gabe errege horren etxean hainitz lan bazitakela, eta  
emazte bat behar zuela kozina egiteko, bertze bat lisaketentzat, hiruga-  
rrena oilo pazkatzeko eta hola...

Bainan badut uste itzainek ez zieten emazte heieri enplegu bera  
emaiten. Hala iduritu zautan heien solasetarik. Gallegok eta Xerxebruitek  
hizketa-tari bat gaitza egin zuten buruz-buru... Xerxebruit, Espainiako  
erregearen alde zen eta «idi»-en kontra. Gallegok aldiz, nahiz ez zuen deus  
konprenitzen kabaletan, jada erran dudak bezala, halere idiak gain-gain-  
tik goresten zituen...

Noizean-behinka, errefera baten ondolik, mahaineko jale guziek irri  
alimale batzu largatzen zituzten... Nik ere ba heikin, beren alegeraz  
kotsatzen baininduten... Bat ginuen, gure zorionaren erdian, beti kexu eta  
ilun, eta hura: Iexux! Solasen izaria hartzeko erregea, arrunt nahasia, pun-  
paka ari bide zitzaion. Hala iduritu zautan haren grimas eta asaldaduratik.

Ez dut aipatzea beharrik, berritz eta berritz ere, oherat manatu nin-  
dutela. Ene kokorrean, minberatua nintzen jende larrien kontra. Ez  
nezaken konpreni zertako zuten halako aiherkundera enetzat... Zertako  
heien irri karkaila larriago eta aita minberago mintzatzen zautan, lo-egite-  
rat joan nadien.

## GALLEGOREN SEGIDA

Luzaz beretik artzea akitgarri baita, noizpait gure gizonak, deskant-  
saturik edo deskantsatzeko, kantuz hasi ziren.

Afaria ere bururatuxea zuten eta zerbitzariak jar-xutika zabiltzan.  
Hetarik bat zen mutzurdin gordin bat, boza idor batekin, jitez gizontsa,  
sasi-peko moldetarik egundaino guti jalia.

Ez dakit, arats hartan entzunegatik edo nolaz, Gallegok betbetan  
senditu bide zuen bakarrik bizitzaren pisua... Gizontsa hura bere ondo-



an jar zadien, plazerrekin onartzen zuen, begiz perekatzen zuen, solas lehun eta zintzoz inguratzen.

Ene haurtasunean, halako bitzi bat kausitzen nioten heien goxokerieri, hain baitziren bat eta bertzea, usaiazki, larri eta hezkaitz.

Dena den, eta erran baita ez dela uztar ez ditaken migarik... biak ezkondu ziren.

## MIXTERIOAREN FRUITUA

Holaka, gaua han joana zen. Ene haur begiak pisutu ziren eta ene burua agurka hasi. Amak goxoki eskutik hartu ninduen eta oherat ereman.

Biharamunean etxeoak kontent ginen... Aldaira ederra egin ginuela... Gizonak berotu zirela, bainan nehor ez «pasatu», eta nehor ez kolpeka ari izan... Bertzalde, pesta horren orroitzapen eta ondorio ohoragarri, hor izanen zela: ezkontza baten abiadura.

\* \* \*

Kondaira huntarik asko erakaspen jali ditazke haurren altxatzeaz, eta ere Eskualdunen jiteaz... Ene mixterioaren fruitua, hau izanen da: Ha! Berritz haste balitz!

*(Gure Herria, 1959, 81-96)*

## PARISEN IZAN GIRA

Nehork ez ginituen sinetsi nahi Pariserat ari ginela hiruak... Hiruak, erran nahi baitut: Manez Arotza, Piarres Zikitero, eta ni Anton Ziri.

Gure alaba tipien horrek baititu zazpi izpiritu, ez daukuia, kazeteta-ko zoin-nausika batean, lehen prima beretu! Eta, irabaz-sari ukan ditu bi billet joan-jin, Baionatik Pariserat.

Berak ez baitzuen batere Pariserat jotzeko tirriarik, jada han egona duzu-ta sehi, sahetsetik salatu diot: «Ekaitzin, no, bi billet horiek!... Nik baliatuko ditinat!»

«Baietz ba, gogotik!»... Eta horra nola, igandean, meza ondoko salda edanez, gorago aipatu hiruek, deliberatu dugun Pariseko itzuliaren egitea.

Pariseko feriak zirela-eta, Manez Arotzak nahi zioten oraiko tresna berrieri beha-kolpe bat eman.

Piarres Zikiterok desira bat zuen bakarrik; nunbaitik baitzakien, Pariseko ferietan agertzen zela abantxu sei kintaletako urde aketz bat, hura nahi zuen baitezpada bere begiz ikusi.

Ene tirria zen aldiz, Parise bisitatzekoa, ez bainintzen behin ere han izana.

## GURE ARTEAN

Beraz elgar aditu ginuen holaxet: Manez Arotzak bere piaia pagatuko zuela, eta jana salbu, hiruen Pariseko ibillerak haren gain izanen zirela. Piarres Zikiterok bere moltsatik fornituko zaukula Pariseko mantenu guzia, eta bereziki, bazkari on bat, hotel tarro batean. Ene gain hartu nituen Piarresen eta ene treineko billetak, eta ere, denen bideko janaria.

Gure xedea zen, aratsarekin treina har-eta, biharamuna Parisen pasatzea, eta ondoko gabean berritz hunarat itzultzea!

Nehork ez zuen sinetsi nahi gu bezalako hiru «artxero» zahar, Pariserat joaiteaz zinez mintzo ginela... Bakarren trufa eta arralleriak entzuen ginituen egun hetan, gure etxeoetarik haste!

«Bon, bon... Purga zaitela!»

Bideko muntatu nuen otarre koxkor bat, ziri batez tapakia lotzen zaioten hetarik. Otarre hartan, hiruek maite ginituen gauzetarik ezarri



nituen: xahako bat arpo, zardin zahar batzu, gasna bat ontsa ondua, jada harrek jaten hasia, eta bertzeak bertze.

Eta, etorri zelarik orena, airoski, makila ferratua esku batean, otarrea bertzean, etxeko pentzea beheiti jautsi nintzen.

Garan harrapatu nituen bi lagunak Manez kexu zen, ez zuela bizarra ontsa kentzeko astirik ukan. Piarres ere kexu zen, bere bide tarte tzarretan, zapatak buztinaz zikindurik.

## TREINEAN

Ez eni galda zer ikusi dudan treinetik! Gaua zen, lehioak hetsiak ginituen; garetan guti ginen gelditzen; eta beraz treinez pitsik ez dakit, krinkrank harrabotsa botatzen zuela baizik, eta xixtu mehe batzu artetik.

Gu hiruen konpainiarat jende guti sartu zen hastetik, eta geroxago, nehor ere ez... Ez dakit zertako, batek ere ez zaukun agurrik egin, ez sartzean, ez jalitzean. Batzu, atetik so bat eman-eta, grimas batekin urruntzen zitzauzkigun, alimale lanjeros batzu izan bagine bezala. Gaizki ikasi tzarrak!

Gizon bat eta bi andere adineko baitziren gurekin, jatekoen otarrea idekitzean, ahamen bat eskaini ginioten heieri ere, jendetasunak galdatzen duen bezala... «Ezet! Eta ezetz!» ukan ginuen erreputa. Gure gasna eta zardin zaharrak senditurik naski, bi andereak kanporat ihesi joan ziren. Gizonak ere ez zuen gure artean luzaz iraun, «belar berritik» lotu ginelarrik pipatzen... Pipa-belar berria kaltekor izan behar da zombait jendeentzat, pipientzat bezain.

Bertzalde, ez zen harritzeko nehor ez baitzitaken atrebi gure arterat, Manezen lo-zurrunga entzun-eta. Ho! Zurrunga hura!... Nik ez dakit gizonak nola jali dezaken holako burrunba izigarria, bere burua xahutu gabe, edo bederen atzarri gabe. Manez Arotzaren hatsak bere abiadura han hartzen zuen, nunbait, triparen behereko zolan, eta, noizbait, xixtu batekin, gaineko ximiniatik jali artean, bizpahiru harrabotsa-mota imitatzen zituen: itsasoaren orroa, arima herratuen kadenen azantza, lehertzen ari den harrobiaren arramantza. Debruak berak ez lezake begirik hets, holako arrosario-erraille ikaragarriarekin.

## LEHEN URRATSAK PARISEN

Parisen, Manez ginuen bertze biek gidari. Berak zion ez zela bi begiak itsuturik ere galduko hiri-kapitalean. Alabainan, hango ferietarat jiten zen urte gehienez. Aski ginuen beraz hari jarraikitzea.

Loriatua nindagon behar nintuela begiak bete Pariseko ikusgailu famatuez. Behazue hortik! Manezek, zilo batetarat sar-arazi gintuen, garatik jali orduko... Satorra bezala han ibili gintuen treinean, lur azpiz. Gure deitzeian ardiak ez dira hain tinki ezartzen, nola baiginen jendeak trein hartan. Ene makila han nuen trabako eta, ez dakit, otarrea nola ez zautaten lehertu. Bertzalde lurpe hartako bafada bero usainduak barnea arras nahasi zautan. Ez nintzen nahi bezain laster atera lur-pe hartarik. Jalitzeko ere, berek kurritzen duten eskaler botiga batzuetan behar zen iragan. Doietarik ez nintuen han muturrak hautsi. Beharrik makila han bainuen hirugarren zangotako.

## FERIAK

Manez ez zen batere gizon bera Parisen eta herrian. Han, iduri zuen debruak hartua. Ez bakarrik harek, bainan Pariseko jende guziak ere... Denak lasterka dabilta hiri hortan, jo eskuin, jo ezker, gure bihiteian saguak bezala. Beren bisai zuri, larru tiratuekin, iduri dute orok aita eta ama galdu berri dituztela.

«Manez gaizoa, hago ba emeki! Haugi hunarat! Zorta bat edan behar diuk eta ahamen bat jan!» Ba zera! Manez, itsu mutu bilakatua dugu, eta gainerat lasterkari... Eta guk hari jarraiki behar, ez galtzeko!

Hortako ez eni galda zer ikusi dudan hango ferietan. Bazen zernahil... Jorrai koxkorretik arto biltzeko mekanikaraino. Begiak bixta-ahala, zangoek kurri-ahala, baziren mila tresna-mota, eta mota bakotxetik mila. Nunbait ari dira lanean horien guzien pentsatzeko eta obratzeko! Gure etxetan balitake tresna horietarik zombaitentzat leku, bainan, buruko ileak xutitzen zauzkitzu ordean, horien prezioa entzun-eta!

## EGUERDI

Eguerdi jin zitzaunkun kasik ohar gabea. Piarres Zikiterok berritz ere aipatu zaukun bere sei kintaleko aketza. Bainan, urrun zen alimale feria. Barneak ere kurrinkaz ari zitzaunkun. Elgar aditu ginuen, oro utz-eta, bazkaiterat joaiteko. Bazkari pagatzaileari orroit-arazi ginion: zor zaukula gero bazkari bat ona.



«Baietz eta baietz!». Manezek, berriz ere, bere sator-trein tzar hartara sar-araizi ginituen, eta han atera ginen, nik ez dakit nun.

Hainitz urrats gabe, aurkitu ginuen itxura oneko hotel bat. Zoin zitaken salatu nahi dutalarik, lehenik «gure Medor» heldu zaut gogorat. Ozka hortarik bainaiz bakarrik heltzen ahal hotel haren deitzionerat: «Messidor» zekarkan izena.

Sartu ginen beraz «Messidor»-eko sala ziratu eder batetarat, Manez Arotza, bere bizar gaizki kenduarekin. Piarres Zikitero bere zapeta zikinekin, eta ni, Anton Ziri, otarre eta makila eskuetan.

Zerbitzari jaun bat, goratik arropatua, ile kroskoil dirdiratuekin, aintzinerat jin zitzaukun, galdeka ean ez ginenetz atez tronpatzen... «Ezetz! Ezetz! Zion ihardetsi Piarresek... Dirua baginuela gero!»

Eni nahi baizauzkidan otarre makilak eskutik kendu, altxateian ezartzeko: «Bego horiek enekin», nion erran! Eta ene puskak mahain-azpian sartu nituen.

Gora ginen mintzo, eskuaraz, gure larrekian izan bagine bezala. Piarres Zikitero han ginuen kontseilari: «Jar eta jan dezagun deskantsuan, etxean bezala! Dena faxoin diren horiek, ez die berdin gu baino gehiago balio! Ez beldur izan kanporat igorriko gituztela!... Hemen bertzetan bezala duk: dirudunak oro barka ditik!». Ator mokastea aipatu ginuen, bainan ez ginen hortaratu, frango fresko baitzen barne hartan.

Gure zerbitzaria bere lagun bati entzun nuen ahapetik erraiten: Turkoak izan behar ginela... Irri-zafla bat espakatu baitzautan hori entzutean. Gerla-denboran gertatu bainaiz Turkoekin, arrazoin zuen zerbitzariak, Manezek, bere muztatz berduratuekin, Turkoen eite zuela. Ez ginuen, bixtan da, salatu nungo arrazatik ginen.

Bazkaritako zer-nahi ginuen hautatzeko, karta ekarri zaukuten. Orduan irri egin nion Piarres Zikiterori. Alegia holako moldetan usatua, sakelatik jali zuen xixku zahar bat, kartoinezkoa. Haren barnetik, luneta batzu, burdin zurizko muntadurekin. Eri-behatz beltz alimale batez lerroak kurrutuz, irakurri zituen karta-hartako eskaintzak. Hetaryik batek zion: «Alouettes sans tête», «To, allaudak!... Allaudak jan behar ditiagu!», zaukun atera Piarresek.

«Baietz ba, ados ginela!». Bertze xeheteria batzu ere manatu ginituen, bainan bakotxarentzat hiru allauda, hetarik nahi baiginuen egin apairuaren zimendua eta gormantza.

Zerbitzaria harritu bezala gelditu zitzaukun gure hautuaz, bainan ez baiginuen duda-mudarik, galdatuak ekarri zauzkun. Laster ohartu ginen ahatik, ekarri zaukun haragia ez zela xorikitik, bainan aratxekitik.

Piarres Zikitero oldartu zitzaion zerbitzariari, ean gutaz trufatzen zenetz, allaudatzat aratxekia guri mahainean pausatzeko! Jendetasunekin bainan fermuki, zerbitzariak ihardetsi Zion Piarres Zikiterori: «Alouettes sans tête» horiek, ez zirela «Allaude buru motzak», bainan aratxekia xin-garrez inguratua eta erdian farzidurarekin.

Zerbitzariak ez ginituen beraz enganatuak. Ez ginuen, ukana ixil-ixila jatea bertzerik... Ona ere zen ahateki hura, eta hortaratu ginen.

Bazkaria bururatzeko, holandes gasna gorri teteletik zaukuten ekarri. Beharrik, han bainuen ene otarreko!... Otarrearen idekitzeaz baliatu nintzen ere, xahakoa handik jalitzeko eta mahaineko buxondatu ondarrak hunen barnerat ixurtzeko.

Sahetseko jale batzu senditzen nituen ebaska eni so, eta elgarri, irriz, ahapetik mintzo. Bainan berdin zautan... Enetik ari nintzen... Ez nion nehoi zorrik. Dautzuet ere, hiruek, sahetseko jale heieri jorraldi on batzu eman giniozkatela eskuaraz, eta segur, han gertatu izan balitz Eskualdun bat, ez zen enoatuko guk ibili ginuen erretolikarekin.

Kafea zerbitzatu zaukuten iraztekodun kikeretan, azkar eta kirets. Frango penatu ginuen kafe hura ezin iraziz, gure artean erranez, etxeko kafea prest egina hobe zela, izanik ere xikorearekin.

Tota gotor bat hartu ginuen apairuaren osogailu, eta Piarresek oraino gotorragoko nota bat pagaturik, hustu ginuen delako hotela, nehoi agurrik egin gabe.

## BAZKAL-ONDO

Nik ez dakit nundik eta nola, Piarres Zikiterok burutik baztertu zuen, bazkal denboran, bere urde aketza ikusteko nahikundea. Hamalauko gerlatik landa, izana baitzen, soldado lerrotan ohore hartzen eta emaiten, Pariseko «Champs-Élysées»-tan, gogoratu zitzaion orduko ibiltokiak behar zituela berriz ikusi.

Harat jo ginuen beraz beti lurpez. Nik uste nuen «Champs-Élysées» horiek, zombait pentze zabal zitazkela, frantses izenak gogotarazten duen bezala. Ez nintzen guti harritu hautemanez delako leku famatua, errebide zabal bat dela, bi eskualdetarik arbola lerroz hartua, eta han nunbait, arku handi baten perat heltzen dena.



Piarresek nahi zuen nihundik ere joan arku haren azpiraino. Han omen baita su bat, beti piztua daukatena, hura behar omen zuen hurbildik ikusi.

Bertze biak aldiz akituak ginen hain urrun kurri ibiltzeko; bazkalondoko lo kuluxkaren eskasa ere senditzen ginuen. «Habil harat bakarrik, ginion erran Piarresi!... Supazterrean aski su ikusten diagu, arkupeko su txar hortarat gabe!» Horra nola, aurki zitazken, aratsalde hartan, Pariseko «Champs-Élysées»-tan, hiru Eskualdun: bat, Piarres Zikitero, taka-taka bere zapata zikinekin, gerlari ohien, orroit-lekuen bisitatzen... Bertze biga: Manez Arotza bere bizar gaizki moztuarekin, eta ni, Anton Ziri, ene otarre eta makila sahetsean, bertze biga, diot, alki baten gainean jarriak, halako mando-lo batean, beren bazkariaren diseritzen.

## ARATSALDE-ONDARRA

Piarres berritz agertu zaukularik, Manezek bere lurpeko trein tzar hartarat nahi gintuen, oraino ere, jautsarazi. Errefusatu ginion bieki... Aseak ginela satorren moldez. Ez ginela hortako etorriak Pariserat. Oinez behar ginuela piaiatu, tturttur, tokiak ikusiz.

Bainan, Parisen, oin-bidetan ez ditake kurri, begiak eskuin eta ezker alhatuz, bereziki makila bat eta otarre bat eskuetan. Oin-bide horietan jendea trumilka baitabila, eta denak lasterka, batek kusk jotzen zitu ezkerretik, bertzeak, kusk eskuinetik... Batek ateratzen dautzu intzirin, bertzeak eskarnio. Eta, karrika trebesatzeko, legez behar duzu bi itze lerroen artetik iragan... eta, ahal bezen fite, zure onetan. Heldu baita, apur baten buruko, lehertuak, izerditan ginela, debru begirik gozatu gabe.

Gainera, gaizo Manez gure gidariak, frango omere txarrarekin aitor-tu zaukun, arras galdua zabilala. Ez zakiela xuxen nun ginen, ez eta ere norat ari ginen. Lekuen atzemaiteko sator bidez trebe zela, bainan ez argi bidez. Berritz ere lurperat nahi gintuen bildu.

«Ezetz eta ezetz!», kontra egin ginion. Ez bazen on gu gidatzeko, uzteko nihaur kapitangoaren egiterat! «Habil beraz buru!... Nik ondotik segituko hut!». Horra zer zautan jali, samur piztua...

Onartu nion desafioa. Eman nintzan aintzinean. Gurutze bide batean, poliza gizon bat ari baitzen oton gobernatzan, ahal bezala hartaraino hurbildurik, galdatu nion ean nuntsu zen Baionako treina. Ez dakit gaizki konprenitu ninduen edo zer, bainan fuera-futro despeitu ninduen,

erranez, ez hartaz trufatzeko edo... gostako zautala. Debru barazuza mokorra!

Manez Arotza senditzen nuen, barnetik lorietan, ene abileziaz truffan. Ahatik, ez luzarako. Nunbaitik han suertatu zaukun, ondoan gelditua, jendeketari-oto bat. Hari dei egin nion, eta, apur baten buruko, lur gainez eta deskantsuan, gertatu ginen gure garalat helduak.

Ez baitzen oraino treinareten tenorea, ostatu batean, gosturat lauetako-afari egin ginuen. Eta, ttuku-ttuku, behar zen orduko, gure treinean sartu ginen.

Hunarako xehetasunik ez du balio aipa dezadan, harateko bertsuak bailitazke.

Etixerat-eta, ari izan naiz haurren eskolatzen: Eskual Herrian, hitz berak ez baitu gauza bera erran nahi, eskualde guzietan, hol'hola dela frantses hitzentzat ere. Hemen «alouette» frantses hitzak erran nahi duela: «Allauda», Parisen aldiz «Aratxea».

Piarres Zikitero oraino ere dolutan dugu bere sei kintaletako aketza ez ikusirik.

Manez Arotzari, Parise hain ontsa ezagutzen zuenari, bere espantuak sartuak zaizko.

Egia diotala, hauk guziak hol'hola gertatuak direla, sinatzen dut: Anton ZIRI

*(Gure Herria, 1959, 306-312)*



## PIERRE LOTI ETA GU

Mundu guziak ezagutzen du, Pierre Loti-ren, «Ramuntxo» deitu liburua.

Ez dut uste izan den gizonik, ez batasunik, liburu horrek bezenbat, lur zabalean, Eskual Herriari aipamen eman dionik.

Nor zen Pierre Loti? Gutaz eman dituen xehetasunak, guhaurrek onartzen ote ditugu edo ez?... Nola ikusi gaitu, harek gu? Nola ikusi dugu guk hura? Galde hauierri nahi nuke ihardetsi buru-lan huntaz.

## HAREN BIZIA LABURZKI

Pierre Loti-k, bere egiazko izena zuen: Julien Viaud... Loti hartu zuen izen ordaintzat, bere liburuen sinatzeko. «Lotus» deitzen da Indietako lore xume, usain goxodun bat... Lore hari men Loti-k bere burua parekatzen.

Loti, Rocheforten sortu zen 1850an, eta Hendaian hil da, paralesiaturik, 1923an. Bere bizi guzia ereman izan du armadan, marinelgoan. Hanitz kurritua, hanitz ikusia bere barneko berriak salatu dauzkigu berrogoi bat liburutan.

Gazterik sartu zen Frantses-zaindian (Académie), Octave Feuillet-en ordain (1891). Bidasoan manalari egon zen, lehenik urte bat (1891), eta ondotik hiru urtez (1894-1897).

«Ramuntxo» liburua atera zuen 1897an. Hendaian etxe bat erosi zuen eta bere zahartasuna iragan du, parte Hendaian eta parte Rochefort-en.

Gobernuak bere gain hartu zituen haren ehortzetak... Haren hobia Oléron-go ugartean da.

## HAREN BARNEKO BERRI

Burasoz zen familia apaletik... Aita enplegatu baitzuen Rocheforteko herriko-etxean, eskua zikindu zuelakoan, bere ogia kendu zioten, naski hobetik gabe... Goiz hil zitzaion.

Viaud-tarrak protestantak ziren erlijioez... Protestantetan baita hanitz mota, hek ziren mota tinki jarraitzaletik.

Haurrean, Pierre Loti-k ukan zuen protestant misionest bilakatzeko tirria. Bainan, bere ametsa bazterturik, marinelgo eskolarat sartu zen. Han, frango goiz, bere fedea galdu zuen, eta, bertze munduarentzat zaukan karra, mundu huni eskaini zion.

Arima bere alde utziz, bere gorputza zuen gehienik pazkatu eta oheratu. Gorputzez baitzen beherapenean sortua eta odolaz, familia izenik gabekotik, ez zezaken irets bere apaltasuna. Eta, askotan gizon ttipieri gertatzen zaioten bezala, zernahi egiten zuen handi agertzeko.

Gantzola lodiko takoinekin ibiltzen zituen zapetak eta kokotsa goratuz zuen kurritzen.

Bere gorputza zailten zuen eta gaztetzen, jimaztikaz eta ere... tinduz.

Bere amari biziki atxikia zen, eta, printsesa baten ohorekin ehortzi zuen.

Bere biziteia altxatu zuen Rochefort-en, nehorik ez bezalakoa. Oraino ere ikus ditake. Lau hegal dauzka: Eliza gotika gisako barne handi bat, arabaki deskantsa-leku bat, pagoda bat eta mozke bat, Damasen eresia, eta handik garreiatuak, han zen bezala, harriz-harri, hemen muntatua.

Etxe hori zuen, ibilikako tokitan beretu orroitzapenen bil-tokia.

Bere liburueri esker, aberats puxanta baitzen, holako xahupideak jasan zezazken.

## MARIÑEL AINTZINDARI

Loti, kolonelgo graduarekin zuten erretretan ezarri.

Nolaz ote, holako gizon famatua, beti untzitan egona, bere heineko lagunak baino gutiago zen gradutan aintzinate?

Zonbaiten arabera, izarrak ez zuen bildu, marinako aintzindari buruzagiak haren jelos zirelaketz.

Iragaiten zen portu hanitzetan, ohoratzaileak jiten zitzaizkon untzirat... Eta ez nornahi... Jende handieria, erreginak barne.

Haren ohoretan, pestak ere muntatzen zituzten, hura kausitzen zen lekutan...

Ez zen laket, untzitako aintzindari oroentzat, beren peko holako biligarro baten ukaitea, itzal egin baitzezoketen.

Erran behar da ere, Loti, bere «emaxte» moldekin eta zeraman bizi berduratuarekin, ez zitakela izan konfiantzia pisuko gizona.





Funtsezkoa ote zen bederen bere ofizioan?... Ba diote zonbaitek...  
Ez ahatik denek.

## PIERRE LOTI, FRANCIS JAMMES ETA PIERRE DUHOUR

Francis Jammes, frantses idazlari famatuak, nahi zuen Loti ordaindu Pariseko Frantses-zaindian.

Sarrerako mintzaldian, behar zituela Lotiz atera, nehork oraino aipatu ez zituen xehetasun batzu, ari zen, aski aintzinetik, xehetasun heien bil-tzen.

Ahatik, ez zuen deus makurrik entzun nahi, ez bakarrik Loti-ren talenduez, bainan ez ere hura zen gizonaz.

Pierre Loti-k hartzen baitzuen, gauaz laguntako, Pierre deitu bere zerbitzari zaukan marinel-ondo bat, behin norbaitek dudazko solas batzu jali zituen, Francis Jammes-en aintzinean, egitate hortaz.

Francis Jammes su-pindartu zen: ez zela gero Pierre Loti zonbaitek uste zuten piltzar hetarik!... Bainan, heriotzearen beldur zelakotz zuela gauaz, delako mutila, hurbil nahi.

Samurtze, oraino gogorragokoa bildu zuen Hazparne Xoriteian, Pierre Duhour, gure adixkidearekin. Hau zuen Francis Jammes-ek den-bora batez bere ile eta bizar mozlea.

Duhour egona baitzen hanitz urtez marinel, eta ezagutzen baitzuen Loti, errex da asmatzea, zoin gustuz Francis Jammes-ek hurrupatzen zituen Duhour-ek Loti-z ziozkanak. Egun batez haatik, hautsi zen heien arteko lokarria. Huna nola. Bilok orraztatuz, Duhour ari zen elhe eta elhe, denen buru, Loti gizon guti zela, ez-deus aintzindari, saluneko hobeia, untziko baino... Emazte gobernatzeko hauta, bainan ez gizon manatzeko, eta bestalde aintzindari zitala.

Loti, «Vautour», gerlako untzi ttipi baten aintzindari nagusi, «Constantinople» portuan zagon 1903ko otsailean.

Untzian bazuen «siamois» gatu eder bat, izena «moumout»; hangotarren presenta, gain-gainetik mainatzen zuena; jantorduetan behar zuen berekin mahainean.

Gatu hura, denek, untziko aintzindari azpikoek eta mariñelek ezin gehiago hastiro zuten, zikina zelakotz eta Loti-k ez baitzuen elhe goxorik harentzat baizik.

Loti, hirirat jautsi zen batez, gatu hura, burdin maza bat lepotik eza-rririk, urerat botatu zuen, «timonier» mariñel batek.

Gero ziren gero xinximariak! Gatua falta, Loti erotu zen, untzi guzia miarazi debaldetan. Untziko mariñel guziek, zortzi egunen «barnea» ukan zuten gaztigutzat.

Aintzindari kakola! Gatu tzar batengatik!

Hola mintzatu zen Duhour; ba bainan Francis Jammes-i hori gaitzitu. Erasiatu zuen bere ile mozlea: Loti gizon handi bat zela, etzuela untsa ezagutu eta bere bizar handia dardarikatuz urrundu zen Duhour-enganik, Francis Jammes profeta.

Gaizo Francis Jammes! Horiek hola, ez zuen aski bozik bildu Frantses-zaindian sartzeko... Ostiko hortaz ahal bezela kontsolatu zen, erra-nez: ez zela Francis Jammes-entzat bainan Frantses-zaindiarentzat ohore, hura hartan sartzear!

Pierre Duhour-ek aldiz, maite baititu «mixterioaren fruituak» egun hetan bat gehiago salatu omen zion bere aspaldiko adixkide Zerbitzari-  
k:

Gorapena karrosa  
Bota hari arrosa!

## PIERRE LOTI ETA POLITIKA

Baditake ere, Pierre Loti, goragoko gradutarik urrunduia izan den politikarengatik.

Orduko mariñako aintzindari handiak, erregetiarrak ziren... 1883an, Pierre Loti-k, «Figaro» kazetan aipaturik, Indoxinaz jabetzean, frantses soldadoek egin abrekeria batzu, gaitzeko burrunba muntatu zuen bere kontra. Ez baitzuen bere geroa ondu.

Ordu hetan, politika bat biziki nahasia alha zen Frantzian.

Erregetiarrak ziren partidan ari Errepublikanoekin.

Zorigaitzez erlijionea zen politikaren trebesa.

Erregetiarrak, erlijionearen alde ziren eta ez zezaketen onart katoliko bat Errepublikano izaita.

Errepublikanoak aldiz, erlijoneari jazar ziren, eta katoliko guziak erregetiartzat zauzkatzen.

Horra beraz, fedearen karrosa erregeari estekatua, katolikoek nahi edo ez.



Alger-eko Lavigerie kardinale erdi-eskualdunak, aita saindu Léon XIII garrenarekin elgar aditurik, goraki jakinarazi zuen 1890an Elizaren erakaspena: katoliko ona, berdin izan zitakela Errepublikano.

Nola Lavigerie-k hedatu zuen bere gogoaren berri, frangotan entzun diot erraiten, Kardinalea deitzen ginuen, Hazpandar Denizteiko xaharrari... (Gizon han, duela hamabortz bat urte hila da, Lavigerie-kin luzaz mutil egonik.)

Beraz, Alger-en, Lavigerie-k muntatu zuen bazkari bat gaitza eta hartarat gomiatu mariñako aintzindari multzo bat... Bazkaria bururatzean, Kardinalea mintzatu zen, Errepublikari jarraitzearen alde, eta, bere eskoletako musikari gazteri, «La Marseillaise» jo-arazi zioten.

Ortzia erori bazitzaioten gainerat, ez bide ziren hoinbeste harrituko bazkaltiarak... Gehienak, brau xutitu ziren, ez Errepublikaren xaramela ohoratzeko, baina lehenbailehen lekuen husteko.

Lavigerie-ri geroak arrazoin eman dio, baina haren erakaspena goixko heldu zen, orduko izpirituentzat.

Ez dakit Loti han ote zen, delako bazkarian... Baina gertakari horrek erakusten du zer gogotako ziren marinako izardunak eta nola Loti «gorriak» mentura ttipia zuen izar hetarat heltzeko.

## LOTI ETA GURE AXALA

Mintza gaiten «Ramuntxo» liburuaz. Zer ote diogu, Lotik hortan kondatuez?

Loti-k, bere begiz ikusten zuen bezala, gure axala ezin hobeki pape-rean ezarri du.

Zoin ontsa ez ditu senditzen gure mendi eta erreken sasoinak, gure itsasoaren ibilerak, gure pilota, dantza eta elizako urratsak!

Gure axalean dohatzinak, xuxen salatzen ditu, salbu xeheteri batzu. Hala nola, behin dio itzain batez: idiak abiarazi zituela, kopetan hunkituz... Idiak, oihuz eta, hala beharrean, gorputzean ziztatuz, dira abiarazten.

Bertze behin, bi pertsulari, ostatu batean, pertsutan ar-arazten ditu, airetzat emanez: Hiru damatxo Donostiako!

Pertsuak aire hortan, ez da, arras ez ditakena, baina nekez da ditakena.

Loti, gure kanpoz ontsa mintzatu hada, ez ditake erran xuxen eman duela, gure barneko berri.

Eskualdunen sentimenduak dira edozoin gizonenak, baina arrazaren urinez orratuak eta erlijionez bataiatuak.

Loti-k, guti ditu senditu arrazaz ditugun barneko moldadurak, eta are gutiago erlijioneak emaiten dauzkunak.

Loti zen barne eriko gizon bat, sentimenduz «nexka» aire... Eskualduna aldiz duzu zimenduz adimendutsu. Sentimendu ere badugu, baina ez gira sentimendukari.

Eskualdun gizonkiari ez zaizko laket bihotzeko berdureria eta ttatulikeriak... Are gutiago, besteen aintzinean.

Loti-k kondatzen du, gau batez, kontrabandako bidea hartu aintzin, Ramuntxo eta bere ama, luzaz egon zirela goxoki, matela matelaren kontra.

Baditake ba, baina nekez Eskualdunen artean.

Apiril goiz batez, bere emaztegaiak, Ramuntxo elizarat joaiten du, han belauniko ezartzen potreta baten aintzinean, eta litanien erraiterat bortxatzen... Horiek guziak, Ramuntxok, bezperan sakre batzu jali zituelakotz eta heietaz barkamendu galda zezan...

Gehiago dena, Ramuntxok litaniak bururatu artio, emaztegia han dabil elizan harat eta hunarat, andere serora laguntzen duela...

Ramuntxo pilotari eta kontrabandixta azkarra, hola «marikotillun» bilakatua?... «Bazkal ondoko kondairak» deitzen ditugu, guk, holakoak.

## LOTIK GU KONPRENITZEKO ESKAS ZUEN FEDEA

«Ramuntxo»-ren urteetan, Loti arras erlijionetik urrundua bizi zen. Geroxago lerratu bada ere fedearen goratzerat, orduan bertze sentimendurik zuen.

Eskualdunen barnea, fedez orratua delakotz, federik gabeak ez dezake gu bezala sendi... Hortakotz ez gaitu Loti-k konprenitu.

Loti-k, «Ramuntxo»-n, gure erlijioneko usaiak eta sinesmenak, zaharkeria batzu direla dauka... Ohoragarri, eder ere bai, baina halere zaharkeria batzu, hil hurranean, laster denborak eta jakitateen argiak kendo dituenak gizonen baitarik.

Erlijionedunak urrikalduz bezala eta gain behera behatuz ditu aipatzen.

Gure elizako urratsek, gure fedear, seroren biziak, haren baitan sortarazten dituzte ilundura batzu.



Ezin onetsiak ditu, eta dauka, fedezko sentimenduak direla, gizonaren barneko beldur eta goseduren ondorioak, etorkizunaz haziak eta azkartuak.

Oroz gainetik, Loti heriotzearen ikaretan bizi da... Heriotzea zaio leize huts batetarat pulunpatzea.

Baditake egia den, hiltzeaz beldur zelakotz zuela, gauazko, gizon bat lagun nahi.

Axaletik zuelakotz gure erlijioea beretzen, gure fedez jaltzen ditu funtsgabekeriak.

Gaxuxa da, 16 bat urtetako neskato gazte bat, egunaz beti elizan eta serorakerietan... Gauaz aldiz, lehioetik jauzi egiten du gizonariarekin egoitako. Ez dadien ezkont maite duenarekin, amak bortxaz komenturat sartzen du... Eta futxo, hiru urte barne, huna gure neskato gaztea, serora sailduño bat bilakatu!

Nork ez ditu senditzen kondaira hunen ahuleziak?... Ama bat izan ditakela hoin bihotz garratza, bere alaba bakarraren alderat? Serorak hoin okaztagarriak, ama hari esku emaitako eta bortxaz neskato gazte bat berenganatzeko? Eta, gisa hortan komentuan sartu neskato gaztea, han laketa ditakela, eta briu-brau sailduño bat bilaka? Nola onart holako enuxkeriarik?

Gure fedea funtski jastatu balu, Loti-k segur bertze itxurarik emanen ziola bere kondairari.

## NOLAZ ZEN FEDERIK GABE

Jada erran dugu, Loti, sortzez protestant zela...

Fedez hustu zen, zeren munduko pazkaz hazia den ariman, ez baita Jainkoarentzat egoitzarik.

Orroit gaiten ere nolakoak ziren Ramuntxoren inguruko urteak.

Frantzian, apez-jale eta erlijioaren etsaiak nausi ziren eta harroki mintzo. Jaurès, Combes, Viviani eta holako biligarro pizkor batzu ziren fedearen kontrako xori kantariak.

Jaurès-ek zion, 1895an, deputatuen ganbaran: «Jainkoa bera agert baladi gure aintzinean, eginbide ginuke hari desobeditzea eta hura errezebitzea, ez nausi bat bezala, bainan gure heineko bat bezala!»

Eskual Herrian, radikalek, Morroxko buru, taria gaitza zeramakaten erregetiarren kontra.

Eliza miatzeko urteen bezperan ginen...

Handik laster, 1903an, Baionan, apezpikurik gabe baiginen, Combes-k, aita saildu balitz bezala, nahi izan zaukun diosesako buruzagitzat igorri Gazaniol, Konstantineko apezpikua.

Nolako mende, halako gizon izaiten baita, ez da estonatzeko orduko burrunbek bereganatu badute Loti.

Ez, Ramuntxok ez du erakusten gure fedea, bainan bai Loti-ren fede-eskasa.

Bestalde, Ramuntxoren jite lehun, guri, zilinga, ez da Eskualdun pilotari kontrabandixta batena, bainan bertze nornahirena eta bereziki Loti-rena.

## RAMUNTXOZ LAUDORIO

Aipatu itzalak baztertuz, Ramuntxo liburuak baditu irakurlearentzat asko aberasgailu.

Loti musikalaria bat da hitzen lerrokatzeko moldean... Heien kurritzeak, beharrieri ematen diote goxotasun berezi bat.

Loti-ren ernetasuna arras bizia da. Gauzen koloreak, usainak, mugimenduak, nehork baino hobeki bere zetabeen pasatzen ditu eta bere mirailan erakusten.

Loti ez da gogor, ez larri, ez barnakor bainan goralari, olerkari, axalkor.

Haren gogo, erlea liliz lili bezala dabila, nehon luzaz pausatu gabe, denetarik jastatuz eta denetarik arinki.

Lumak salatzen baitu gizona, hemen hala gertatzen da.

Loti mintzo zen boz ttipi, ezti batekin, behako laño bat nunbait galdua, golko gibelean beti izan balu bezala sekretuzko arrangura bat, nehork ezin kontsolatua.

Eta preseski, emazteak baitituzu, jitez, kuriostasun eta kontsolamendukeriarat lerrakor, ez zitaken apasta hoberik izan heien tiratzeko...

Loti-k bazuen emazte biltzeko «bike». Ibili den toki guzitan, erregina eta printsesa, andere handi eta gutarteko, zernahi emazte bazituen bere ondokit eta bere gomendio.

Bere famaren edo diruarengatik ote?... Edo, hartaz aipamen ukaiteko nahikeriarengatik?... Arrazoin horientzat ere, dudarik ez da... Bainan, bai ere, zena zelakotz!



Eskual Herrian egon den denboran, asko emaztek hurbildu izan dute. Arras barne sartua zen Durruti, Hendaiako mirikuaren familian eta, Ramuntxo-ko xehetasun frango galdatu izan ditu, andere Durruti ezin finagoari.

Ramuntxo liburua Abadiako andere alarguntsari sinaduraz eskaini zion...

Azkainen, hoteleko anderekin oso etxekotua zen.

Denbora hartan, orai baino errexago baitzen, Bidasoan segurik, armadako untzietarat igaita, maiz, Loti-k berekin pasaietan ibiltzen zituen, familia onetako edozoin andere gazte...

Hautarik zombait mintzatu ditugu... Denek daukute erran Loti zela manera goxoko, gizon ongi ikasi bat.

Haren behakoa gehienek ezin ahantzia dute...

Zombait andere gazteri kasu berezi bat emaiten omen zioten... Zombait emazte gaztek ere ba hari... Hautarik bat behin urerat erori omen zen untzitik, naski bere nahitarat, Loti-z salbatua izaiteko plazerrez.

Loti-ren untzian omen ziren ere mariñelak... Alabainan! Batzu andereen gostukoak... Bertze batzu, hala hulakoak...

Oroit 1900 garren urtearen inguruan girela, eta diotenaz, orduan, Frantzian, lurreko parabisua zela.

## LOTI AZKAINEN

Loti-k, Ramuntxo izkiriatu izan du, parte Azkainen eta parte Hendaietan. Urte hetan, Azkainek 1.200 bat arima zituen... Auzapez zen Gracy Haranederrekoa... «Xuriak» ziren herrian nausi eta politikan bizi-bizi zabiltzan «gorrickin».

Gorrien buruzagia zen Ottarre, hoteleko nausia... Bere alde zituen bereziki Portutarrak (Portua da kartier bat). Azkainen baziren asko ostatu, bainan hotela bakarra zen...

Hotel hortarat zen jiten Loti... Ahatik ez zuen hor sekulan lo egiten...

Etorri-eta, maiz esnea zuen edaten, eta gero, beti harentzat libro zaukaten, gaineko salunerat zen joaiten...

Laket zitzaion, kanpoan, kanaberen artean, mahain pollit baten gainean, lauetakoa egitea, arroltze bat koskoan xurgatuz...

Maiz berekin lagunak ekartzen zituen, eta ez beti nornahi... Hala nola: Nathalie erregina.

Beti ontsa bezi zen, errespeturekin mintzo eta ez zuen bere inguruan onartzen larrikeriak.

Guti janez bizi zen, bainan janari finetik.

Jean Pierre Ottarek, bere familiaz bertzalde, bazituen hotelean bi sehi eta mutil bat... Behar orduan, zerbitzari gehiago ere muntatzen zituen.

Loti-k hotelean aurkitu ditu kontrabandixt eta pilotariak, aditu kantari eta pertsulariak.

Hoteleko lehiotik ikusi ditu pilota partidak Azkaingo plazan. Bi urratsetan baitzuen eliza, hurbildik segitu ditu hango harat-hunatak: jendeen sar-jalitzeak, ahokuak, seroren urratsak.

Han ezagutu du Elizalt, Azkaingo erretor apez jendekina... Hunek zuen eraiki oraiko erretor-etxea... Etxe hori altxatzeko denboran, Erreberan aloitu zen...

Ezagutu ere du Montalibet, bikari gazte elhestaria.

Bere begien aurrean zituen, Elizaldean, Lakarratarrak, orduko xixte-ara egile bakarrak.

Hoteletik behatuz eta hortik ibiliz du Loti-k bildu hanitz xehetasun bere liburuarentzat.

## LIBURUA ZERTAZ ETA NORTAZ MINTZO DEN

Bere liburuan, Loti-k, toki edo presuna bat aipatzean, ez du sekulan haren egiazko izena salatzen.

Ez zezaken sala ere.

Ezen Loti, ez da kondalari egizalea, bainan brodatzalea. Maiz presuna edo leku baten itxura jaliko du, bizpahiruenak elgarrekin petatxatuz.

Haren broda-lanetan, ezagut ditazke herri zombait: Azkaine, Biriatu, Sara, Itsasu eta holako. Bertze asko toki ere.

Ez gira leku horien aipaketan baratuko, bainan zilatzerat entseatuko gira, nor dituen ekeitzat hartu Loti-k, bere liburuko presunen muntatzeko.

«Muntatzeko» diot, ezen, jada erran dudana bezala, ez ditu Loti-k agertu... zirenak, bainan... zituztenak, eta berak heiekin ukanak.

Ikus ditzagun beraz bederazka Ramuntxo liburuko presuna larriena. Eta lehenik Dolorezen familia.



## ARROXKOA

Dolorezek baditu bi haur, seme alabak: Gaxuxa eta Arroxkoa...

Ez da demendren dudarik, Loti-k Arroxkoa sortuz, Ottarre zuela gogoan. Ottarrek, Borda zuen deitura... Izen berri hori bildua zuen bere xixterarengatik.

Ottarre zen gizon ontsa egin bat, jendekina, muztatx koxkor batekin.

Esposatu zen Maddi Hirigoienekin eta hiru haur ukan zituzten. (Hiruak hilak dira).

Ihiztaria zen errabiatua eta bere eskualdeko ihiztarien nausigoa harek zuen...

Harrobi bat ere bazuen bere gain hartua, langile multxo batekin ibiltzen zuena. Paga egunetan, langileri hotelean afaria urririk ematen zioten... Afari haren gastua biltzen omen zuen aise, sahetsetik langilek han berean xahutzen zituztenekin... Hortakotz, hanitz langileen emazte, afari horren kontra ziren.

Bere pilotako ofizioarengatik, maiz kurri zabilan, bere karro eta zaldi betroin pollitarekin.

Azkaingo «errepublikanoek», hura zuten buruzagi... Ez zen elizan ibiltzalea, bainan ez zukeen fedea arnegatua.

Oraino bizi den Justes apeza, haren besoetako da...

Zahartu izan balitz, nik uste, bihotzaren punpak pixka bat eztitzearekin, berriz elizakotarat hurbilduko zela, orduko bertze hanitz «gorri» egin izan diren bezala.

Zorigaitzez, oraino adin gordinean zelarik, tanpez hil zen.

Nik ez dakit Loti-k zertako Ottarreri ematen dion «Arroxkoa» izentzat... Nekez Arroxkoak duen «Harroskoa» erran nahi... Gaxtakeria laiteke eta itxura guti du Loti hortaratzea...

Nik uste, hitz hori, Loti-k «Arrosa»-tik moldatua du, bere gisako finitzearekin. Dena den, Loti-k, egiten du Arroxkoatik, Ottarrerren trakako gizon bat, xixteraria, zaldi eta karroen jabea, fede gutikoa, serora baten anaia... Jitea ematen dio ez hain argia, pixka bat aingira eta faltsoa.

Ottarrek aldiz zer ote zion Lotiz? Ottarrek ez diote, bere bizian, liburuari min handirik egin.

Harentzat Loti zen gizon aberats bat, fama handikoa, liburu idazlari biziki artexa, jende tiratzalea, besoak luze zituen... Hots, pikor bat hauta bere hotelarentzat.

Hortakotz, ahalaz hari kausitzerat ari zen... Bainan, ez zen bi gizon horien artean, barnetikako lokarri tinkirik... Ottarrek, jite eskualduna zuen erotik... Loti ez baitzen bakarrik jitez kaskoin bat, bainan «kaxkoin» bat, bi mutur horiek, bat bestearenganik urrunsko ziren, elgarri koropilatzeke.

## GAXUXA

Loti-ren liburuan, Gaxuxa da, Arroxkoaren arreba, Ramuntxoren emazte gaia, serora sartua.

Egiazki, Ottarrek izan du arreba bat Gaxuxa, neskatxa sano elizatiarra, Angeluko seroretan sartu zena... Berrikitan hila da (1960), Angeluko komentuan.

Fede gabeentzat eta fededun zombait xoxoentzat, komentuan serora sartzeko, behar da baitezpada xoroa izan edo bihotza xangrinez joa.

Guk segur dakiguna da, ez dela Gaxuxaren bihotzean, behin ere izan, ez xorokeriarik ez eta ere Ramuntxorik...

Hanbat gaxto, Gaxuxaren bizian, ixtorio mixterioketan dabilzantentzat. Erran ditakena da, Loti-k naski Gaxuxa sortzeko, modelatzat hartu zuela, Gaxuxaren lehen kusina, Zoe anderea, oraino bizi dena... Han, umexurtx gelditu zen gazterik, eta, Loti-en denboran, neskatxa gazte hotelean bizi zen...

Loti-k dio Gaxuxa zela guarda brigadier baten alaba, aitaz gabetua... Preseski, Zoek, aita zuen guarda brigadiera.

Loti, behin izan zen, Ottarrekin, hunen arreba seroraren ikusterat. Biziki barnez joa atera omen zen serorateiko mintzategitik... Han ukan sentimenduak aipatzen ditu bere liburuan.

## DOLOREZ

Dolorez da, Arroxkoaren eta Gaxuxaren ama alarguntsa. Ama hori, Loti-k biziki belzten du, ez baitu utzi nahi bere alaba, Ramuntxorekin ezkontzerat eta, hortako, seroretan preso sartzen duelakotz.



Lotiren denboran, gure herritako neskatxak, orai baino tinkiago altxatuak ziren.

«Neskatxak eta xakurrak, anjeluseko barnerat!», zen errana.

Kongregazionean ez zen neskatxa, nekez zitaken izan zintzoa.

Igandetan, bezperen ondotik, neskatxa jainkotiarrek, seroretarat joaiten ziren abusatzerat.

Apezak bipilki mintzatzen ziren prediku alkitik neskatxen dantza, moda eta hirirat sehi joateaz... Oraino aipatuak dira, orduan Hazparnen misionest zen, Azkaindar Landaxkobaitako aita Larregain baten ahopaldiak.

Kongregazioneko buruzagiek, serorek, ama familiakoek, elgar sustengatzen zuten, neskatxen zaintzeko.

Horiek guziak, Loti-k ikusi ditu eta senditu, ba Azkainen, ba nun-nahi...

Loti, ez baitzen, beren esposako erreztuna errian tinki atxikitzen duten gizonetarik, behin baino gehiagotan serorek eta ama familiakoek urrundu izan dituzte harenganik, ihiztatzen zituen urtxo batzu.

Hortarik ditake haren errabia Dolorez eta seroren kontra.

Bertzeak bertze, bere sareak frango barna hedatu zituen Saran, ostatu bateko alaba beretu beharrez.

Beharrik baitzituen alaba harek gidari onak! Bixtatik kendu zioten!

Hortakotz, gure baitan pentsa dezagun delako Dolorez, ez zela Loti-k aiherkudez dion jandarmes higuina, bainan ba ama familiako bipil sano bat.

## RAMUNTXXO

Ramuntxo da, Gaxuxaren gizongaia, Franxitarren seme, aitarik gabea.

Gorputzez, Ramuntxo ditake, edozoin pilotari gazte, Loti-k maiz hotelean edo hoteletik ikusten zituen hetarik... Beharbada Ziki, Xilar, Santiago, Jatsa!... Nork daki?

Barnez, Loti-k Ramuntxori, bere baitako sentimenduak prestatzen diozka. Sentimendu hoikietarat ez zuen auzorat joaiterik... Bere golkoan hameka bazauzkan, askotan jastatuak, frogatuak eta... jasanak.

Bera zen bezala du Ramuntxo tindatzen: amakari, barnez eri, lehun, dudakari.

Diote zonbaitek, Loti bilakatu zela kontrabandixt eta pilotari... Guk, Eskualdunek, holako xorokeriak, irriño batez baztertuko ditugu.

Loti, adinez bi lerrotan iragana zen, gutarterat jitean... Ez da, adin hortan, pilota hartzen, bainan uzten. Egia da, Ottarrek ibili duela berekin Loti, pilota partidetan eta kontrabandako pasa tokietan... Bainan, ez du Loti-k bizkarrik busti kargaketan.

Ramuntxo bezala, orduan, hanitz Azkaingo eta inguruko mutil gazte joaiten ziren Ameriketarat, bereziki «Buenos Aires»-etarat, batzu beharbada penen ahanzteko, bainan gehienak diru egiteko esperantzan.

Ramuntxori, Loti-k eman dio beraz gure axala, bainan bere mamia... Ramuntxok kofesatzen du Loti, bainan Loti-k ez du kofesatzen Ramuntxo!

## FRANXITA

Franxita da Ramuntxoren ama, Dolorezek mespresatzen duena, aitarik gabeko haur batekin itzuli delakotz sehi zen hiritik.

Egia da, ordu hetan, gure herrietako jendek arras garrazki jujatzen zituztela neskatxa amatuak.

Ordukoa da gertakari hau Azkainen. Ezkontza kontrako haur bat sorturik etxe batean, gaztek, gauaz tutak jo zituzten etxe haren inguruan, artetik kantatuz: Gaur sortu da Jesus haurra!

Franxitari, Loti-k bi bisai eman diozka: bat, bere amarena... Bertzea bere andere ordainarena.

Jada erran dugu Loti-k bere amarentzat zuen bihotz eria... Bihotz hori dio, liburuaren buruen-buru, Ramuntxok zabaltzen bere ama Franxitari.

Bainan, Franxitarren sentimenduetan kausitzen da bertze norbait... Bertze norbait hura da: Marie Gainza. Nor zen Marie Gainza hori?

Loti, herriko etxez, esposatu zen, Dordognar, Betranet deitu jauregiko alabarekin... Hunenganik, ukan zuen seme bat, Samuel, oraino bizi dena.

Bainan, bere espos lagunarekin ez zezakelakoan bertze haurrik ukan, eta haurrak nahi zituelakotz, emazte ordain bat hartu zuen, bere gustuaran arabera: eskualduna eta ederra.

Emazte hori zen Marie Gainza, Hendaiakoa, arrain saltzale baten alaba.

Loti, denen jakinean, bi emaztekin bizi izan da...



Bigarren hunenganik ukan zituen bi seme eta zaharrenari, Ramuntxo eman zion izena. Orai, denak hilak dira.

Marie Gainzak, Franxitaren ahotik, noizean behinka, aipatzen du bere gazte denborako bizia...

Behin dio, aitak, hirian zelarik, eskuaraz izkiriartzen ziola elizako urratsak ez zitzaan ahantz.

Bertze behin, bere etsaia Dolorez nahi luke tapatu, hari salatuz nor duen bere haurraren aita... Huna zer dion aita hartaz: «Eskuaraz mintzatzzen ez zakien... Begiak ametsetan galduak iduri, zabilzkan... Bere elhetan, beti nunbait zen, akitua, etsitua. Urrun zitaken leize ilun bati so bezala, zagon beti... Ez zen Jainkoaren eta erlijionearen kontra mintzatzzen, bainan ez zuen otoitzik egiten... Gizon hura paganoa zen... Eta haren lagunak, hura iduriak... Gizon argituak, bainan otoitz eta fedegabeak. Beren artean arinkeria eta funtsgabekeria bakarrik zabilkatenak...».

Hauk irakur-eta, ez da dudarik Franxita dela... delako Marie Gainza, eta harek aipatzen duen gizona: Pierre Loti bera.

## ITSUA

Ramuntxo liburuak, kontrabandixta zombait aipatzen ditu: Florentino, Iraola eta bertze, bainan molde berezi batez «Itsua, elizako xantre eta giltzaina, adinik gabeko gizon bat, bizarra kendua, bisaia iduri pudaz moztua, matelak sartuak, matraila larri, gorputzez gora eta zabal, bularra lodi, begiak barne, kopeta zimurrez bete».

Nor ote zen Itsu hori?

Lotik dio izengoiti hori emana ziotela, gaitzeko bixta zorrotza zuelakotz. Nekez, izengoiti hori Eskual Herrian, Loti-k dion arrazoin horrentzat.

Ramuntxon kondatua da, behin Itsuak, Enderlazako errekan, bere burua, kanibet ukaldiz, libratu zuela, bi karabineroen aztaparretarik. Urte hetan, Argibelekoa zen xantre Azkainen, eta «xantretarrak», kontrabandixta ezagutuak ziren.

Bertzalde, Ottarrek bazuen adixkide bat, kontrabandixta nausi famatua, arras Loti-ren erranen trakakoa.

Igantzarra... Izena zuen Agustin Arrieta... Bainan, denek deitzen zuten «Galo Okerra» edo «Galo Itsua», begi bat baitzuen trebesa.

Hamalauko gerlan, Galok, Frantziako armada hanitz lagundu zuen, zaldiak hunarat pasatuz, eta hortakotz, gerla ondoan, Hendaian, medailaz saristatu zuten.

Horra segur, nundik atera duken Loti-k bere Itsua!

## FILMAK

Ramuntxo gaitzat hartuz, bi filma handi jaliak izan dira.

Bat 1938an.

Hau, parte on bat, atera zuten Azkainen eta Saran, tokiko asko presunen laguntzarekin... Louis Jouvet famatua zen Itsuaren egile... Ezin ahantzizkoa baita zoin ongi.

Bigarren filma, Schoendorfer alemanak jali zuen, 1957an, Baxena-barreko eskualdean, bereziki Baigorri eta Iratin, Salbatoreko kaperan.

Hunek ez du, urrundik ere, lehena balio.

Bi filma horiek itzal bera dute, guretzat ezin jasanezkoa... Ez dute batere den bezala agertzen eskualdun neskatxa... Ez dira gure neskatxak panpin edo zantzail errex batzu, filma horietan agertuak diren bezala. Loti-ren Ramuntxo beharbada zineman agertu dute, bainan ez oraino Eskualdun litaken Ramuntxo.

## AZKEN SOLAS

Ramuntxoren hobiak baditu, oraino ere, bisitari eta lili ekartzaleak.

Rochefort-en, Loti-ren etxerat heldu dira maiz xehetasun galdean eta galdetzaleak.

Iduritu zaut, batetik, Eskual Herria hoinbeste ezagut-arazi duen gizonak, merezi zuela, Eskualdun batenganik aipamen zintzo bat, bertzetik, bazirela Lotiz erraiteko batzu, nehork oraino ez erranak.

Hemen argitaratzen ditudan xehetasunak, bilduak ditut, zombait liburu eta agerkarietarik, bertze hanitz, lekukoen ahotik.

Ahalaz seguretik ikasiak baititut hemen agertzen, ez dut uste lan huntan egin dudana makur-erraite handirik.

Dohala beraz hau ere, jendeen argitzale eta pentsagailu.

(Gure Herria, 1960, 225-241)



## URDEA HIL DUGU

Angeleski mutur motz, beharri labur bat ginuen, etxean hazia, hiru bat kintalekoa, ginarritsu... Bazuen ba oraino urinentzat leku, bainan amak diona: «Gure etxean, sobera mutur zuri bilakatuak gira... «Pu» egiten diogu gizenari!...». Eta, oraino artoaren prezioan, bihiak ez ote du gehiago emaiten salduz, urinduz baino! Zoala beraz gazitegirat; beherapenez balia, deiegin ginion Batita, gure aspaldiko urde hiltzaleari.

Baietz ba, zuen ihardetsi Batitak, etorriko zela gogotik eta goizean goizik, galdegin bezala. Adinarengatik, urde hiltzeko ofizioa utzixea zuela, bainan ezetzaren afrunturik ez zezakela egin gu ginuen ate zaharrari.

Egia erran, Batitaren baztertua, harentzat izanen zen afruntuago, guretzat baino. Jakin behar da zaharri plazer egiten, heien beti gazte direlako ustekeria ohoratuz.

Dena den, egun handiaren bezperan, emazte horiek bazuten haro gure sukaldian. Batzu ari ziren kobrezko panderu zaharra hautsaz dirdiratzen. Beste batzu, begiak erreak, tipula xuritzen. Azkenak, baxerak garbi eta xukan... Ez galda ean bazuten, mahain-gainean, aho bustitzeko kikerarik.

Eta holakotan, zu gizona, ez ibil aitzaki-maitzaki, beti hetarat joana kutzukerian. Bestenaz hartuko dituzu jorraldi batzu, zure baratzeak egundaino hartu izan ez dituenak.

Alta, gu, gizonak ere, urdearentzat ari ginuen ba lanean. Bezperan garreiatuak ginituen, sukaldetokoz, mugaz bestaldetik biper-gorri-errauts, klau-itze eta zaku bat gatz larri... Hangoak biziagoak baitira hemengoak baino. Urde hiltzeko azpilari eskutia azkartu ginion, ahuldua baitzuen. Lasto-matxota batzu selaurutik jautsi ginituen... Zume-andana bat baratze-zokotik ekarri... Gaziteia, ur irakituz errotoz garbitu... Lukainka-haga erreberitu... Onborkitik, suko egurra ausarki apailatu... Besta-egunez ez baitira lakot bazter-lanak, bezperatik ere sartu ginituen kabalen pazkak. Eta, bixtan dena, holako egunetan ez aipa gure haurri eskolarat joaterik.

\* \* \*

Biharamunean, argi-zirrintzako, Batita han ginuen ate-joka. Urde hiltzeko tresnen kutxa bizkarretik trebeska zintzilik, zango aztalak larruz

tapatuak, gorputza tente bi izter-makil makurren gainean, iduri zuen potreta zaharretako zaldizko gerlari bat.

Kafe-xorta bat bere ondokoarekin klikatu-eta, denak bildu ginuen urdandei-ondorat.

Urdeak kurrinkaz etxeari kapeta kendu nahi zion. Gaizoa, bezpera eguerdiz geroz barurik ginaukan, haragia hobea izan zezan.

Pisu-solasetan eta begirat, Batitak aitak baino gorago jotzen zion estimua. Bainan, badut uste biek, beren baitan, egiari zimiko-egiten zioten, Batitak hazlea ohoratzeko, eta hazleak bere ohorea ez berduratzeko.

Urdeak hiltzalea usmatzen omen baitu, Batita baztertu eta aitak zuen, urdandearat sarturik, alimalea gibel zangotik soka-lasterrean hartu. Urdea gose ziritua zagon eta kexu atera zen, aitaren «ñur-ñur» eztiertzat den gutieneko konplimenturik gabe.

Atxikitzaileak han ginauden, mahainaren inguruan, prest lanari lotzeko. Han zagon ere auzoko Mari Beltza, untziaekin odolaren «hartzera» etorria... Urruntxagotik eta uzkur zagotzin Popol, etxeko seme ttipia, mutiko gotor arpegi zuri bat, gapelu zabal bat buruan, eta Adrién, Mari Beltzaren alabarena, hamalau urtetako pipa-xango bat, sortzez kontrabandako horietarik. Biek, elgarren ondoan, iduri baitzuten, batek onjopapuna eta besteak meta-ziria.

Han ere zabilzan, bestaren usainak ekarriak, etxeko bi zakurrak eta auzotako gatu bat «Trinkili», Mari Beltzarena, hiru zangotako enbalier, eihartu bat.

«Ale lot!», zuen manatu Batitak, urdeari burdin-krakoa golazpitik sartuz... Gaztetan, urgulu zuen urdeen hiltzeko, burdin-krakorik baliatu gabe. «Ez duk haukieri nausi den burdinik», zuen erraiten orduan, bere aztapar sekail zakarrak erakutsiz. Jendek zioten gizon horrek ez zituela ukare-muturretan aztaparrak, bainan estokak. Gure etxean behin, lau bat kintaletako aketz tzar bati muturra eskolatu zion esku xoilaz. Bainan, adina etorri Batitari ere, eta tresneri galdatau behar, zainek, izanik ere dobleak galdu duten larderia.

«Ale lot!», erran-eta, Batitak, denen xinkakoa lauatzeko, atera zituen oihi eta español «aleluia» batzu, bainan usaiatz beharrez baino gehiago; ezen «in nomine santian» urdea luzatu ginion azpila-gainean. Ginen laguntzarekin, ez zen irriskurik urdea eskapa zadien, eta, ondoko egunetan, pertsulariek gutaz mundua irriz ase zezaten, beste zonbaitez bezala.

Urdearen beso bat estekaturik mahainaren eskutilar, lotu ginuen bakotxa membro bati. Popol tipia buztanari. Orduan, Batitak finkatu zuen





burdin-krakoaren makoa bere zango aztalari, aurtiki bere gapelu higatua, lepo-zaina begiztatu eta, puntaz zeinatu ondoan, marraza erroraino sartu zion. Odol nasai bat zurrutzan jautsi zen untzirat eta Mari Beltza hasi zen hura itzul eta itzul, ariaren biltzeko.

Urdeak, hastetik eta lehen harridurarekin, ez zuen baitezpada hanbat marruma atera. Bainan orai, bazter guziak inarosten zituen bere kurrinka eta zalapartez. Errefera ematen zioten zakurrek beren herio-sainga latzekin. Eta, badut uste, zakurrek gehiago lotsatzen gintuztela urdeak baino; ezen, gure artean, egundainotik izan da sineskeria zakurren herio-saingek zerbaiz zorigaitz aintzinetik salatzen dutela.

Anartean, bere beso estekatu gabea arraukan ibiltzen ginion urdeari, odolaz hobeki huts zadien... Batitak kontent iduri zuen bere marraza ukaldiaz: bihotza hunkitu-gabe, legez zilatu ziola lepo-zaina.

Hainbeste arramantzez durduzatu, Popol tipia, lanari tiro emanik zagon, beharri-ziloak erhiz tapatzen zituela. «Nahi-uka urdea atxiki, to?», zuen erasiatu Batitak. Berritz lotu zen beraz Popol bere sailari, urdearen buztana eskuaren inguruan bihurtikatu, indar-egiten zuela arkumaka eta hats-hantuka, sokatiran bezala. Hoinbeste zalaparta ez baititazke debaldetan ibil, halako batean, urdeak saritzat, librantza-zitort batzu ziozkan bet-betan igorri eskuen gainerat... Handiak irriz hasi ginen. Afruntatua eta nazkatua, gure laguntzale baliosa, bere kargua utzirik, ihesi joan zitzaunkun.

Noizbait, urdearen garrasiak jabaldu ziren eta azken hats-orroaren ondotik, ez zen gorputzean gelditu biziaren beroa eta hil-berri zainen daldara baizik. Mari Beltzak ez zuen ondar odola bildu, jada untzi barrean «itsaso eta bidaso» bazuelakotz. Odol-aria zakurreri aurtiki zioten eta, nehorri hitzik atera-gabe, etorri bezala sukalderat itzuli zen.

Norbaitek, eta bereziki emazte bat, mutu-egoitea besteen artean, ez da maiz gertatzen dena. Hortakotz, zombait xehetasun zor ditut hemen Mari Beltzaz.

Mari Beltza zen presuna bat, gorputzaz sostor, arropatzez putsuka, jitez haize-hego... Arpegi biribil hantu batean, bi ezpain handi ari zaizkion airean musuka.

Heien gainean, sudur motzor bat, bi begi tipi beren zilotan galduak, eta ile-karbutza sasitsu bat, kopeta hertsu baten teilatu.

Batita eta Mari Beltza, zakur eta gatu bezala bizi ziren aspaldiko urte hetan... Eta zertako ote? Segur, balio du konda dezadan.

\* \* \*

Ordu hetan, gure herrirat etorri zen miriku berri bat. Xarantesa zen... Ez baita, Frantzian, arraza piltzarragorik... Errainetarik gogor, makila hautsi bat iduri zuen kurritzean... Sudur luze bat bazaukan, «baionetan» landatua arpegiaren zain... Sudur haren gainean ixtaklok, han zirritza bati estekatuak, bi berina koxkor, alimaleko muntadura bati uzartuak, iduri baitzuten mari-burruntza bat dantzan... Sudurraren pean, kokotsik baterez, bainan bi ezpain busti, infrentzuz itzuliak, muztatz erori batean pazkan ari.

«Ofiziale berri, oro hari», baita errana, etorri-ordu gaitzeko arrakasta bildu zuen gure Xarantesak... Jakintza doblekoa omen ginuen gizona... Ez bakarrik eskoletako, bainan gainerat nasi-mirikuntzan trebatua... Nehork ordu artio senda ez zezakzen eritasunak, egunetik biharrerat, eskuz bezala kentzen zituen.

Sasieneko Manez tipia terrenpenete sendatu zuen ohe bustitzeko usaiatik... Ezkerreneko Beñat ere ba, larru-dario batetik. Alta, batek ala besteak hameka miriku kurriturik zauzkaten, sendatu nahiz... Bai eta ere asko «Jainko ttipi» eta beila-leku...

Xarantesaren sendagailu zombait nihungo mirikuarenak ez bezalakoak ziren. Bati, belarrean lo-egiteko manatzen zion... Besteari, ilargi xuritan larru-has ibiltzeko, edo oraino, goiz ihintz zilarrean amilkatzeko.

Ahatik, ez baita itzalik gabeko arbolik, emagintzan ez omen zuen tut balio. Behin bakarrik, ezin-beste batez, deitu zuten herrian, haur munduratzeko lanerat... Haurrak, burua jada erdi kanpoan zaukan, bainan ikusi zuelarik mirikuaren mokoak, ikaratu zen eta berritz amaren sabelerat sartu hogoi eta lau orenentzat. Horra zer zioten jendek. Jendeak, gaxtoa behar du izan, huts batengatik saila guzia ehorzteko. Bainan, hola duzu munduko legea, eta, beren urratsentzat erakaspén har dezatela miriku abiatu berriek.

Maria Beltzak ere bazituen ordu hetan, osagarriaren aldetik, bere arrangurak: aire-bafadak, goiti-eginnahiak, odola maiz bururatzen, dena tiziti bilkatzen ari... Nik dakita zer? Joan zen beraz miriku Xarantesarengan eta hunek erran zion hobekitzeko zer egin: «Bota larrua ilargi-xuriri, zangoak gau-zerenuari, trunkoa dantzari!»

Bainan... Bainan, nun nabila ni hola, hartu bidetik arras baztertua? Jo dezagun berritz gure urdearengan.

\* \* \*



Mahainetik uzkaile ginuen lasto-ohere baten gainerat eta han erroitik garbitu, larruko ileak errez, ur irakituarekin lertzoa kenduz, kanibet-ahoz eta teila-puskaz karrakatuz.

Gero, azpila ureztaturik, berritz haren gainean ezarri ginuen eta Batita, marrazaz eta aizkorez, lotu zen puskatzen.

Bi kanibet ukaldiz lepo-sagarra kendu ondoan, golazpitik gibel ziloraino ideki zuen, eta, bare-sarea bazterrerat berexiz, kendu ziozkan tripak... Hauk, saski potor batean kargaturik, bi emaztek ereman zituzten errekarat, ur-gaia garbitzeko.

Lehenago tripoila eta ondo-hertzea, haragi xehatuz beterik, lukainka-haga muturrean zintzilik emaiten ginituen eta deitzen martin-piro edo mondongo. Hertze artekoak aldiz, andoilen sagar-gai baliatzen ginituen... Orai berritz hertze xehe berak baliatzen ditugu odolgi eta andoiletako.

Halahala ez dugu gehiago pizuntzia urinez betetzen, ez-eta hanturik, geroko toxa-gai zintzilik ezartzen; bainan zakurreri diotegu aurtikitzen, beste asko ondarkinekin: miña, segoki, haragi zail, hezur huts eta gainerateko.

Bainan ez dezagun Batita begitarik gal... Urdeari, burua aizkoraz mozten dio... Fuñak bazterrerat ezartzen ditu aitatxirentzat gosaritako eta beretzat beiratzten... Ezpainak «Adinarekin gizona mutur-zuritzen baituk, dauku salatzen, ohartua nauk urdeak ditikan jangailu finenak ditukala: ezpainak... Ez duk harritzeko... Urdek, ezpainez ditiztek janariak haztatzen eta berexuten... Berexete hori lan milikia duk eta nahi-ta-ez hortaz kargatuak diren haragi zatiak dituk milikienetarik».

Bainan, zertako Popol tipia ote dago hoinerne? «To to, hire saria, dio erraiten Batitak, urdearen buztana moztuz. Hau sar-zak lurrean... Hola, heldu den primaderako sortuko duk “kututu” berri bab».

Popolek, holakorik sinesten ote du? Iduri luke haren adimena dudamudaka dabilala, «baitz»-ka Batitaren segurtamenari, eta «ezetz»-ka sahetseko irriengatik. Adrien, pipa-xango, lehertzeko karkarietan ari da, errihezurrak aireari kriskatuz, bere metzikano galtza luze hertsia tarratatzeko irriskuan.

Jada errana dut Pipa-xango dela aitarik gabeko haurra, neska lepo luze, ezpain matxar baten semea; amak Paris-etik ekarri zuen, aitortuz jaun ikasle eder batenganik zuela... Gisa hortan etortzen diren haurrak, beti hala izaiten baitira... Etxean haur bakarra, aitatxi-amatxi zaharregiez altxatua, lagunetarat guti largatua, Pipa-xangok halako herabetasun eta uzkurtasun bat bazaukan, bere adineko edo larriagoko laguneren artean.

Bainan, atrebentzia eta ausartzia pizten zitzaizkon bere menekoetarat sartu ordu.

Handiez huiatua eta heiekilakoa egiteaz lorietan, berekin hartu zuen Popol eta biak joan ziren baratzerat, aza-lerro baten buruan urde buztanaren landatzerat... Aintzurarekin putzua eginik, gogoratu zitzaizoten, ongailuaren laguntzarekin, beren «landareak» hobeki hartuko zuela... Jo zuten beraz arditeirat, arkina pixka baten bilarat... Bainan debrua ez baitago lo, urrundu zireneko, etxeko gatu zaharrak baratzetik joan zioten bere urde-buztana. Horra zertako ez den aurten gure baratzean zerri-umerik sortuko. Beti-eta bereziki urde hiltzetan, kasu-emaiteko da zakur eta gatu ohoineri. Pika-ahalean, haragi-puskak ganbera hetsirat garreiatzen ginituen eta, han mihise baten gainean pausatzen.

Batita pika eta pika ari zen, artetan kanibeta, sahetsetik zintzilik zaukan zizpari xorroxtuz... Harrigarri da urde batek zer haragiketa daukan. Huna gaziteiko: zingar azpi eta sorbaldak, zazpi hezurak, solomuk, azpixonak, almiak edo artekiak, zango, pala eta beste holako hezurkiak, mihia, beharriak, giltzurdinak, kailuak...

Ez dituzte etxe guzitan, puska berak berdin baliatzen. Hainbeste koziner eta hainbeste moldetan ari dira eta bakotxa berearen alde.

Guk odolki-gaia sartzen ditugu: odola, birika, barea eta buruaren parte bat; lukainka-gaia: ginarkiak.

Andoilak egiten ditugu, tripoila eta bertze sobrak xehatuekin.

Ez dugu urtzen urinik, gantxingorren apailatzeko, gutik baitituzte maite gure etxean.

Amak urin garbi pixka bat sahetserat ezartzen du, ondoko egunetan baliatuko baitu zombait sendagailuaren moldatzeko.

Aitak, bere ihiziko boten gantzutzeko, zoko batean gatu-petik gordetzen du urdearen buztan-ondoan. Emazte horiek andere-arrea zakurreri aurtikitzen diote. Hertzetan sartzen bada, hauk lehertarazten omen baititu.

Horiek hola, sukaldetik deia ukan ginuen joaiteko gosaiterat. Mahaina ederki emana zen sotoan, eta apairua bi jakitakoa urde gibel salta eta oilasko errakia... Mari Beltza zerbitzari... Deneri elhe egiten zaukun, salbu Batitari.

\* \* \*

Ha, ez dut ahatik bururatu bi gizon-emazte horien hasarretzea nundik heldu zen.



Beraz, gau hartan, Batita joana zen bere pentzerat, ilargi-xuriz sator ihizirat... Han zagon tente, aintzurra eskutan, sator-mulo baten zain, noiz eta ere harrabots batzu entzun baitzituen berroaren bestaldetik. Zer ote zitaken, badoha behako baten ematerat eta zer ikusten du? Emazte trun-ko bat, arras arinki bezitua, gaitzeko zalapartetan ibilki: batean lasterka, bestean potikoka, zangoz uztarka, besoz otoizka eta berdin ihintzean amilka... Mari Beltza zen Xarantesaren sendagailutan ari...

Pentsa, Batita ez zen ba harritu! Ixil-ixilik etxerat sartu zen.

Biharamunean, igandea baitzen, apezak mezan sekulako oihuak atera zituen elgar-maitatzearen alde... Xede onak harturik, dudarik ez da, Batitak jo zuen ostaturat, goizekoaren egiterat. Mahaineko lagunak zituen: Pette Kaliforni, Anton Burrumba eta Martin Zirtzil... Alimale pollitak, hiruak ere...

Ez nakike zer solas ibili zuten elgarren artean; bainan, ondoko gauean, anitz eta anitz sator-ihiztari baziren Batitaren pentzean... Bezperako «basurdea» ere etorri zen bere laster-jauzietarat. Nik ez dakit nolaz bet-betan, akelarre guzia harat bildua balitz bezala, ikaragarriko galarrots bat han muntatu zen adar-turruta, joare-zilintza, su-panpa, zakur-marruma, atabal-tarrata, untzi-zarrantza, oiuhu-garrasia, orotarik bazen eta nasai-ki.

Zonbait egunen buruan, pertsu-paper batzu eskutik eskurat zabaldu ziren herrian... Behi zahar, errape handi bat aipu zuten... susara... marexalaren tratamendutan ari eta... holako.

Geroztik, Mari Beltzak ez dio hitz tuntik egiten Batitari... Handik laster, delako Xarantes mirikuak, tokiak hustu zituen... Ez omen zuen aski lanik.

\* \* \*

Bainan zer kalakak sukalde-aldetik! Ke gizen usaindu baten lanoan, erreximendu bat emazte, bazkariak pizkortuak, ari dira batzu haragi xehatzen, besteak hertze betetzen, azkenak baxera lanetan... Lehen odolgiak, urina darioan, idortzen dagotzi, zimini-azpian zumetarik zintzilik, edo, lasto gainean, supazterraren inguruan... Larazetik dilindan dago suko erregea panderu handia... Horren barrean galgal irakitzen ari dira beste odolgi batzu, emazte batek zizta eta zizta baitabilzka, ez daiten lehert. Iluntzeko, gizonak biltzen ahalko dira «odolgi jatearen» egiterat.

Bihar, haur bat ibiliko da auzo-ahaidetan, «urde-puxka» partitzen. Jaun erretorak ere izanen du jasta.

Horra nola iragan den gure urde hiltzea... Baditake zonbaitentzat ibili dugun sobera xahupide, denbora-galtze edo lan debalde... Bainan, bizia eginga ote da beti zalapartaka eta diruketaka higitzeko?... Bizitari ez ote zaizko zor pausa eta deskantsatzeak?... Guri iduritzen, ez bakarrik zor zaizkola; bainan oraino, aberastasunik laketenak dituela adixkiden arteko egonaldi eta gurutzamenak.

Ez dauku segur egun horrek doluzko orroitzapenik utzi, bainan plazer ezti bat... Ha! Luzaz iraun dezatela Eskual Herrian gisa bereko egun goxoek!

*(Gure Herria, 1964, 86-94)*